





**ANALOGIAK**

EUSKAL ARTEA  
BBVA BILDUMAN

**ANALOGÍAS**

ARTE VASCO en la  
COLECCIÓN BBVA





ANALOGIAK

EUSKAL ARTEA  
BBVA BILDUMAN

ANALOGÍAS

ARTE VASCO en la  
COLECCIÓN BBVA

BBVA





Aurkene Carlos Torres Vila	6	Presentación Carlos Torres Vila
<b>ATZERABEGIRAKO BAT</b> María Luisa Barrio Maestre	8	<b>UNA MIRADA RETROSPECTIVA</b> María Luisa Barrio Maestre
<b>BILDUMA BAT, HISTORIA BAT</b> Javier Viar	16	<b>UNA COLECCIÓN, UNA HISTORIA</b> Javier Viar
Obren katalogoa		Catálogo de obras
<b>PINTURA ERREGIONALISTA</b>	68	<b>LA PINTURA REGIONALISTA</b>
<b>MODERNITATEAREN KONFIGURAZIOA</b>	88	<b>LA CONFIGURACIÓN DE LA MODERNIDAD</b>
<b>ABANGOARDIEN HARRERA</b>	118	<b>LA RECEPCIÓN DE LAS VANGUARDIAS</b>
<b>ABSTRAKZIOAREN HASTAPENAK</b>	134	<b>LOS INICIOS DE LA ABSTRACCIÓN</b>
<b>FIGURAZIO BERRIA</b>	150	<b>LA NUEVA FIGURACIÓN</b>
<b>ANIZTASUN MODERNOA</b>	166	<b>PLURALISMO MODERNO</b>
<b>PAISAIAREN IKUSPEGI LIRIKOA</b>	188	<b>LA VISIÓN LÍRICA DEL PAISAJE</b>
Biografiak	207	Biografías



BBVAren helburua aro berri honetako aukerak guztion helmenean jartzea. Hala, helburu horrekin guztiz bat datoz kulturaren bidez ezagutza sortzea eta hedatzea, gure ondare artistikoa gizartera hurbiltzea barne.

Oraingo honetan aurkezten dugun erakusketak, *Analogiak. Euskal artea BBVA Bilduman*, ibilbide interesgarria eskaintzen du euskal artearen funtsezko garai historiko batean zehar, eta agerian uzten du BBVA Bilduman bertako edo Euskal Herriari lotutako artisten presentzia nabarmena; gure erakundearen historian zehar eraturako bilduma, banku-mezenasgoaren lan garrantzitsuari esker.

Erakusketak berrogei piezako hautaketa zaindua biltzen du eta mende bat baino gehiagoko historia hartzen du barnean. XIX. mendearen bigarren erdialdeko pintura erregionalistarekin hasten da, XX. mendearen azken hamarkadan zehar sortutako mugimendu artistikoetara iritsi arte. Joera desberdinetatik, toki mailan garatu eta aldi berean artearen nazio-mailako bilakaeran eragin erabakigarria izan zuten joeren ibilbidea da.

Proiektu honek artista garrantzitsuen obrak behatzeko aukera ematen du. Haien artean ditugu Anselmo Guinea, Aurelio Arteta eta Ignacio Zuloaga, eta aipamen berezia merezi dute nazioarteko ospea duten tokiko figura handiek, hala nola Eduardo Chillidak eta Jorge Oteizak, egungo lengoaia berriak integratu zituztenak ahaztu gabe, Bonifacio Alfonso, Carmelo Ortiz de Elgea eta Darío Urzay, beste askoren artean.

Esanguratsua da erakusketa hau Bilbon aurkezteko pribilegioa izatea, BBVAren sorburura eramaten gaituelako.

BBVA Bilduma publikora hurbiltzeko asmoa dudanez, espero dut erakusketa honetaz gozatzea, gure funts artistikoak ezagutzeko aukera ematen baitu, betiere kultura guztion helmenean jartzeko helburuarekin.

Carlos Torres Vila  
BBVAren Presidentea

BBVA tiene como propósito poner al alcance de todos las oportunidades de esta nueva era. La generación y divulgación del conocimiento a través de la cultura, incluyendo el acercamiento de nuestro patrimonio artístico a la sociedad, están plenamente alineadas con ese propósito.

La muestra que presentamos en esta ocasión, *Analogías. Arte vasco en la Colección BBVA*, ofrece un interesante recorrido por un período histórico fundamental del arte vasco, poniendo de manifiesto la notable presencia de artistas locales o vinculados al País Vasco en la Colección BBVA, conformada a lo largo de la historia de nuestra entidad gracias a la significativa labor de mecenazgo del banco.

La exposición, que cuenta con una cuidada selección de cuarenta piezas, permite abarcar más de un siglo de historia. Comienza con la pintura regionalista, propia de la segunda mitad del siglo XIX, hasta llegar a los movimientos artísticos que tuvieron lugar a lo largo de la última década del siglo XX. Un recorrido por las distintas tendencias que se desarrollaron a nivel local y que, a su vez, influyeron de manera determinante en la evolución del arte a nivel nacional.

Este proyecto brinda la oportunidad de contemplar obras de artistas tan destacados como Anselmo Guinea, Aurelio Arteta o Ignacio Zuloaga, con especial mención de las grandes figuras locales de fama internacional, como Eduardo Chillida o Jorge Oteiza, sin olvidar a los introductores de nuevos lenguajes contemporáneos, como Bonifacio Alfonso, Carmelo Ortiz de Elgea o Darío Urzay, entre muchos otros.

Tener el privilegio de presentar esta muestra en Bilbao es un acontecimiento representativo, que nos remite a los orígenes de BBVA.

Desde mi deseo de acercar la Colección BBVA al público, espero que disfruten de esta exposición, que permite el conocimiento de nuestros fondos artísticos con el propósito de poner la cultura al alcance de todos.

Carlos Torres Vila  
Presidente de BBVA



## Bildumazaletasuna

*Walter Benjamin*<sup>1</sup>ek zioen bildumazalea artelana historiaren iraganbidetik ateratzen duen hura dela. Bildumazaletasunak funtsezko zeregina bete du artearen bilakaeran<sup>2</sup>, eta, edozein alditan eta lekutan, bere sorburuko kulturaren ispilu da, baita ezagutzarako bide ere, bere alderdi guztietan: filosofiko, politiko, erlijioso eta sozialetan.

XVIII. mendean bildumazaletasunak utzi egiten dio erregetzarentzat eta aristokraziarentzat soilik den jarduera bat izateari, eta sortzen ari den klase burgesaren dibertimendu eta nahi bihurtzen da, gustu aristokratikoak berdindu nahian. Frantzia, aurreneko *saloia* sortu zen, erakusketa-formatu berri bat; bere izenak erakusketa hartu zuen Louvre Museoko *Salon Carré* aretoan du jatorria. Hala, *saloia*, artista gazteen sorkuntza-lanaren erakusleioa, aldi baterako etorkizuneko erakusketen hazi eta oraingo arte-azoken aurrekari bilakatu zen, ordurako hasiak baitziren eskuratzen ikusgai jarritako piezak. Esan daiteke gaur egun «artearen merkatu» deitzen diogun horren hasiera markatu zuela, baita arte-merkatariaren, arte-kritikariaren eta bildumazaletasun pribatuaren figurarena ere<sup>3</sup>.

Bibliografia ugari dago gure herrialdeko bildumazaletasunaren fenomenoari buruz, baina ia gehienetan errege-bildumetara, bildumazale handietara edo museoetara dago bideratua; salbuespenak salbu<sup>4</sup>, urria da banku-erakundeen bildumazaletasunari eskaintzen zaion arreta.

Jakin badakigu Espainiako bankuen bildumazaletasunak Banco Nacional de San Carlosen duela jatorria; erakundea 1782an sortu zen Francisco Cabarrúsen ekimenez, Floridablancako kondearen babesean. 1829an bankua desegin eta bere ordean Banco Español de San Fernando ezarri zen. Geroago, 1844an, ekimen pribatuko aurreneko bankua sortu zen, Banco de Isabel II izenekoa, besteak beste, arte-bildumazale handi batek, Salamancako markesak, sustatua. 1847an lehenengo aldiz bat egin zuten banku publiko batek —Banco Español de San Fernando— eta banku pribatu batek —Banco de Isabel II— eta horrela sortu

1 Walter Benjamin, «Historia y coleccionismo: Eduard Fuchs» 1937, *Discursos interrumpidos* (itzulpena, hitzaurrea eta oharra, Jesús Aguirrerrenak). Bartzelona: Planeta, 1994, 87-135. or.

2 Francisco Calvo Serraller, Hitzaurrea argitalpen honi: *Vicente Carducho. Diálogos de la Pintura. Su defensa, origen, esencia, definición, modos y diferencias*. Madril: Ediciones Turner, 1979, 14. or.

3 María Dolores Jiménez-Blanco, *El coleccionismo de arte en España*. Bartzelona: Fundación Arte y Mecenazgo, 2013, 25-26. or.

4 Julián Zarauza, *Las colecciones de la banca pública en el contexto del coleccionismo de arte en España (1960-1982)*. Doktoretza-tesia, Universidad CEU San Pablo. Madril, 2019; María Dolores Jiménez-Blanco, *op. cit.*; Francisco Calvo Serraller, «El coleccionismo artístico de las entidades financieras españolas», *Arte español del siglo XX en la colección BBVA* [erak. kat.]. Madril: BBVA, 2006

1 Walter Benjamin, «Historia y coleccionismo: Eduard Fuchs» 1937, en *Discursos interrumpidos* (traducción, prólogo y notas de Jesús Aguirre). Barcelona: Planeta, 1994, pp. 87-135.

2 Francisco Calvo Serraller, Prólogo a *Vicente Carducho. Diálogos de la Pintura. Su defensa, origen, esencia, definición, modos y diferencias*. Madrid: Ediciones Turner, 1979, p. 14.

3 María Dolores Jiménez-Blanco, *El coleccionismo de arte en España*. Barcelona: Fundación Arte y Mecenazgo, 2013, pp. 25-26.

4 Julián Zarauza, *Las colecciones de la banca pública en el contexto del coleccionismo de arte en España (1960-1982)*. Tesis doctoral, Universidad CEU San Pablo. Madrid, 2019; María Dolores Jiménez-Blanco, *op. cit.*; Francisco Calvo Serraller, «El coleccionismo artístico de las entidades financieras españolas», en *Arte español del siglo XX en la colección BBVA* [cat. exp.]. Madrid: BBVA, 2006.

5 [https://www.bde.es/bde/es/secciones/sobreelbanco/historiabanco/Del\\_Banco\\_de\\_San/](https://www.bde.es/bde/es/secciones/sobreelbanco/historiabanco/Del_Banco_de_San/)

6 El Banco de Bilbao se fundó el 24 de agosto de 1857.

## Coleccionismo

Decía Walter Benjamin que el coleccionista es aquel que extrae la obra de arte del transcurso de la historia<sup>1</sup>. Las colecciones han ejercido un papel fundamental en la evolución del arte<sup>2</sup>, que, en cualquier tiempo y lugar, es un espejo, a la vez que vía de conocimiento, de la cultura en la que surge, en todos sus aspectos: filosóficos, políticos, religiosos y sociales.

En el siglo XVIII el coleccionismo deja de ser una actividad reservada a la realeza y a la aristocracia para convertirse en divertimento y aspiración de la emergente clase burguesa, que trata de emular los gustos aristocráticos. Se crea en Francia el primer *salon*, un nuevo formato de exposición que recibe su nombre del lugar que lo acoge, el *Salon Carré* del Museo del Louvre. El *salon*, escaparate de la producción de los jóvenes artistas, se convierte así en el germen de las futuras exposiciones temporales y precedente de las actuales ferias de arte; ya entonces se podían adquirir en él las piezas expuestas. Se puede decir que marca el inicio de lo que hoy denominamos «mercado del arte», así como de la figura del marchante, el crítico de arte y el coleccionismo privado<sup>3</sup>.

Hay abundante bibliografía sobre el fenómeno del coleccionismo en nuestro país, pero casi siempre se orienta hacia las colecciones reales, los grandes coleccionistas o los museos; con alguna excepción<sup>4</sup>, es escasa la atención dedicada al coleccionismo de las entidades bancarias.

Sabemos que el coleccionismo bancario en España tiene su origen en el Banco Nacional de San Carlos, creado en 1782 por iniciativa de Francisco Cabarrús, apoyado por el Conde de Floridablanca. En 1829 este banco se disuelve, y es reemplazado por el Banco Español de San Fernando. Más tarde, en 1844, surge el primer banco de iniciativa privada, el Banco de Isabel II, promovido, entre otros, por el Marqués de Salamanca, gran coleccionista de arte. En 1847 se da la primera fusión entre un banco público, el Banco Español de San Fernando, y un banco privado, el Banco de Isabel II, dando lugar al nuevo Banco Español de San Fernando, antecedente directo del Banco de España, que nacerá en 1856<sup>5</sup>, solo un año antes de la fundación del Banco de Bilbao<sup>6</sup> / ii. 17.



zen Banco Español de San Fernando berria, gerora, 1856an<sup>5</sup> sortuko zen Banco de Españaren aurrekari zuzena, Banco de Bilbaoren<sup>6</sup> / **II. 1/** sorrera baino urtebete lehenago bakarrik. Hortaz, gure herrialdean, bankuen bildumazaletasuna Banco de Españaren sorrerarekin lotzen da. Erakunde horrek Espainiako ondare artistikoa zaintzen lagundu zuen, eta bere zereginak jarraitasuna izan du beste banku batzuetan, besteak beste, BBVAren sorburuan dauden horietan (Banco de Bilbao, Banco de Vizcaya, Banco Hipotecario, Banco Exterior, Argentaria, etab.), XIX. mendean hasitako mezenasgo-zeregin horri eutsi ziotenak.

#### BBVA eta bere bilduma

Banku-erakundeak gure garaiko arte-bildumazale adierazgarrietako batzuk dira. Eta bilduma baten benetako eta lehenetsuneko egitekoa beti da bera: ondare artistikoa zaintzea, babestea, ikertzea, kontserbatzea eta ezagutzera ematea. Gero, bilduma bakoitzak bere profila du, berezko nortasuna duen entitate gisa definitzen duen horretan jartzen du fokua erakunde bakoitzak. BBVAren kasuan, arte-bildumak, bildumazaletasun-mota baten historia ez ezik, gaur egun BBVA Taldea osatzen duten banku desberdinen historia ere islatzen du.

XIX. mendean eskuratu ohi ziren artelanak, altzariak, dekorazio-arteak eta tresna zientifikoak, batez ere, irizpide apaingarri batekin zetozen bat: espazioen kalitatea eta egoitza nagusien duintasuna goratzea zen beren xedea. Pieza horietako asko, bere garaian garaikidetzat hartuak, artelan gailenak bilakatu dira egun, baita «antzinako» piezen mailarekin ere.

BBVAren artxiobotan gordetzen dugun dokumentazioagatik dakigunez, XX. mendearen hogeiko hamarkadan eta hogeita hamarrekoan, artelan batzuk eskuratu ziren; baina, hain zuzen ere, mendearen bigarren erdian ekin zitzaion ondasun artistikoak bildumazale-irizpidearekin eskuratzeko zeregin aitzindariari. Estatua, gizartea eta hedabideak sorkuntza estetikoaz kanpo bizi ziren aldi batean<sup>7</sup>, banku-erakundeak, enpresak eta fundazioak beren bildumak taxutzen hasi ziren, eta garaiko artearen mezenas berriak bilakatu ziren; horrela lagundu zuten sortzaileen belaunaldi bat baino gehiagoren garapenean eta gure herrialdeko ondare artistikoaren zaintzan.

BBVA, hirurogeita hamarreko hamarkada izan zen banku-bildumazaletasunaren goren unea, neurri handi batean bi zirkunstantzia desberdin elkartu izanari esker. Batetik, Espainiako sistema finantzarioaren liberalizazioa 1977an, herrialde osoan zehar banku-bulego berriak irekitzera berekin ekarri zuena. Bankuen bildumetako funts artistikoen hazkunde esponenzial baten aldia izan zen hura, bat datorrena, batetik, irudi korporatiboa indartu nahi izatearekin, artea bezeroak hartzeko espazioetan barneratuta; bestetik, artelanak ondare-inbertsio gisa eskuratzearekin eta, aldi berean, egileak adoretu nahi izatearekin ere.

Gainera, nabarmentzekoa da BBVAk mezenasgoari emandako bultzada eskualde bakoitzean. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, arte plastikoak babestea helburu hartuta, kultura sustatzeko programa bat sortu zen, eta horrek ekarri zuen bostehunetik gora erakusketa antolatzea, espainiar sortzaileei, bai maisu handiei bai etorkizun handiko gazteei eskainiak<sup>8</sup>.


Laurogeiko hamarkadan, arte garaikidearen lehenengo azoka, ARCO (1982), sortu izanarekin eta arte-galeriak ugaritu izanarekin batera, bildumazaletasunaren inflexio-puntua lortu zen BBVA. Harrezkero, bildumazaletasunari dagozkion irizpide zorrotzagoek gidatuko zuten artelanak eskuratzeko politika.

5 [https://www.bde.es/bde/es/secciones/sobreelbanco/historiabanco/Del\\_Banco\\_de\\_San/](https://www.bde.es/bde/es/secciones/sobreelbanco/historiabanco/Del_Banco_de_San/)

6 Banco de Bilbao 1857ko abuztuaren 24an sortu zen.

7 Julián Zarauza, *op. cit.*, 9. or.

8 Julián Zarauza, *op. cit.*, 13. or.



il. 1 *Extracto de Inscripción nº 1*, a 1 de febrero de 1858.

BBVA Archivo Histórico. Fondo: Banco de Bilbao. Sección: Accionistas.

*Inskripzio-laburpena 1. zk.*, 1858ko otsailaren 1a. BBVA Artxiibo Historikoa. Funtsa: Banco de Bilbao. Saila: Akziodunak.

Así pues, en nuestro país, el coleccionismo bancario entronca con el nacimiento del Banco de España, que contribuyó a preservar el patrimonio artístico español y cuya labor ha tenido continuidad en otros bancos, entre ellos algunos de los que están en el origen de BBVA (Banco de Bilbao, Banco de Vizcaya, Banco Hipotecario, Banco Exterior, Argentaria, etc.), que continuaron con esa tarea de mecenazgo iniciada en el siglo XIX.

#### BBVA y su colección

Las instituciones bancarias cuentan hoy entre los coleccionistas de arte más significativos de nuestro tiempo. Y la misión auténtica y primordial de una colección es siempre la misma: preservar, custodiar, investigar, conservar y difundir el patrimonio artístico. Después, cada colección tiene un perfil diferente, cada institución pone el foco en aquello que la define como entidad con personalidad propia. En el caso de BBVA, la colección de arte refleja no solo la historia de un tipo de coleccionismo, sino también la de los diferentes bancos que conforman actualmente el Grupo BBVA.

Las obras de arte, muebles, artes decorativas e instrumentos científicos que se adquirían en el siglo XIX respondían a un criterio principalmente decorativo: su finalidad era ensalzar la calidad de los espacios y la dignidad de las sedes principales. Muchas de esas piezas, en su momento calificadas como contemporáneas, se han convertido hoy en notables obras artísticas, incluso con categoría de «antigüedad».

Por la documentación que conservamos en los archivos de BBVA, sabemos que en los años veinte y treinta del siglo XX se adquirieron algunas obras de arte; pero será en la segunda mitad del siglo cuando realmente inicie la labor pionera de adquisición de bienes artísticos con criterio de coleccionista. En una época en la que el Estado, la sociedad y los medios de comunicación vivían al margen de la creación estética<sup>7</sup>, instituciones bancarias, empresas y fundaciones comenzaron a moldear sus propias colecciones y se convirtieron en los nuevos mecenas del arte del momento, contribuyendo al desarrollo de varias generaciones de creadores y a la preservación del patrimonio artístico de nuestro país.





il. 2 *Sede del Banco de Bilbao, 1907.*  
BBVA Archivo Histórico. Archivo Fotográfico.

*Banco de Bilbaoren egoitza, 1907.*  
BBVA Artxibo Historikoa. Argazki Artxiboa.

## Ondare artistikoa - ondare arkitektonikoa

Espainian, BBVA Bildumaren historia bat dator erakundearen beraren historia korporatiboarekin. «Bildumen bilduma» hau ehun eta berrogeita hamar banku baino gehiagoren —guztiek BBVA Taldea osatzen dute gaur egun— fusio desberdinen bitartez taxutu da denboran zehar<sup>9</sup>. Bederatzi mila artelan inguruk, diziplina desberdinetakoek —pintura, obra paper gainean, eskultura, markoak, dekorazio-arteak eta altzariak, instalazioak eta arte digitala— Espainian den bilduma pribatu korporatibo garrantzitsuenetako bat osatzen dute, bere bolumen, aniztasun eta kalitateagatik<sup>10</sup>.

Bilduma honek, Euskal Herrian errotuak dituenak bere sustraiak, «aukera ematen du euskal artearen historiari jarraitzeko bere gertaera nagusi guztien eta bere artista onenetako askoren bitartez»<sup>11</sup>, XIX. mendetik gaurdaino. Joera desberdinetako bostehun bat piezaren aparteko multzo batek ziurtatzen du euskal sortzaileek edo euskal artearen eragina jaso zuten haiek ekoiztutako artelanen gailentasuna.

Espainian, BBVA Bildumak euskarri dituen funtsezko hiru zutabeak hauek dira: ikerketa, hedapena eta kontserbazioa. Ezingo genuke bildumazaletasunaz hitz egin bildumaren iraunkortasuna aipatu gabe; piezak kontserbatu eta zaintzeko lan arretatsu horrek bere ondare artistikoa iraunarazten du eta ahalbidetu egiten du BBVA Taldeak gordeta duen garrantzizko ondarea gizartearen helmenean jartzea.

Orain aurkezten dugun erakusketa hau BBVAk gorde, babestu eta zaintzen duen ondarearen lagin txiki bat besterik ez da, ingurune arkitektoniko berdingabe batean, San Nikolas jauregian, behatua izateko pribilegioa duen ondarearena.

Nekez beha daiteke artelan-multzo bat hain eszenario berezi batean, Eugène H. Lavallo (1818-1869) arkitekto frantsesak proiektatutako eraikin batean / il. 2 / 1865eko martxoaren 30ean ezarri zen aurreneko harria; eta hiru urte igaro baino lehen, 1868ko urtarrilaren 7an, ireki zen jauregi hau publikoarentzat, non kokatu baitzen Banco de Bilbaoren 1.º bulego eta egoitza soziala.

9 VV. AA., *Guía de archivos históricos de la banca en España*. Madrid: Banco de España, 2019, 174-210. or.

10 Francisco Calvo Serraller, «Un recorrido a través de cinco siglos de pintura española», *Obras maestras de la Colección BBVA* [erak. kat.]. Madrid: BBVA, 2004, 17. or.

11 Javier Viarren arabera; euskal artean aditua eta katalogo honetako testuaren egilea (zorigaitzez argitaratu aurretik zendua), 16. or.

8 Julián Zarauza, *op. cit.*, p. 13.

9 VV. AA., *Guía de archivos históricos de la banca en España*. Madrid: Banco de España, 2019, pp. 174-210.

10 Francisco Calvo Serraller, «Un recorrido a través de cinco siglos de pintura española», en *Obras maestras de la Colección BBVA* [cat. exp.]. Madrid: BBVA, 2004, p. 17.

11 Según afirma Javier Viar, especialista en arte vasco y autor del texto del presente catálogo (lamentablemente fallecido antes de su publicación), p. 16.

El momento álgido del coleccionismo bancario en BBVA se produce en los años setenta, en gran medida gracias a la confluencia de dos circunstancias diferentes. Por una parte, la liberalización del sistema financiero español en el año 1977, que da lugar a la apertura de nuevas oficinas bancarias a lo largo y ancho del país. Es un periodo de crecimiento exponencial de los fondos artísticos en las colecciones bancarias, que responde, por un lado, a un interés por fortalecer la imagen corporativa incorporando el arte a los espacios destinados a recibir a los clientes; por otro, a la adquisición de piezas de arte como inversión patrimonial y al mismo tiempo como un modo de alentar a los autores.

Además, hay que destacar el impulso de BBVA al mecenazgo en cada región. En la década de los setenta, con el fin de dar apoyo a las artes plásticas, se creó un programa de promoción cultural que llevó a organizar más de quinientas exposiciones dedicadas a creadores españoles, tanto grandes maestros como jóvenes valores<sup>8</sup>.

En la década de los ochenta, coincidiendo con el nacimiento de la primera feria de arte contemporáneo, ARCO (1982), y la multiplicación de las galerías de arte, se alcanza el punto de inflexión del coleccionismo en BBVA. A partir de entonces, la política de adquisición de obras artísticas se guía por criterios más estrictos de coleccionismo.

## Patrimonio artístico - patrimonio arquitectónico

La historia de la Colección BBVA en España responde a la propia historia corporativa de la entidad. Esta «colección de colecciones» se ha ido configurando a lo largo del tiempo a través de las diferentes fusiones de los más de ciento cincuenta bancos<sup>9</sup> que hoy en día constituyen el Grupo BBVA. En torno a nueve mil obras de arte de diversas disciplinas —pintura, obras sobre papel, escultura, marcos, artes decorativas y muebles, instalaciones y arte digital— conforman una de las colecciones privadas corporativas españolas más importantes por su volumen, variedad y calidad<sup>10</sup>.

Esta colección, que hunde sus raíces en el País Vasco, «permite seguir la historia del arte vasco a través de todos sus principales episodios y muchos de sus mejores artistas»<sup>11</sup> desde el siglo XIX a nuestros días. Un conjunto excepcional de aproximadamente quinientas piezas de diversas tendencias da buena fe del predominio de obras de arte producidas por creadores vascos o que se vieron influidos por el arte vasco.

Los tres pilares fundamentales sobre los que se sostiene la Colección BBVA en España son la investigación, la difusión y la conservación. No podríamos hablar de coleccionismo sin mencionar la sostenibilidad de la colección; esa cuidada labor de conservación y preservación de las piezas que hace perdurar su patrimonio artístico y facilita poner al alcance de la sociedad el importante acervo que conserva el Grupo BBVA.

Esta exposición que ahora presentamos es solo una pequeña muestra del patrimonio que BBVA conserva, cuida y preserva. Un patrimonio que tiene el privilegio de ser contemplado en un entorno arquitectónico excepcional: el palacio de San Nicolás.

Raramente se puede disfrutar de un conjunto de obras artísticas en un escenario tan singular, un edificio proyectado por el arquitecto francés Eugène H. Lavallo (1818-1869) / il. 2 / El 30 de marzo de 1865 se depositaba la primera piedra; y antes de tres años, el 7 de enero de 1868, se abrió al público este palacio en el cual se instaló la oficina número 1 y sede social del Banco de Bilbao.

En el hasta entonces conocido como «solar de la Posada de San Nicolás» se erigió el edificio de nueva planta según el estilo *beaux arts*, surgido en Francia a mediados del siglo XIX, lo que refleja el espíritu contemporáneo y cosmopolita de esta entidad desde sus inicios. Una segunda ampliación del edificio fue proyectada por el arquitecto bilbaíno Enrique Epalza (1860-1933).



Ordura arte «San Nikolas Osatuaren orube» gisa ezagun zen hartan, oin berriko eraikina altxatu zen *beaux arts* estiloaren arabera —XIX. mendearen erdialdean Frantzian sortua—. Hala, horrek ematen du aditzera erakunde honen espiritu garaikidea eta kosmopolita bere hastapenetatik. Ondoren, Enrique Epalza (1860-1933) arkitekto bilbotarrak eraikinaren bigarren handitze-lan bat proiektatu zuen. Horretarako alboetako etxeetako batzuk eskuratu ziren, bitarteko kale bat irekita, Banco de Bilbao izena eman zitzaiona. Azkeneko erreforma Severiano de Achúcarroren (1841-1910) zuzendaritzapean burutu zen, oraingo perimetrea osatuta: San Nikolas plaza txikia, Askao kalea, Foru kalea eta Banco Bilbao kalea.

Jauregiak bi patio ditu, sabai-leiho banaz estaliak; horietako batera erakusketa-eremutik sar daiteke. Mende batez, eraikin honek Banco de Bilbaoren bulego nagusiak hartu zituen. 1957an hiriaren erdigune ekonomikoa lekuz aldatu zen; horregatik, eta mendeurrena zela eta, bulego horiek Kale Nagusia 12ra eraman ziren. Hala, Espainiako sukurtsalik zaharrena San Nikolas plazan geratu zen, eta XIX. mendeaz geroztik jardun du etenik gabe bezeroei zerbitzua ematen. 1978tik 2007ra, BBVAren Artxibo Historikoa jauregian kokatu zen; ondoren, eta gaurdaino, BBVA Fundazioaren egoitza da.

## Ukiezina

Artelan bat eskuratzeko garaian, balio jakin batzuk hartzen dira kontuan, «objektibotzat» jo ditzakegunak: artistak sorkuntza-lanean egin duen ibilbidea eta bere ibilbidea erakusketen arloan, obraren jatorria, bere balio handitzeko duen aukera, eta erakusketen historiala. Horri gaineratu behar zaio batari edo besteari buruz dagoen bibliografia. Informazio horrek aukera ematen du jakiteko eta uste sendoa izateko balio erantsi bat dakarrela.

Baina bere balio artistiko eta ekonomikoz gain, «ukiezintzat» har ditzakegun beste faktore batzuk daude, bildumazalearen erabakian esku hartzen dutenak. Eta, horrez gain, haren erabakia beste osagai baten eraginpean egongo da; zeharo subjektiboa den osagaia, alegia: obra bati ematen dion balioa, berarekin enpatizatu eta atsegin hartzen duelako. Gozamen estetikoak zerikusi handia du enpatiaren filosofiarekin (*Einführung*)<sup>12</sup>, nork bere burua proiektatzeaz eta sentimenduarekin sorkuntza artistikoan barneratzeaz hitz egiten duenarekin. Behar adina informazio izatea eta enpatizatzea bildumazalearen funtsezko ezaugarriak dira. Eta, hain zuzen ere, sarritan, enpatia-mugimendu horrek konektatzen du ikuslea behatzen ari den piezarekin.

Ondasun kulturalak helmenean jartzeak posible egiten du, bakoitzak, haietaz gozatzean, bere esperientzia zabaldu eta bere biziiza aberastu ahal izatea. Modu horretan, bildumek lagundu egiten dute gozamen estetikoan eta ezagutzaren garapenean, azken batean, pertsonen heziketan. Instituzioek gero eta gehiago hartzen dute kontuan kulturaren itzulketa ez finantzarioa, esaterako soziala edo ingurumenari lotutakoa, baina bidea geratzen da oraindik egiteko.

Walter Benjaminen hasierako aipua parafraseatuz —Bildumazalea artelana historiaren iraganbidetik ateratzen duen hura da— amaitzen dugu, denei gonbidapen bat luzatuta Espainiako BBVA Bildumako piezen multzo hau beren historian barnera dezaten.

María Luisa Barrio Maestre  
BBVAren Ondare Historiko Artistikoaren Arduraduna

12 Korrante filosofikoa, Friedrich Theodor Vischerek (1807-1887) y su hijo Robert Vischerek (1847-1933) hasia, Theodor Lippsek (1851-1914) jarraitua, eta batez ere Wilhelm Worringerek (1881-1965) garatua.

12 Corriente filosófica iniciada por Friedrich Theodor Vischer (1807-1887) y su hijo Robert Vischer (1847-1933), proseguida por Theodor Lipps (1851-1914) y desarrollada sobre todo por Wilhelm Worringer (1881-1965).

Para ello se adquirieron algunas de las casas contiguas, abriéndose una calle medianera, a la que se dio el nombre de Banco de Bilbao. La última reforma se llevó a cabo bajo la dirección de Severiano de Achúcarro (1841-1910), completando el actual perímetro desde la plazuela de San Nicolás, la calle Ascao, la calle Fueros y la calle Banco de Bilbao.

El palacio cuenta con dos patios cubiertos por sendos lucernarios, uno de los cuales puede disfrutarse desde el recinto de la exposición. Durante un siglo este edificio albergó las oficinas centrales del Banco de Bilbao. En 1957 el centro económico de la ciudad se había desplazado; por ello, y con ocasión del centenario, dichas oficinas se trasladaron a la calle Gran Vía 12, quedando en la plaza de San Nicolás la sucursal más antigua de España, que ha dado servicio al cliente ininterrumpidamente desde el siglo XIX. De 1978 hasta 2007 se ubica en el palacio el Archivo Histórico de BBVA; posteriormente, y hasta nuestros días, pasa a ser la sede de la Fundación BBVA.

## Lo intangible

A la hora de adquirir una pieza, se tienen en cuenta una serie de valores que podemos considerar «objetivos»: el itinerario como creador y la trayectoria expositiva del artista, la procedencia de la obra, su posible revalorización y el histórico de exposiciones. A esto hay que añadir la bibliografía existente sobre uno u otra. Esta información permite llegar al conocimiento y al convencimiento de que aporta un valor añadido.

Pero además de su valor artístico y económico, otros factores que podemos considerar «intangibles» intervienen en la decisión de un coleccionista, que está también fuertemente influida por un componente subjetivo: el valor que otorga a una obra porque empatiza y se complace en ella. El goce estético tiene mucho que ver con la filosofía de la empatía (*Einführung*)<sup>12</sup>, que habla de proyectarse a sí mismo y penetrar con el sentimiento en la creación artística. Poseer la información suficiente y empatizar son rasgos fundamentales del coleccionista. Y a menudo es precisamente ese movimiento de empatía lo que conecta al espectador con la pieza que contempla.

Poner los bienes culturales al alcance de todos hace posible que cada uno, al disfrutarlos, pueda ampliar su experiencia y enriquecer su vida. De este modo, las colecciones contribuyen al goce estético y al desarrollo del conocimiento, en definitiva, a la formación de las personas. Cada vez más, las instituciones tienen en consideración el retorno no financiero de la cultura, como el social o el medioambiental, pero aún queda camino por recorrer.

Parafraseando la mención a Walter Benjamin —el coleccionista es aquel que extrae la obra de arte del transcurso de la historia—, finalizamos invitando a todos a incorporar a su propia historia este conjunto de piezas de la Colección BBVA en España.

María Luisa Barrio Maestre  
Responsable de Patrimonio Histórico Artístico de BBVA

**Javier Viar**

[ In Memoriam ]

**UNA COLECCIÓN,  
UNA HISTORIA**

**BILDUMA BAT,  
HISTORIA BAT**





Orain aurkezten den erakusketa, *Analogiak. Euskal Artea BBVA Bilduman*, berrogei piezaz osatuta dago, BBVAren jabetzako euskal artearen bildumakoak, eta euskarri oso desberdinetakoak. Esaten badut bankuaren bilduma osatzen duten lan guztietatik «euskal artea» terminoa bostehun baino gehiagori aplikatu dakiekeela, ondoriozta daiteke orain erakusten dena ez dela bere bolumenaren hamabirena ere, eta multzo honen garrantzia aditzera ematen du. Euskal bilduma osoari buruz esan daiteke euskal artearen historia jarraitzeko aukera ematen duela bere gertaera nagusi guztien eta bere artista onenetako askoren bidez, halakotzat eratzten hasi zenetik. Artearen historia honek XIX. mendearen erdialdeko erromantiko kostunbristak eta akademikoak hartzen ditu, inpresionistak eta puntillistak, *fauveak*, 98ko belaunaldikoak, modernistak, novecentistak eta etnografo/kostunbristak eta sinbolistak, Gerra Zibilaren aurrekoak; baita figuratibo pospiciasarrak, abstraktu geometriko eta espresionistak, popak, neofiguratiboak, hiperrealistak, neogeometrikoak eta kontzeptualak, eta abangoardietako kide egin ez ziren figuratiboak, berezko tradizio antzeko bat sortzera iritsi zirenak, batez ere euskal ikonografia konbentzional eta erreplikakor batez baliatuta. Hautaketa honetan badira hertsiki euskalduntzat hartu ezin diren artistak, edo inola ere ez direnak, baina, era batera edo bestera, uneren batean fenomenoaren kapitularen batetik hurbil egon zirenak eta aurrera egiten eta definitzen lagundu zutenak. Bestalde, esan beharra dago presentzia horietako asko maila gorenean integratzen direla bilduman, hau da, maisulanen bidez, eta erakutsi egiten dute zenbait egile une historiko desberdinetan euskal artea bikaintasun-mailara eramateko gai izan zirela.

Ibilbide ikonografiko hau lurralde-irudi batekin irekitzen da, Euskal Herriko historiaren eraldaketa esanguratsuenak gertatu ziren paisaietako baten irudikapenarekin. Paisaia hori atariko gisa erabiltzen da, ez jarraian ikusiko dugun euskal artearen historiara, haren agertoki geografiko nagusietako batera baizik. Lehenengo irudi hau bere ibilbidearen hasieran egin zuen Pablo Gonzalvo (1827-1896) pintore aragoiarrak; ez zen euskal pintorea, baina Bilboko paisaiaren bihotzetik itsasorako itsasadarraren ibilbidearen haren irudiak gaur egun Bilbo metropolitarrak duen itxuraren ezinbesteko erreferentzia dira. Gonzalvok bi ikuspegi osagarri irudikatu zituen Kobeta menditik, bata Bilbora begira eta bestea Abrara,

La exposición *Analogías. Arte vasco en la Colección BBVA*, que ahora se presenta, está formada por cuarenta piezas, en muy diferentes soportes, de la colección de arte vasco que posee BBVA. Si digo que, entre todas las obras que forman parte de la colección del banco, el término «arte vasco» es aplicable a más de quinientas, puede concluirse que lo que ahora se muestra no es siquiera una doceava parte de su volumen, y da idea de la importancia de este conjunto. De la colección vasca global puede decirse que permite seguir la historia del arte vasco a través de todos sus principales episodios y muchos de sus mejores artistas desde que se empieza a conformar como tal. Esta historia artística abarca a románticos costumbristas y académicos de mediados del siglo XIX, impresionistas y puntillistas, *fauves*, noventayochistas, modernistas, novecentistas y etnógrafo-costumbristas y simbolistas anteriores a la Guerra Civil; también a figurativos pospiciasianos, abstractos geométricos y expresionistas, *pops*, neofigurativos, hiperrealistas, neogeométricos y conceptuales, así como a figurativos que no se adhirieron a las vanguardias y que llegaron a crear una especie de tradición propia acudiendo básicamente a una iconografía vasca convencional y persistente. Hay en esta selección artistas que estrictamente no pueden considerarse vascos, o que no lo son en absoluto, pero que, de una u otra manera, estuvieron en algún momento cerca de alguno de los diversos capítulos del fenómeno y contribuyeron a su avance y definición. Por otra parte, cabe decir que muchas de estas presencias se integran en la colección al más alto nivel, es decir, a través de obras maestras, que dan idea de la excelencia a la que algunos autores fueron capaces de llevar el arte vasco en diferentes momentos históricos.

Se abre este recorrido iconográfico con una imagen territorial, con la representación de uno de los paisajes donde se produjeron las transformaciones más significativas de la historia del País Vasco y que sirve de preámbulo, no a la historia del arte vasco que veremos a continuación, sino a uno de sus principales escenarios geográficos. Esta primera imagen la realizó en fechas tempranas de su carrera el pintor aragonés Pablo Gonzalvo (1827-1896), que no fue un pintor vasco, pero cuyas imágenes del decurso de la ría desde el corazón del paisaje bilbaíno hasta el mar son una referencia inevitable del aspecto que hoy en día ostenta el Bilbao metropolitano. Gonzalvo realizó, desde el monte Cobetas, dos vistas complementarias, una mirando hacia Bilbao y la otra hacia el Abra, con lo que recogía una extensa perspectiva de la ría y de la

horrela, itsasadarraren eta inguruko orografiaren ikuspegi zabal bat jasota. Xeheki margotuak, errealtate bat irudikatzen dute, 1857an, egin zirenean, bere azkenera eramaten zuena, irudikatutako naturak ondorengo urteetako hondamenak sufritu baitzituen: azken karlistada, Bilbo setiatu zuena 1874an, eta meatzaritzaren ustiapenaren hastapenak, siderurgiaren ezarpena eta ontzigitzaren garapena; bere irudiari azkena emango zion industrializazio-prozesu bizkor eta suntsitzailea, alegia. *Itsasadarraren bokalea Bilboko Abran* / kat. 2 / oraingo hautaketan sartzeko aukeratutako panoramika bat da, baina BBVA Bildumakoa da ere bere osagarria, *Nerbioi itsasadarraren bista* / ii. 1/. Horien aurrean, ezinbestean datorkigu gogora lurralde beraren ikuspegi topografiko zahar haiek, XVI. mendean Bilboren irudiari bidea eman ziotenak kontzertu urbano unibertsalean.

Euskal arteari dagokion erakusketa honen lehenengo irudia José Echena gipuzkoar margolariarena da, José Echenagusía (1844-1912) bere izena zuenarena, eta *Bilboko Portuaren gaueko ikuspegia*. *Labe garaiak* / kat. 1 / olio-pintura da. Bertan geldituko naiz, bere interes artistikoagatik ez ezik, oso adierazgarria delako ere orain egiten ari garen ibilbideak Bilboko itsasadarreko paisaia industrial bat jasotzea. Irudi honetan esanahi handieneko erreferentzia historiko bat dago, lurralde baten eraldaketa irudikatzen duena, baita aldi berean aldaketa sozial, ekonomiko eta politiko bat ere, esparru eta substratu gisa balio izan zuena, hain zuzen ere, arte-eskola bat sortzeko edo, gutxienez, elkarren segidan garatu ziren eta gutxi asko nazioarteko gertaera artistikoekin lotuta zeuden arte-adierazpenak ernaltzeko. Hala ere, Bilboko itsasadarrak ematen zituen irudiek, XIX. mendeko gertakarien bilakaeraz hain kezkatua zegoen arte batentzat egokiek, garaiko pintoreak azpiratu zituzten, ez bakarrik izaera sinboliko horregatik, baizik eta, hortik harago, beren pintoreskismo eta interes artistikoagatik, plastikoki iradokitze beren gaitasunagatik ere. José Echena margolari akademikoa izan zen, eta pintura kostunbrista, bibliko eta orientalista egin zuen, hil zen arte bizi izan zen bere bizilekutik, Erromatik, nazioartean arrakasta lortzera eraman zuena. Berak baino lehen, Paristik etorritako beste euskaldun batek, Eduardo Zamacoisek (1841-1871) baino ez zuen lortu nazioartean ospea, heriotza goiztiarragatik iragankorra kasu honetan, «casacones»-en pintura historizista baten bidez; Echenari ere interesatu zitzaion pintura, alegia. Merezi du aipatzea Echenak duen gaurkotasun bitxia, hain zuzen ere bere sorkuntza orientalisten bidez, arabiar bildumazaletasunaren interesak modan jarri baititu —bere kasuan eta garaiko beste artista batzuenen— nazioarteko merkatuan; beraz, bere obraren zati honek, eta berak bakarrik, berealdiko prezioak izan ditzake. Baina azpimarratu nahi nuen Bilbo metropolitarrako paisaia industrialak mende eta erdi baino gehiagoan artista askorentzat izan duen erakargarritasuna, eta, horrela, Echenaren ikuspegi zaharrak eta beste garaikide batzuek ikonografiaren arloan izango zuten potentziala aditzera eman. Gaueko argiek, uretako islek, keek, suek, txinpartek multzo fantasmagoriko lohia bezain iradokitzailea osatzen dute, gaurdaino askotan berragertu izan dena. Nahiz eta beti ez diren gaueko ikuspegiak izan, Nerbioi itsasadarraren ertzetako fabrikak eta haien tximiniak, konposizioan kai-muturren horizontal luzeekin bateratzen zirenak, egile askoren, euskaldunen zein kanpokoen, mihiseen motibo nagusia izan dira, industrializazio-prozesuak eraiki zituenetik. Lurraldearen eta bertako biztanleen beste irudi batzuen ezinbesteko atze-oihal gisa ere balio izan dute.

Anselmo Guinea (1855-1906), Echena baino hamaika urte gazteagoa, aipatzeak eragin inpresionistaren esparruetan sartzeari suposatzen du, nahiz eta bere kasuan bere atxikipen akademizista originala inoiz ahaztu gabe, beti lagun izan zuena. Echena bezala, Erromara joan zen Guinea, eta harekin harreman estua izango zuen han. Bertan bizi izan zen, ikasketak akademikoaren leku nagusia, lehenik 1875 eta 1876 bitartean eta gero 1881 eta 1887 bitartean. Bigarren aldi horretan egin zuen *Festatik bueltan* (1885) / kat. 4 /. Planteamendu akademiko



ii. 1 Pablo Gonzalvo y Pérez  
*Vista de la ría del Nervión*  
*Nerbioi itsasadarraren bista*  
1857

orografía colindante. Pintadas con minucia, representan una realidad que, en 1857, cuando fueron realizadas, abocaba a su fin, pues la naturaleza representada sufriría en los años sucesivos los estragos producidos tanto por la última guerra carlista, con el Sitio de Bilbao de 1874, como por el inicio de la explotación minera, la implantación siderúrgica y el desarrollo de la industria naval, un proceso de rauda y agresiva industrialización que acabaría con su imagen. *Desembocadura de la ría en el Abra de Bilbao* / cat. 2 / es la panorámica elegida para formar parte de la selección actual, pero también pertenece a la Colección BBVA su complementaria *Vista de la ría del Nervión* / ii. 1/. Ante ellas resulta inevitable recordar aquellas antiguas visiones topográficas del mismo territorio que en el siglo XVI abrieron paso a la imagen de Bilbao en el concierto urbano universal.

La primera imagen de esta exposición que pertenece ciertamente al arte vasco es del pintor guipuzcoano José Echena, en verdad llamado José Echenagusía (1844-1912), y corresponde a su óleo *Vista nocturna del Puerto de Bilbao. Altos hornos* / cat. 1/. Me voy a detener en él tanto por su interés artístico como porque es todo un símbolo que el recorrido que ahora emprendemos recoja un paisaje industrial de la ría de Bilbao. En esta imagen está contenida una referencia histórica de la mayor significación, que representa la transformación de un territorio, en paralelo a un cambio social, económico y político que sirvió de marco y sustrato, precisamente, al surgimiento de una escuela de arte o, por lo menos, a una eclosión de manifestaciones artísticas que se desarrollaron en continuidad y en conexión mayor o menor con los acontecimientos artísticos internacionales. Ahora bien, las imágenes que proporcionaba la ría de Bilbao, apropiadas para un arte tan preocupado por el devenir fenoménico como el decimonónico, subyugaron a los pintores de la época no solo por ese carácter simbólico, sino, más allá de él, por su pintoresquismo y su interés artístico, por su capacidad de sugestión plástica. José Echena fue un pintor académico que practicó una pintura costumbrista, bíblica y orientalista que le hizo triunfar internacionalmente desde Roma, donde vivió hasta su muerte. Antes que él, solamente otro vasco desde París, Eduardo Zamacois (1841-1871), había conseguido la fama internacional, efímera en este caso por su prematura muerte, por medio de una pintura historicista «de casacones», por la que también Echena se interesó. Merece la pena señalar la curiosa actualidad de la que disfruta Echena, precisamente a través de sus creaciones orientalistas, ya que el interés del coleccionismo árabe las ha puesto de moda —en su caso y en el de otros artistas de la época— en el mercado internacional, con lo que esa parte de su obra, y solo ella, puede adquirir precios extraordinarios.



batzuen barruan, anbizio eta kalitate handiko pintura da hau, zehatza eta preziosista, marrazketa eta konposizioarekiko interesarekin, eta anekdota xume batean oinarritua: Erroma inguruko nekazari talde bat festa batetik itzultzen da eta hasia den ekaitza baten mehatxuari aurre egiten dio. Mikel Lertxundik sakonago aztertu du Guinearen obra, eta egileak italiar nekazariak irudikatu zituen lehenengoetako bat izan zela dio, famatu egingo zuen gaia, non pertsonaia-multzo baten pinturari heltzen ausartu zen, figura isolatuekin esperimentatu ondoren. Obra honetan, konposizioa animatzen duten tipoen deskribapen zoriontsua –Javier Barónek behatutako zerbait—, aukeraketa kromatiko orekatua, bizitasun handiko bere ukituekin tonalitate orokor homogeen baten gainean, irudia aberasten duten landareen presentziak, eta giro ez oso baketsua, oso ondo jasoa, Guinearen indar piktorikoaren —inpresionismoarekiko bere interesaren aurrekoa— adibide bikain baten erakusgarriak dira. 1887an Bizkaira itzuli zenean, Adolfo Guiard (1860-1916) margolari bilbotar eta bere ikaskide izandakoarekin zuen harremanari heldu zion berririo; bera izan zen euskal pinturan inpresionismoa sartu zuena 1886an Paristik itzuli zenean; 1878tik bizi izan zen bertan. Hala, bere eraginari esker, agerraldi bat egin zuen Guineak mugimendu berrira. Harrezkero, bere tematika aldatu egin zen euskal kostunbrismoaren, zeinari ezinbesteko irudiak eta edertasun apartekoak ekarri zizkion, besteak beste itsasadarrari eta bertako biztanleei eta lanei eskainitakoak, eta Erromakoaren artean. Bere interes estetikoari dagokionez, esan daiteke bere bizitza profesionalean jasotzen bi eraginei leial eutsi ziela beti, bere koadro onenetako askotan uztartuta agertzen baitira, argitan disolbatutako zatiekin eta kolore argiekin konposizio egituratuen atzealde gisa, non nabarmendu egiten diren eguneroko bizitzako pasadizoak edo pertsonaia pintoreskoak.

Darío de Regoyos (1857-1913) izan zen euskal artearen akademizismoa eraldatu eta pintura modernoan sartu zuen hirugarren artista; eta ez bakarrik euskal artea, baita espainiarra ere, bere erreferentzia gorentzat hartua izateraino. Asturiaskoa jatorriz, Euskal Herriko hainbat lekutan bizi izan zen, ezin konta ahala aldiz margotu zuen, Bilboko emakume batekin ezkondu zen, Euskal Artisten Elkarte kide izan zen, eta euskal kultur giroan arrasto estilistiko garrantzitsua utzi zuen, eta, beraz, une hartako euskal artea aipatzean ezinbestekoa da bera aipatzea. 1879an Bruselara joan zen; han zela modernitate artistikoa ezagutu eta bertan integratu ahal izan zen hainbat talderen bidez eta Belgikako eta Frantziako abangoardiako artista ezagunekin zuen adiskidetasunari esker. Orduetik Regoyosen obra —bere bizitza pertsonala bezala, bere bizileku-aldaketa ugariekin—, bere hurbilketa abangoardistari traizio egin gabe, aldaketak izan zituen eta etapa desberdinak zeharkatu zituen. Horien artean puntillismo argi bat aipatu beharra dago, konplexua egiten duena, nahiz eta ondo identifikatzeko modukoa. BBVAk dituen piezetan, zeinetatik bakar bat hautatu den oraingo erakusketarako, bilakaera hori ikus daiteke, neurri batean behintzat. Koadrorik goiztiarrena, *Seguidillas gitanas edo Danseuses à Seville* / il. 2 / izenekoa, 1890ean datatua egon arren, Juan San Nicolásek beste batekin identifikatu du, 1883an egina eta egileak adierazitako bi izenburuak eman zizkiona. Belgikako hainbat artistarekin batera Espainian zehar egin zuen bidaia batean margotu zuten, 1882ko urritik hurrengo urtearen hasierara bitartean<sup>1</sup>, eta bertan azpimarragarria da motibo batekiko eta herri-pertsonaia batzuekiko interesa. Baina Espainia tradizionalari, bere pertsonaiei eta bizimoduak ematen dien arreta bereziki zorrotza izango da Émile Verhaeren poeta belgikarrarekin batera 1888an egingo zuen bidaia ezagun eta emankor batean. Bidaia horren emaitzak 1899an argitaratutako ziren behin betiko *España negra* izenburuarekin; liburuki horrek, Verhaerenen testuekin eta Regoyosen irudiekin, Espainiari buruzko ikuspegi kritikoa berezi bati eman zion hasiera, eta estereotipo kultural bihurtu eta berealdiko eragina izan zuen ondorengo belaunaldietan.

<sup>1</sup> Darío de Regoyosen aditu Juan San Nicolásek emandako datua.

Pero quería hacer hincapié en el atractivo que el paisaje industrial del Bilbao metropolitano ha tenido a lo largo de más de siglo y medio para muchos artistas, y así señalar el potencial iconográfico que iban a tener la vieja visión de Etxena y otras contemporáneas. Las luces nocturnas, los reflejos en el agua, los humos, los fuegos, las chispas, forman un conjunto fantasmagórico y de sórdida pero sugestiva apariencia, que ha reaparecido en numerosas ocasiones hasta nuestros días. Aunque no siempre se ha tratado de visiones nocturnas, las fábricas de las orillas de la ría del Nervión y sus chimeneas, que se concertaban en la composición con las largas horizontales de los diques, han sido el motivo principal de los lienzos de numerosos autores, tanto vascos como foráneos, desde que el proceso industrializador las levantó. También han servido como telón de fondo inevitable de otras imágenes del territorio y sus pobladores.

la contienda y que irrumpiera con una mínima originalidad. Una sola excepción contradice claramente —hay algunas otras menos evidentes— lo que acabo de escribir, pues un artista como José María Ucelay (1903-1979) había de dar en su tierra natal lo mejor de sí mismo al regresar del exilio y manifestar plenamente el gran talento que ya había dejado asomar en su juventud. Encargado por el Gobierno Vasco, que en 1936 le nombró director general de Bellas Artes, había tenido durante la guerra un importante papel en la custodia del patrimonio artístico evacuado a Francia y fue el máximo responsable de la sección vasca del Pabellón Español de la Exposición Internacional de 1937. Al terminar la guerra, y a causa de un encargo profesional, se afincó en Inglaterra, de donde pudo regresar en 1949, cuando contaba cuarenta y cinco años. Los treinta que aún le quedaban de vida le permitieron desarrollar, con sosiego y en medio del respeto, cuando no admiración, de todos los sucesivos artistas vascos —incluso perteneció en 1966 al Grupo Emen de la Escuela Vasca, el creado en Vizcaya—, una obra original y profunda que ha quedado como una de las referencias mayores del período. A su conocimiento y difusión ayudó en gran manera el estudio y exposición que le dedicó Kosme de Barañano en 1981. Preocupada por el dibujo, con influencia oriental y tendencia, a partir de un momento, a la expresión abigarrada, sofisticada y fría, la figuración de Ucelay tiene raíces complejas, pero bebió de los más importantes movimientos figurativos contemporáneos. Relacionada con la pintura metafísica, el surrealismo y el realismo mágico, se puede ver cercana también a la nueva objetividad de los pintores alemanes, es decir, a un mundo frígido, cristalizado y enigmático, envuelto por la mayor extrañeza. Cuando al iniciar estas líneas me he referido a las obras maestras de la colección vasca de BBVA, una de ellas era esta de Ucelay, presente en la selección, *Danzas suletinas* (1956) / *cat. 19 /*, pues la ambición, tanto por el tamaño como por la complejidad compositiva, y la madurez e imaginación estilísticas con que está realizada la hacen acreedora de un señalamiento verdaderamente excepcional. Aunque la temática de Ucelay se ciñera principalmente a bodegones, paisajes y retratos, cupieron también en ella motivos étnicos o costumbristas, mitológicos e históricos y alegóricos. En este caso se representa, repartido por una campiña, a un conjunto de danzarines suletinos, ejecutantes de una conocida manifestación popular de Zuberoa, territorio vasco de Iparralde, en un momento de descanso de su actuación. La visión congelada de los diversos elementos que recoge convierte este cuadro en una especie de bodegón misterioso y misceláneo de personas, animales, atuendos y objetos, en el que llaman sobre todo la atención los fantasiosos disfraces y los instrumentos musicales. En él aflora el mundo freudiano de lo siniestro, que Ernst Jentsch consideraba aquel en el que existía la «duda sobre si en verdad es animado un ser en apariencia vivo, y, a la inversa, si no puede tener alma cierta cosa inerte» —los personajes parecen muñecos autómatas—, y un *horror vacui* muy propio del estilo del autor. Debe señalarse que el abigarramiento descriptivo y la importancia del dibujo, muy influido por el decorativismo de la ilustración inglesa, aún iban a ser mayores en su pintura de años posteriores. Hay que observar también que, a pesar de la naturaleza folclórica del argumento, la mirada del artista es completamente cosmopolita, característica que Ucelay había introducido en una pintura vasca cuya iconografía se inclinaba, muy contrariamente, desde el Romanticismo, a la descripción identitaria, muy potenciada por el interés hacia lo vernacular propio del novecentismo.

Si seguimos el orden cronológico de los autores convocados en esta selección, encontramos a la pintora irunesa Menchu Gal (1919-2008), alumna temprana en su ciudad natal de Gaspar Montes Iturrioz, y que después estudió con Amédée Ozenfant en París. Exiliada en Francia durante la Guerra Civil, se instaló en Madrid en 1943 y allí se vinculó a pintores de la Escuela de Madrid, nacida de la efímera Segunda Escuela de Vallecas, y siguió en parte pautas cercanas a las del pintor *fauve* Benjamín Palencia. Este encabezó durante un tiempo la renovación artística

Kosme de Barañanok 1981ean eskaini zion ikerketak eta erakusketak asko lagundu zuen haren aintzatespenean eta hedapenean. Marrazkiaz kezkatuta, ekialdeko eraginarekin eta, une jakin batetik aurrera, adierazpen nabar, sofistikatu eta hotz baterako joerarekin, Ucelayren figurazioak sustrai konplexuak ditu; mugimendu figuratibo garaikide garrantzitsuenetatik edan zuen, hala ere. Pintura metafisikoarekin, surrealismoarekin eta errealismo magikoarekin lotua, pintore alemanen Objektibotasun Berritik hurbil ere ikus daiteke, hau da, mundu hotz, kristalizatu eta enigmatiko batetik hurbil, arrotzasunik handienaz inguratutik. Lerro hauen hasieran BBVAren euskal bildumako maisulanak aipatu ditudanean, horietako bat hautaketan ageri den Ucelayren *Zuberoako dantzak* (1956) / *kat. 19 / zen*, egina dagoen anbizioak, bai tamainagatik bai konposizioaren konplexutasunagatik, eta horretarako baliatutako heldutasun eta irudimen estilistikoak apartekoa zeharo bilakatzen baitute. Ucelayren gaia batez ere natura hilak, paisaiak eta erretratuak ziren arren, motibo etniko edo kostunbristak, mitologikoak, historikoak eta alegorikoak ere bildu zituzten bertan. Kasu honetan, Zuberoako dantzari talde bat irudikatzen da, Zuberoako herri-ospakizun ezagun bateko partaideak landazabal batean banatuta, beren emanaldiaren atsedenaldi batean. Jasotzen dituen elementu guztien ikusmen izoztuak natura hil misteriotsu eta nahasi bihurtzen du koadro hau, pertsona, animalia, jantzi eta objektuena, eta batez ere fantasiako mozorroek eta musika-tresnek ematen dute atentzia. Bertan siniestroaren mundu freudiarra azaleratzen da, Ernest Jentschen ustetan non existitzen den «zalantza itxuraz bizirik dagoen izaki bat benetan biziduna ote den, eta, alderantziz, halako gauza inerte batek ezin ote dezakeen arimarik eduki» —pertsonaiek panpina automatik ematen dute—, baita egilearen estiloaren hain berezkoa den *horror vacui* bat ere. Aipatzekoa da marrazkiaren nabardura deskriptiboa eta garrantzia, ilustrazio ingelesaren dekoratibismoak nabarmenki eraginda, oraindik handiagoa izango zela ondorengo urteetako pinturan. Bestetik, ohartarazi beharra dago, argumentuaren izaera folklorikoa gorabehera, artistaren begirada guztiz kosmopolita dela; ezaugarri hori euskal pinturan barneratu zuen Ucelayk, kontuan hartuta pintura horren ikonografiak, aitzitik, identitatea deskribatzeko joera erakutsi zuela Erromantizismotik, eta novecentismoaren sorterriarekiko berezko interesak zeharo indartu zuela.

Hautaketa honetan bildutako egileen ordena kronologikoari jarraituz gero, Menchu Gal (1919-2008) margolari irundarra aurkituko dugu. Bere herrian Gaspar Montes Iturriozen aurrenetako ikaslea izan zen bera, eta ondoren Amédée Ozenfantekin ikasi zuen Parisen. Gerra Zibilean Frantzian erbesteratua, Madrilén kokatu zen 1943an, eta bertan Madrilgo Eskolako pintoreei lotu zitzaion; eskola Vallecasko Bigarren Eskola iragankorretik sortu zen, eta neurri batean Benjamín Palencia *fauve* pintorearen ereduari jarraitu zien. Gerraosteko Espainiako berrikuntza artistikoaren buru izan zen hura aldi batez, batez ere 1951n I. Bienal Hispanoamerikarra irabazi ondoren, baina bere proposamenak laster gaingitu zituen espresionismo abstraktuaren eta abstrakzio geometrikoaren agerraldiak. Galek erretratua, paisaia eta natura hila garatu zituen nagusiki, eta oraingo erakusketan portuko paisaia batek ordezkatzeko du artista; *Donostiako portua* (1970 inguru) / *kat. 18 / zen*, non deskribapenerako duen erraztasun hori eta espresionismorako bere joera otzandu hori aditzera ematen dituen.

Gerra zibilaren ostean ustekabeko kemenez jaiotako euskal abangoardiaz esan daiteke bere asmoetan eta emaitzetan erabat abstraktua izan zela. Dena den, zehaztu beharra dago salbuespen nabarmenak egon zirela eta, gainera, abangoardia hori agertu zenean arte unibertsala menderatzen zuten ereduengandik inguruan egindako adierazpena dela. Fenomeno honen hasierako bi irudi nagusiak eskultoreak izan ziren, Jorge Oteiza (1908-2003) eta Eduardo Chillida (1924-2002). Lehena 1935ean Latinoamerikara joan eta 1948an itzuli zen, Chillidak bere lehen eskulturak egin zituen urtean. Chillidaren nazioarteko arrakasta

español de la posguerra, sobre todo después de ganar la I Bienal Hispanoamericana en 1951, pero pronto vería desbordadas sus propuestas por la aparición del expresionismo abstracto y la abstracción geométrica. Gal desarrolló principalmente el retrato, el paisaje y el bodegón, y su representación en la muestra presente está formada por un paisaje portuario, *Puerto de San Sebastián* (h. 1970) / *cat. 18 / zen*, en el que esgrime su soltura descriptiva y su domesticada tendencia al expresionismo.

De la vanguardia vasca que nació con ímpetu inesperado en la posguerra civil puede decirse que fue preponderantemente abstracta en sus intenciones y en sus resultados, aunque sea esta una afirmación que deba matizarse, a la que se puedan objetar importantes excepciones y que además fue hecha sobre modelos que dominaban el arte universal cuando esta vanguardia apareció. Las dos figuras capitales en el arranque de este fenómeno fueron escultores, Jorge Oteiza (1908-2003) y Eduardo Chillida (1924-2002). El primero había marchado a Latinoamérica en 1935 y regresado en 1948, el año en que Chillida fechaba sus primeras esculturas. El temprano éxito internacional de Chillida, que fue pronto reconocido y premiado como uno de los artistas más importantes de su generación, colocó al arte vasco en una notable posición internacional. Esto también alcanzó en parte a Oteiza, que llegó a recibir algunos importantes premios internacionales en los años cincuenta. Chillida inició su abstracción en hierro —el material que más claramente identificaría su obra— en 1951. Esta obra, iniciada bajo la influencia del pintor madrileño Pablo Palazuelo (1915-2007) y su abstracción geométrica, derivó pronto en una contraria obra gestual informalista, caligráfica, que Chillida —hijo de la angustia al igual que los expresionistas que le sucedieron y testigo de dos trágicas posguerras— supo interpretar en el espacio mediante una compleja y muy dramática forja. Tal relevancia de la materia impulsó a Gaston Bachelard, en sus reveladoras reflexiones sobre el escultor tituladas «El cosmos del hierro», a decir lo siguiente: «Si nos sintiéramos tentados a designar estas obras bajo el título general de *forja abstracta*, inmediatamente perderíamos el beneficio de la sorprendente estimulación que dan a la imaginación material. Significaría juzgar únicamente por las formas unas obras hechas en honor a la materia. Aquí el herrero nos invita a sus largos ensueños sobre la imagen material del hierro». De hecho, la evolución formal que sufrió Chillida fue guiada por el empleo de las diferentes materias que utilizó, con resultados a veces morfológicamente antagónicos. Después del hierro y el acero apareció la madera labrada, como en las antiguas artesanías, y el granito. Luego, episódicamente, el mármol, el alabastro y el hormigón, la tierra chamota —correspondiente a las llamadas *lurras*, que incorporaban impresiones e implantación de surcos y grietas, y a veces grafismos de óxido de cobre—, la porcelana, el fieltro o el papel. Este último sería usado, lógicamente, como soporte de dibujos y grabados, *collages* y recortes colgantes, pero con más sensibilidad hacia sus recursos y diversidad materiales de lo habitual, lo que se manifestaría sobre todo en los *collages*, manipulados con especial capacidad creativa y atención a su especificidad —cortes o quemado de los bordes—, y en algunos grabados de huella sin tinta. El caso es que así obtuvo una auténtica polifonía de formas, emanadas de las propias posibilidades íntimas de la resistencia, presencia plástica, textura y color de los materiales. Pero puede decirse que a partir de un determinado momento estos se intercambiaron, y el mundo formal que había tenido su origen en alguno de ellos se trasladó a los demás, independientemente de su consistencia. Paralelamente, ese acervo formal, lejos de la enigmática búsqueda que había caracterizado sus experiencias tempranas y maduras más directas, se hizo más previsible. Las formas se hicieron menos agresivas y lo que había al inicio de caligráfico y espontáneo se convirtió en un desarrollo de signos de diseño controlado.



goiztiarrak, laster bere belaunaldiko artistarik garrantzitsuenetakotzat aintzatetsia eta saritua izan zenak, leku nabarmen batean jarri zuen euskal artea nazioartean. Oteizak ere neurri batean lortu zuen arrakasta hori, 1950eko hamarkadan nazioarteko sari garrantzitsu batzuk jaso baitzituen. Chillidak burdinan —bere obra identifikatuko zuen materiala nagusia— lantzen hasi zen abstrakzioa, 1951n. Pablo Palazuelo margolari madrildarraren (1915-2007) eta abstrakzio geometrikoaren eraginpean hasitako obra hori, aitzitik, obra gestual informalista, kaligrafiko batera bideratu zen laster. Chillidak —estuaren seme, bere ondorengo espresionistak bezala, eta bi gerra osteko tragikoren lekuko— obra hori espazioan interpretatzen jakin zuen forja konplexu eta oso dramatiko baten bidez. Hala, materiaren hainbesteko garrantzi horrek bultzatu zuen Gaston Bachelard, eskultoreari buruzko «Burdinaren kosmosa» izeneko bere hausnarketa argigarrietan, honako hau esatera: «Obra hauek *forja abstraktua* izenburu orokorraren pean izendatzeko tentazioa izango bagenu, berehala galduko genuke irudimen materialari ematen dioten estimulazio harrigarriaren onura. Materiaren ohoretan egindako obrak formen arabera bakarrik epaitzea esan nahiko luke. Hemen, burdinaren irudi materialaren gainean dituen amets luzeetara gonbidatzen gaitu errementariak». Izan ere, Chillidak izan zuen bilakaera formala baliatu zituen materiaren erabilerak gidatu zuen, batzuetan morfologikoki antagonikoak ziren emaitzekin. Burdinaren eta altzairuaren ondoren egur landua agertu zen, artisau-lan zaharretan bezala, baita granitoa ere. Gero, tarteka, marmola, alabastroa eta hormigoia, txamota lurra —*lurra* deitutakoetan, inpresioak eta ildoetan eta pitzaduren ezarpena barne hartzen zituzten horietan, baita kobre-oxidozko grafismoak ere—, portzelana, feltroa edo papera. Azken hau, jakina, marrazki eta grabatuen euskarri, *collage* eta ebakin eseki gisa erabiliko ziren, baina bere baliabideekiko eta dibertsitate materialekiko sentsibilitate handiagoarekin, eta hori batez ere *collage*etan agertuko zen, gaitasun sortzaile bereziarekin manipulaturik eta haien espezifikotasunari arreta jarrita —ebakiak eta ertzak erreta— baita tintarik gabeko aztarna-grabatu batzuetan ere. Hala, formen benetako polifonia lortu zuen, materialen erresistentziaren, presentzia plastikoaren, testuraren eta kolorearen berezko aukeretatik eratorria. Baina esan daiteke une jakin batetik aurrera trukatu egin zirela, eta haietakoren batean jatorria izan zuen mundu formala besteengana lekualdatu zela, haien trinkotasuna alde batera utzita. Aldi berean, ondare formal hori, bere esperientzia goiztiar eta heldu zuzenenak ezaugarri zituen bilaketa enigmatikotik urrun, aurreikusgarriago bilakatu zen. Formak ez ziren hain oldarkor ageriko eta hasiera batean kaligrafiko eta espontaneo zena diseinu kontrolatuko zeinuen garapen bilakatu zen.

BBVAren bilduman Eduardo Chillidaren lanik nabarmenena, zalantzarik gabe, *Burdinaren gorazarre III* (1991) / ii. 5 / burdinazko eskultura da, dimentsio publikokoa, artistaren eboluzio handiko une batekoa, osagaiak oso haztatuak eta esperientzia luze baten kontrolpean dituenak. Piezak enbor bat du, lurrean hondoratua eta altueran bloke ortogonal baten bidez ebatzia, nondik irteten diren lau forma bihurritu, kako kamutsen antzekoak, eskultorearen estiloan antzemangarriak. Oinarrian, lurretik hurbilen dagoen aldean, paralelepipedo baten formako totxoa kosk eginda agertzen da, eta forma galtzen du materia gordinaren trinkotasuna adierazteko. Alde informalaren eta ezarpen formal argiko beste batzuen arteko hurbiltasuneko elkarrizketa hori, Michelangeloren *non finito*an eta pentasamendu platonikoan du jatorria, eta maiz erabili zuen Chillidak materiari bere adierazkortasuna emateko. Enborra bera, zuhaitz eskematiko baten antzera, 1951n agertu zen bere obran, eskultorearen burdinazko lehen abstrakzioan. Plataforma altuak, abiatzen diren oinarria zabaltzean, lau garroen presentzia eskatzen du halaberharrez, ezohiko baretasunez sortzen direlarik. Multzo honek aukera ematen du interbentzioak argi eta garbi irakurtzeko eta Chillidaren burdinaren




il. 5 Eduardo Chillida  
*Elogio del hierro III*  
*Burdinaren gorazarre III*  
1991

En la Colección BBVA la pieza de Eduardo Chillida más destacada es sin duda la escultura en hierro de dimensión pública titulada precisamente *Elogio del hierro III* (1991) / ii. 5 /, una obra que pertenece a un momento ya muy evolucionado del artista y cuyos elementos constitutivos se ven muy ponderados y bajo el control de una larga experiencia. La pieza consta principalmente de un tronco que se hunde en el suelo y se resuelve en la altura en un bloque ortogonal del que salen cuatro formas torsionadas como garfios romos, reconocibles en el estilo del escultor. Ya en la base, en la parte más cercana a la tierra, el lingote paralelepédico aparece mordido y pierde su forma para expresar su consistencia de materia bruta. Este diálogo en contigüidad entre zonas informales y otras con una clara implantación formal, que tiene su origen en el *non finito* de Miguel Ángel y el pensamiento platónico, fue muy usado por Chillida y confiere a la materia su expresividad. El propio tronco, como el de un árbol esquemático, apareció en su obra ya en 1951, en la primera abstracción de hierro del escultor. La plataforma alta, al ampliar la base de donde arrancan, ordena la presencia de los cuatro tentáculos, que surgen con inusual serenidad. Este conjunto permite una lectura clara de las diferentes intervenciones y considerar los hallazgos más genuinos del hierro de Chillida no ya como elementos de expresividad subjetiva y desgarrada —lo fueron inicialmente—, sino como signos elaborados con significación más objetiva y culturalmente comunicable. En la selección actual se han incluido dos obras en papel, dos grabados de entre los que integran la colección, una buena representación de la importante obra gráfica del autor. Son los grabados al aguafuerte y aguafuerte titulados *Aundi II* (1970) / cat. 21 / y *Euzkadi VII* (1976) / cat. 22 /, de diseño muy diferente, si bien ambos de una época madura. El primero, protagonizado por un grafismo continuo, encadenado, que sirve de puente entre dos bloques laterales, recuerda la continuidad de los rasgos caligráficos gestuales, vinculados al informalismo, con que el escultor había experimentado durante un tiempo a partir de 1956, aunque en *Aundi II* ese recorrido, al encadenar dos formas consolidadas, ha ganado en estabilidad estructural. En el caso de *Euzkadi VII* aparece otra de sus constantes expresivas, la del bloque de elemental forma prismática o rectangular que empieza a sufrir por uno de sus extremos un proceso de diversificación y a delatar una circunstancia existencial dominada por la angustia.



il. 6 Jorge Oteiza  
*Caja metafísica por conjunción de dos triedros. Homenaje a Leonardo / Utsgoikoa*  
*Kutxa metafisikoa bi triedro batuz.*  
*Leonardoren omenez / Utsgoikoa*  
 1965-1974  
 CRJO 91.18.000



il. 7 Néstor Basterretxea  
*Aker Beltz*  
 1972

La representación de Jorge Oteiza en la Colección BBVA está formada por cinco esculturas, tres figurativas y dos geométricas. Para esta muestra se ha elegido una de las primeras, cuyo título es *Fraille franciscano* (1952) / cat. 20 /. Tema y fecha la vinculan absolutamente a los trabajos que el escultor realizó en torno a la construcción de la basílica de Aránzazu, en Oñate (Guipúzcoa), de los que constituye un temprano testimonio. Es bien sabido que en 1950 los franciscanos de ese lugar convocaron un concurso para la construcción de una nueva basílica, con un programa decorativo que incluía pinturas, esculturas, relieves y vidrieras, y que las esculturas le fueron encargadas a Oteiza y las puertas a Chillida. El carácter religioso del encargo determinó en gran parte los resultados oteizianos, tanto los estrictamente dedicados a la basílica —que concluyeron con el friso de apóstoles y más tarde la Piedad, ambas obras para la fachada— como otros coetáneos, no solo por su morfología, sino también por la cualidad espiritual que los generaba. De hecho, en ese período llevó a cabo otras colaboraciones religiosas. La escultura figurativa de Oteiza tenía sus raíces en la de Picasso realizada en Boisgeloup y en la de Henry Moore, y en general en la escultura primitiva, aunque siempre abordó su obra con una clara propensión geometrizar, que tendía a simplificar y aristar las formas. Esto le ayudó a derivar su trabajo hacia la abstracción constructiva. Una de sus preocupaciones fundamentales consistió en el vaciamiento de la escultura, un vaciamiento físico que tenía justificaciones metafísicas y existenciales, y cuyos conceptos alcanzaron también a medular la obra geométrica, que en esta colección tiene como ejemplo *Caja metafísica por conjunción de dos triedros. Homenaje a Leonardo / Utsgoikoa* (1965-1974) / il. 6 /. *Fraille franciscano* es una de las primeras muestras de este proceso, con sus torsiones y sus vaciamentos, y aunque fuese desestimada en la concepción iconográfica final de la basílica, no puede esconder su importancia en aquel relevante ciclo. Chillida, por su parte, realizó unas puertas con bajorrelieves abstractos de naturaleza geométrica, fechadas en 1954, que determinaron una gran influencia en el arte vasco subsiguiente, entre otros episodios en el cambio hacia la expresión geométrica del propio Oteiza, que se produciría entre 1956 y 1957, y que le haría merecedor del premio de escultura de la IV Bienal de São Paulo en 1957. Pero para entonces, como hemos visto, Oteiza ya había realizado una importante obra figurativa, que incluía sus trabajos para Aránzazu, los colaterales hasta 1956 y los anteriores, y que fue su primera aportación a la vanguardia vasca. Entre estos trabajos encontramos la segunda escultura figurativa de esta colección, *Arrantzale*, fechada en 1949; hecha de cerámica vidriada con policromía, constituye un buen ejemplo de la obra primera que Oteiza, cuya profesión era la de ceramista, ejecutó nada más regresar de Argentina.

Un tercer personaje iba a incorporarse pronto a esta vanguardia, Néstor Basterretxea (1924-2014), que se había exiliado con su familia en Argentina y regresó en 1952, y a instancias de Oteiza también participó, aunque abruptamente, en el proyecto de Aránzazu. Basterretxea hacía una pintura figurativa pospicassiana, que en 1956 evolucionó hacia la abstracción geométrica y desde 1958 le condujo a la escultura abstracta según modelos de Chillida, lo que consolidó la idea de un arte vasco primordialmente escultórico. Aunque no figure en la actual selección, BBVA posee una escultura de Basterretxea denominada *Aker Beltz* (1972) / il. 7 /, que es versión de una de las dieciocho maderas de su conjunto escultórico *Serie cosmogónica vasca*, obra muy divulgada del autor. Esta serie trataba de recoger —exhibiendo una gran diversidad formal, gracias a la capacidad para el diseño de que disfrutó el artista— la imagen de un conjunto de genios, númenes y otros seres misteriosos y legendarios, además de ceremonias, objetos y fenómenos naturales pertenecientes a la mitología vasca. El *Aker Beltz* era la figura central de los *akelarres*, a la que adoraban las brujas.

La aparición de otro grupo más joven de artistas, entre los que predominaban los pintores, debió haber cambiado la percepción de una prioridad de la escultura. Sin embargo, fue también muy considerable la presencia de los escultores, en concreto Remigio Mendiburu (1931-1990) y



aurkikuntzarik jatorrenak aintzat hartzeko, ez soilik adierazkortasun subjektibo eta latzeko elementutzat, hasiera batean bezala —horrela izan ziren hasieran—, esanahi objektiboagoa eta kulturalki komunikagarriagoa duten zeinu gisa baizik. Oraingo hautaketan paperean egindako bi obra sartu dira, bilduma osatzen dutenen arteko bi grabatu, eta egilearen lan grafiko garrantzitsuen erakusgarri on bat dira. Urtintaz eta akuafortez egindako grabatuak dira, *Aundi II* (1970) / kat. 21 / eta *Euzkadi VII* (1976) / kat. 22 /, diseinu oso desberdinekoak, biak helduarokoak izan arren. Lehenengoak grafismo jarraitu, kateatu bat da nagusi, alboko bi blokeren arteko zubi gisa balio duena, eta informalismoari lotutako keinuzko ezaugarri kaligrafikoen jarraitutasuna gogorarazten du, eskultoreak 1956tik aurrera denbora batez esperimentatu zueneko, nahiz eta *Aundi III*n ibilbide horrek, finkatutako bi forma kateatzean, egiturazko egonkortasunean irabazi duen. *Euzkadi VII*ren kasuan, bere beste konstante espresibo bat agertzen da, forma prismatiko edo angeluzuzeneko blokearena, mutur batetik dibertsifikazio-prozesu bat jasaten hasi eta estuasuna nagusi den zirkunstantzia existentzial bat salatzen duena.

BBVA Bilduman Jorge Oteiza bost eskulturak ordezkatzeko dute, hiru figuratibok eta bi geometrikok. Erakusketa honetarako aurrenetako bat hautatu da, *Fraide frantziskotarra* (1952) / kat. 20 / izenburua duena. Gaia eta data erabat lotuta daude eskultoreak Oñatiko (Gipuzkoa) Arantzazuko basilikaren eraikuntzaren inguruan egin zituen lanekin, eta haien testigantza goiztiar bat da. Jakina da 1950ean leku horretako frantziskotarrek basilika berri bat eraikitzeke lehiaketa bat antolatuz zutela, pinturak, eskulturak, erliebeak eta beirateak barne hartzen zituen dekorazio-programa batekin, eta eskulturak Oteizari eta ateak Chillidari enkargatu zitzaizkiola. Enkarguaren izaera erlijiosoak eragina izan zuen, neurri handi batean, Oteizaren lanaren emaitzetan, bai basilikarako zehazki egindakoetan —apostoluen frisoarekin eta geroago Pietatearekin amaituak, biak fatxadarako obrak— bai beste garaikide batzuetan, beren morfologiagatik ez ezik, darien ezaugarri espiritualagatik ere. Izan ere, garai horretan beste kolaborazio erlijioso batzuk eraman zituen aurrera. Oteizaren eskultura figuratiboa Picassok Boisgeloupen egindakoan eta Henry Mooreren eskulturan zegoen sustraitua eta, oro har, eskultura primitiboan, beti geometriarako joera argiarekin heldu zion arren bere obrari, formak sinplifikatzeko eta ertzatzeko joera erakutsiz. Horrek bere lana abstrakzio konstruktibora bideratzen lagundu zion. Bere kezka nagusietako bat eskultura hustea izan zen, hustuketa fisikoa, justifikazio metafisiko eta existentzialak zituena, eta bere kontzeptuek obra geometrikoa ere muinera eraman zutena, bilduma honetan bi triedroren elkarketa bidezko *Kutxa metafisikoa bi triedro batuz. Leonardoren omenez / Utsgoikoa* (1965-1974) / ii. 6 / obra izanik horren erakusgarri. *Fraide frantziskotarra* prozesu horren lehen adierazleetako bat da, bere bihurtzeekin eta hustuketekin, eta basilikaren azken kontzeptzio ikonografikoan atzera bota bazen ere, nabarmena da ziklo garrantzitsu hartan izan zuen garrantzia. Chillidak, bere aldetik, 1954ko data duten izaera geometrikoko baxuerliebe abstraktuak erabili zituen ate batzuk egiteko. Ate horiek eragin handia izan zuten ondorengo euskal artean, besteak beste Oteizaren beraren adierazpen geometrikorako aldaketan. Aldaketa hori 1956 eta 1957 artean gertatu zen, eta 1957an São Pauloko IV. Bienaleko eskultura-sariaren merezidun egin zuen. Baina ordurako, ikusi dugunez, Oteizak egin zuen obra figuratibo garrantzitsu bat, Arantzazurako bere lanak, 1956ra arteko parekideak eta aurrekoak, eta, izan ere, haiek izan ziren bere aurreneko ekarpena euskal abangoardiara. Lan horien artean bilduma honetako bigarren eskultura figuratiboa dago, *Arrantzale*, 1949ko data duena; zeramika beiratuaz egin dago polikromiarekin, eta lanbidez zeramikaria zen Oteizaren hasierako obraren adibide on bat da, Argentinatik etorri berri egina.

Vicente Larrea (1934), con lo que no llegó a conseguirse una idea más centrada del fenómeno. Los pintores, sin embargo, serían numerosos y mayoritariamente trabajaron dentro de la abstracción expresionista o el informalismo, particularmente en Guipúzcoa. Por lugar de origen y orden cronológico, son dignos de citarse en este conjunto los guipuzcoanos Gonzalo Chillida, hermano más joven del escultor, Amable Arias (1927-1984), José Antonio Sistiaga, Bonifacio Alfonso, Rafael R. Balerdi (1934-1992), y José Luis Zumeta; el alavés Juan Mieg (1938) y el vizcaíno Gabriel Ramos Uranga (1939-1995).

Cuatro de los pintores citados tienen una excelente representación en la Colección BBVA, incluso en la selección. Gonzalo Chillida (1926-2008) es una figura que cronológicamente sirve de puente entre su hermano y la siguiente generación, y su pintura ocupa un lugar que no tiene fácil definición estética, aunque su calidad y hondura la hayan señalado con admiración entre la de sus contemporáneos. Empezó realizando bodegones y paisajes de gran belleza, en los que podía detectarse la pureza geométrica de los primitivos italianos; después de algunas experiencias más cercanas a Palazuelo y a su hermano Eduardo, abordó la que sería su pintura más característica, de manchas imprecisas y complejas transparencias acuosas, entre las que aparecen los vestigios arenosos formados en las fronteras entre el mar y la playa, que constituyen un mundo de infinitas variaciones formales y establecen unos límites esenciales cuyo significado va más allá de los meros intereses descriptivos de la orilla. Como si, a través de sus misteriosas huellas, tratara de convertir este encuentro en un cosmos de materia que representara el ser y su condición limitrofe. Sus paisajes pierden el carácter convencional y hacen que desaparezca el horizonte, de modo que una perspectiva caballera permite contemplar, como una visión absoluta, la fusión instantánea de las dos realidades y la transformación de la materia, su variable naturaleza en el tiempo. Antonio Saura describiría sintéticamente esta pintura como «un paisaje marítimo transformado en escenario mental». Gonzalo Chillida está presente en esta exposición con cuatro piezas, dos litografías y dos óleos. Las dos litografías pertenecen al libro *El nuevo mar*, de 1969, que además de sus trabajos incorporaba textos de Juan Ramón Jiménez. Los títulos de ambas son significativos de la ambición expresiva del paisajismo abstracto del autor, de sus intenciones metafísicas: *Gran paraíso de acumulada libertad interna* / cat. 23 / y *Tú eres sólo el más solo de lo todo* / cat. 24 /. En los dos casos la visión de los regueros del agua está descrita con detalle y su consistencia es inequívoca. Los óleos, algo más tardíos, son más abstractos, de tres fechas diferentes y de distinto grado de precisión, aunque ambos presenten los caracteres que he atribuido a toda esta obra. *Arenas/Sands* (1978) / cat. 35 / está pintado en colores oscuros, sombríos o nocturnos, lo que acrecienta el misterio de sus recorridos y manchas; *Marina*, de 1991 / cat. 38 /, describe con claridad cromática y precisión el fenómeno que trata de recoger.

José Antonio Sistiaga (1932) fue sin duda el más radical de los informalistas guipuzcoanos y el que se ha mostrado más fiel a los postulados del informalismo gestual —con los que Eduardo Chillida ya había experimentado en la década anterior y en cuya ejecución Balerdi fue un verdadero maestro—, que ha desarrollado durante toda su carrera de manera extrema. Siguiendo las pautas de la velocidad de ejecución, del gesto caligráfico irracional y espontáneo, de la mancha aleatoria, y utilizando diversas herramientas de transmisión del color al papel o al lienzo para obtener las improntas deseadas —algo que inició en 1959—, llegó también a desarrollar intervenciones cinematográficas directas sobre celuloide sin emulsionar, con lo que logró películas experimentales de resultados singulares y reconocidos. Se aprecia bien en el óleo sobre lienzo titulado *Paisaje vasco actual* (1971) / il. 8 /. «La celeridad como emisión de la genuinidad (mancha cromática = mancha psíquica) es su única preocupación y hasta su único credo estético», escribe del pintor Santiago Amón. Se trata de sacar a la luz un psicograma que dé a conocer el comportamiento del inconsciente.

Hirugarren irudi bat laster sartuko zen abangoardia horretan; Nestor Basterretxea (1924-2014), familiarekin Argentinan erbesteratu eta 1952an itzuli zena, eta Oteizak eskatuta, Arantzazuko proiektuan ere parte hartu zuena, nahiz eta jarraitasunik gabe. Basterretxeak pintura figuratibo pospiciasarra egiten zuen, 1956an abstrakzio geometrikorantz eboluzionatu zuena, eta 1958az geroztik eskultura abstraktura bideratu zuen Chillidaren ereduen arabera; horrek, hain zuzen, sendotu zuen euskal artea nagusiki eskulturan oinarritzen zenaren ideia. Oraingo hautaketan agertzen ez bada ere, BBVAk Basterretxearen eskultura bat du, *Aker Beltz* (1972) / *ii.7 /* izenekoa, egilearen obra oso zabaldua den *Euskal sail kosmogonikoa* bere eskultura-multzoaren hemezortzi zuretako baten bertsioa. Sail horrek, aniztasun formal handia erakutsiz —artistak diseinurako zuen gaitasunari esker—, bilketa bat egitea zuen xede; euskal mitologiako jeinu, numen eta beste izaki misteriosu eta legendario batzuen irudia, baita zeremoniak, objektuak eta naturako fenomenoak ere. Aker Beltza akelarretako irudi nagusia zen, eta gurtu egiten zuten sorginek.

Beste artista talde gazteago baten agerraldiak, margolariak gehienak, eskulturaren lehen tasun baten pertzepzioa aldatu bide zuen. Hala ere, eskultoreen presentzia handia izan zen, zehazki, Remigio Mendibururena (1931-1990) eta Vicente Larrearena (1934) eta horregatik ez zen lortu fenomenoaren inguruko ideia zentratuago bat. Margolariak, ordea, ugariak izango ziren, eta gehienbat abstrakzio espresionistaren edo informalismoaren barruan egin zuten lan, bereziki Gipuzkoan. Jatorriaren eta ordena kronologikoaren arabera, multzo honetan aipatzekoak dira Gonzalo Chillida, eskultorearen anaia gazteena, Amable Arias (1927-1984), José Antonio Sistiaga, Bonifacio Alfonso, Rafael R. Balerdi (1934-1992), José Luis Zumeta; Juan Mieg arabarra (1939-1995) eta Gabriel Ramos Uranga bizkaitarra (1939-1995).

Aipatutako margolarietatik lau bikain ordezkatuta daude BBVA Bilduman, baita hautaketan ere. Gonzalo Chillida (1926-2008) bere anaiaren eta hurrengo belaunaldiaren arteko zubia da kronologikoki, eta bere pinturak ez du definizio estetikoki errazik, nahiz eta bere kalitateak eta sakontasunak miresmenez hartu diren bere garaikideen pinturaren artean. Natura hilak eta edertasun handiko paisaiak egiten hasi zen, non italiar primitiboaren araztasun geometrikoa antzeman daitekeen; Palazuelorengandik eta bere anaia Eduardorengandik hurbilago zeuden esperientzia batzuen ondoren, bere pinturak bereizgarriena izango zena jorratu zuen, orban zehaztugabeak eta uretako gardentasun konplexuak jasotzen dituen; horietan artean, itsasoaren eta hondartzaren arteko mugetan eratutako hondar-aztarnak agertzen dira, aldaera formal mugagabeen mundu bat eratu eta funtsezko mugak ezartzen dituztenak, itsasertzaren interes deskribatzaile soiletik harantz doan esanahi batekin. Bere arrasto misteriosuen bidez, elkarraldi hori eta mugakide izate hori irudikatuko lukeen materiazko kosmos bihurtzen saiatuko balitz bezala. Bere paisaiak izaera konbentzionala galtzen dute eta horizontea desagertzea eragiten dute; horrela, Cavaliere perspektiba batek, ikuspegi absolutu gisa, bi errealitateen bat-bateko fusioa eta materiaren eraldaketa, bere izaera aldagarria denboran zehar, ikusteko aukera ematen du. Antonio Saurak labur deskribatu zuen pintura hori: «Itsas paisaia bat, eszenatoki mental bihurtua». Gonzalo Chillida lau piezarekin, bi litografiarekin eta bi olio-pinturarekin dago erakusketan honetan. Bi litografiak *El nuevo mar* (1969) liburukoak dira, bere lanez gain, Juan Ramón Jiménez-en testuak biltzen zituenekoak. Bien izenburuek, *Barne askatasun metatuko paradisu handia* / *kat. 23 /* eta *Osotasuneko bakarrena zara bakarrik* / *kat. 24 /*, egilearen paisajismo abstraktuaren nahi adierazkorra, bere asmo metafisikoak aditzera ematen dituzte. Bi kasuetan, ur-errekastoaren ikuspegi xehetasunez deskribatuta dago, eta zalantzarik gabekoa da haien sendotasuna. Olio-pinturak, beranduago



il. 8 José Antonio Sistiaga  
*Paisaje vasco actual* Oraingo euskal paisaia  
1971



il. 9 Bonifacio Alfonso  
*Bodegón con pájaro* Natura hila txoriarekin  
1973

Por su parte, Bonifacio Alfonso (1933-2011) está representado aquí por una pieza muy significativa de la primera década de su estancia en Cuenca, que fue importante en la consolidación de su estilo y en su evolución. En 1968, animado por Fernando Zóbel, que compró obra suya para el Museo de Arte Abstracto Español, inaugurado en 1966, se trasladó a esa ciudad, donde permaneció durante más de veinte años en estrecha relación con los muchos e importantes pintores que en aquella época la frecuentaron. La permanente amistad que tuvo con Antonio Saura hizo que en los primeros tiempos de su estancia en Cuenca sufriera una gran influencia del expresionismo del pintor aragonés y que los cuadros blancos, de formas algodonosas y sensuales que ejecutaba entonces se hicieran más agresivos y dinámicos e incorporaran figuras desgarradas que se integraban en espacios con cuyos accidentes se confundían hasta formar un mundo lleno de personajes grotescos, de monigotes ridículos que parecían adoptar actitudes absurdas; unos personajes cercanos en muchas ocasiones a las visiones de los autores del Grupo CoBrA, a Alechinsky por ejemplo, y sus viñetas, o a las de Asger Jorn. Siempre acompañó al pintor una gran capacidad mimética. *Bodegón con pájaro* (1973) / *il. 9 /* había incorporado colores grises y rojos a los blancos iniciales, y describía un universo más dramático y tenebroso, aunque la particular sensibilidad de Bonifacio dejaba siempre lugar para una más o menos evidente efusión lírica. El óleo presente en la muestra, *Triángulo azul* / *cat. 29 /*, es de 1978-1979. Para entonces ya ha alcanzado el pintor un gran dominio del color y un punto culminante de su carrera, de modo que puede decirse que esta obra, que sobresale entre sus contemporáneas, es verdaderamente maestra dentro de su producción y también en el conjunto de la propia colección. En ella los presuntos personajes y el espacio que los acoge organizan un juego de enmascaramiento y de intercambio, con equívocos constantes e imaginativas descripciones.

Por lo que se refiere a José Luis Zumeta (1939-2020), el más joven de este grupo guipuzcoano, en sus comienzos practicó un expresionismo radical de franjas de colores, que toma de los



eginak, abstraktuagoak dira, hiru data desberdinetan burutuak eta zehaztasun-maila desberdinekoak, nahiz eta bietan antzematen diren obra honi guztiari egotzi izandako ezaugarriak. *Hareak/Sands* (1978) / kat. 35 / kolore ilun, goibel edo gauekoetan dago margotua, eta horrek areagotu egiten du beren ibilbideen eta orbanen misterioa; *Marinak* (1991) / kat. 38 / argitasunez kromatikoak eta doitasunez deskribatzen du biltzen saiatzen den fenomenoa.

José Antonio Sistiaga (1932) gipuzkoar informalistarik erradikalena izan zen, zalantzarik gabe, eta leialago agertu da bere ibilbide osoan zehar azkenera arte garatu duen informalismo gestualaren postulatuen aurrean —Eduardo Chillidak aurreko hamarkadan haiekin espermentatu zuen eta Balerdi benetako maisua izan zen—. Exekuzio-abiaduraren, keinu kaligrafiko irrazional eta espontaneoaren eta ausazko orbanaren eredu jarraituz, eta nahi diren arrastoak lortzeko kolorea paperera edo mihisera transmititzeko hainbat tresna erabiliz, —1959an hasi zuena—, interbentzio zinematografikoak ere garatu zituen, zuzenean emultsionatu gabeko zeluloidearen gainean, eta horrekin emaitza bereziak eta aintzatetsiak biltzen zituzten film esperimentalak lortu zituen. Hori ondo antzeman daiteke *Oraingo euskal paisaia* (1971) / ii. 8 / mihise gaineko olio-pinturan. «Azkartasuna, benetakotasunaren igorpen gisa (orban kromatiko=orban psikikoa) da bere kezka bakarra, eta baita bere sinesmen estetiko bakarra ere», idatzi zuen pintoreaz Santiago Amónek. Inkontzientearen portaera ezagutaraziko duen psikograma bat argitara ematea da xedea.

Bestetik, Bonifacio Alfonso (1933-2011) Cuencan egin zuen egonaldiaren lehenengo hamarkadako pieza esanguratsu batek ordezkatzeko du hemen; egonaldi hura garrantzitsua izan zen bere bilakaeran eta bere estiloa sendotzeko. 1968an joan zen hiri horretara bizitzera, Fernando Zóbelek animatuta, zeinak bere obra eskuratu zuen 1966an inauguratutako Espainiako Arte Abstraktuaren Museorako. Hogei urte baino gehiago eman zituen bertan, garai hartan berarekin maiz ibiltzen ziren margolari gailen eta ugariekin harreman estuan. Antonio Saurarekin izan zuen adiskidetasun etengabearen ondorioz, Cuencan egin zuen egonaldiaren hasieran eragin handia izan zuen bere obran margolari aragoiarraren espresionismoak, eta garai hartan egiten zituen koadro zuriak, forma kotoitsu eta sentsualekoak, ausartagoak eta dinamikoagoak bilakatu ziren, eta irudi urratuak txertatu zituzten haien akzidenteekin nahasten ziren espazioetan. Koadro horiek mundu berezi bat osatzen zuten, itxuraz jarrera zentzugabeak hartzen zituzten pertsonaia groteskoez, txingote barregarriez beterikoa, askotan CoBrA taldeko egileen ikuspegietatik hurbil —esaterako, Alechinskyrenak, eta bere binetakoak— edota Asger Jornen horietatik. Gaitasun mimetiko handia izan zuen beti pintoreak lagun. *Natura hila txoriarekin* (1973) / ii. 9 / koadroan kolore grisak eta gorriak gehitu zizkien hasierako kolore zuriei, eta unibertso dramatiko eta goibelago bat deskribatzen zuen, nahiz eta Bonifacioren sentiberatasun bereziak beti uzten zuen lekua gutxi gorabehera nabaria zen samurtasun liriko baterako. Erakusketan ageri den olio-pintura, *Triangelu urdina* / kat. 29 /, 1978-79koa da. Ordurako, pintoreak ondo asko menderatzen zuen kolorea, eta bere ibilbidearen goren unean zegoen; beraz, esan daiteke bere garaikideen artean gailentzen den obra hau benetako maisulan bat dela, bere ekoizpenean ez ezik, bildumaren beraren osotasunean ere. Bertan, ustezko pertsonaiek eta horiek hartzen dituen espazioak mozorrotzeko eta trukatzeko joko bat antolatzen dute, etengabeko nahasteekin eta deskribapen irudimentsuekin.

José Luis Zumetari dagokionez (1939-2020), talde gipuzkoar honetako gazteena zen, eta bere hastapenetan kolore-zerrenden espresionismo erradikala praktikatu zuen, kanpoko abangoardia batzuekin bisualki parekatutako arrantza-ontzien pinturaren eredu

ii. 10 Vicente Larrea Gayarre  
*Abstracción I*  
*Abstrakzioa I*  
1974



modelos populares de la pintura de los barcos pesqueros, visualmente emparentada con algunas vanguardias foráneas, y que acabaron por constituir laberínticos relieves recortados de gran expresividad. Todo ello llegó a crear unas abstracciones más complejas en las que parecían querer mostrarse dramáticas y conflictivas historias colectivas, al estilo de las fantasmagorías del Grupo CoBrA, que iban a llenar sus espacios de formas entrevistas, fulgurantes, de color abigarrado y de presencia inestable, sometidas a poderosas tensiones, trasunto de una realidad histórica convulsa. La pintura seleccionada / cat. 31 /, de la primera mitad de los años setenta, se encuentra al comienzo de ese proceso, en un momento en que el orden con que había comenzado a manifestarse su abstracción está siendo transgredido por una imperiosa necesidad expresionista. Esta será aún más violenta y más épica en los años siguientes, para acabar por atemperarse, según intervenciones informalistas más codificadas y serenas, en los últimos años de la década. Sin embargo, posteriormente Zumeta incorporará una figuración grotesca a su pintura y evolucionará de manera compleja según múltiples estímulos, tanto abstractos como figurativos, a menudo siguiendo pautas de movimientos internacionales a los que podía sentirse próximo, como ciertas manifestaciones de la transvanguardia y del neoespressionismo, aunque sin soslayar su profunda deuda con Picasso.

El trabajo del pintor y escultor Agustín Ibarrola (1930) fue uno de los que más claramente caracterizaron la figuración vizcaína. He hablado ya de la importancia que pudo tener el trabajo de Ucelay, pero fue Ibarrola quien, estableciendo una continuidad con los artistas novecentistas anteriores a la Guerra Civil —con Aurelio Arteta y Daniel Vázquez Díaz, de quien fue discípulo directo—, estimuló la pintura figurativa, que desbordó su trabajo abstracto geométrico como miembro del Equipo 57. Sin embargo, la escultura vizcaína más importante del momento iba a ser abstracta, la desarrollada por Vicente Larrea (1934) desde 1966, representada en esta colección (aunque no en la muestra actual) mediante el bronce titulado *Abstracción I* (1974) / ii. 10 /. Es una

herrikoietatik hartu eta azkenean adierazkortasun handiko erliebe labirintiko murriztuak bilakatu ziren horiena. Horrek guztiak abstrakzio konplexuagoak sortu zituen, eta bazirudien historia kolektibo dramatiko eta gatazkatsuak erakutsi nahi zituztela, CoBrA taldearen fantasmagorien antzera, sumatzen ziren forma bizkorrez, kolore nabar eta presentzia egonkorrekoez, beren espazioak beteko zituztenak, tentsio handien pean, errealitate historiko asaldatu baten irudi. Hautatutako pintura / kat. 31 /, 1970eko hamarkadaren lehen erdikoa, prozesu horren hasieran aurkitzen da, bere abstrakzioa agertzen hasia zen ordena premia espresionista bizi batek urratzen ziharduen unean. Hori are bortitzagoa eta epikoagoa izango da hurrengo urteetan, eta hamarkadaren azken urteetan baretu egingo da, interbentzio informalista kodetuago eta lasaiagoen arabera. Gerora, ordea, Zumetak figurazio groteskoa gehitu zion bere pinturari, eta modu konplexu batean eboluzionatu zuen hainbat estimuluren arabera —abstraktuak nahiz figuratiboak—, sarritan hurbileko sentitu ahal izaten zen nazioarteko mugimenduen ereduie jarraituta, besteak beste, transbangoardiaren eta neoespresionismoaren adierazpen jakin batzuei, nahiz eta Picassori zor zion guztia saihestu gabe.

Bizkaiko figurazioa argiro bereizi izan zuen lanetako bat Agustín Ibarrola (1930) pintore eta eskultorearena izan zen. Ucelayren lanak izan zezakeen garrantziaz hitz egin dut jada, baina Ibarrola izan zen, Gerra Zibilaren aurreko artista novecentistekin jarraitutasuna ezarriz —Aurelio Arteta eta Daniel Vázquez Díazekin, zeinen ikasle zuzena izan baitzen— pintura figuratiboa suspertu zuena, bere lan abstraktu geometrikoa gainditu zuena Equipo 57ko kide gisa. Hala ere, garai hartako eskultura bizkaitar garrantzitsuena abstraktua izango zen, Vicente Larreak (1934) 1966az geroztik garatutakoa, hain zuzen, eta bilduma honetan (baina ez oraingo erakusketan) *Abstrakzioa I* (1974) / il. 10 / izeneko brontzearen bidez ordezkaturia. Eskultorearen helduaroko obra bat da, non bere estilo bereizgarria den nagusi. Bertan, lodiera konstante bat duen xafla bat da gorputz materiala, eta garatzeko eta dibertsifikatzeko gaitasun amaigabe bat duela dirudi, tumore-itxurarekin bere baitan tolestu eta espazio labirintiko bat hartzen duena barnean. Ikuslearentzat ikusezina, espazio hau eskulturaren gorputzean txertatzen da birtualki, kobazulo baten tankera hartzen duen barne-ibilbide dramatiko bat deskribatuz, egileak zalantzarik gabe bere izenburu garaikide batzuetan adierazten duen egoera: krisi existentzial baten korolario barrokoa, XVIII. mendeko aldi historiko adierazgarriaren zeinu plastiko nabariak sartzen dituena, baita bere eskultore gailenetakoren batena, Berninirena, besteak beste. Larreak burdinurtua erabiltzen zuen eskala handiko bere eskultoretarako, baina brontzearen galdaketan lortzen joan zen aurrerabide teknikoek materia horrekin dimentsio publikoko piezei heltzeko aukera eman zioten.

Euskal artearen bilakaerarekin jarraitu aurretik, bilduma honetan eta hautaketa honetan agertzen den artista ezagun bat aipatuko dut, bere jaiotza-lekuagatik Euskal Herriari lotzen zaiona. Darío Villalba (1939-2018) da bera, Zumetaren garaikide doia, eta zenbaitetan euskal artisten zerrendan gehitzen dena, nahiz eta hiru hilabete besterik ez zituela atzean utzi bere jaioterria, eta beste leku batzuetan garatu bere sorkuntza. Bere figurazioa landu zuen originaltasun aitzindariak 1960ko hamarkadan jada argazkilaritza txertatzera eraman zuen, eta metrakilatuzko kaspularatzeak erabiltzera; azken hauek halako adierazkortasun larri bat ematen zieten beren lanei, beren pertsonaia dramatikoek lagunduta. Hautatutako *collagea* / kat. 33 /, BBVA Bildumakoa, bere estetikaren oso berezkoa da, bai oinarritzen den objektuagatik, bai bere osaeran esku hartzen duten ezohiko elementuengatik.

Hautaketa honetako beste bi pintoreri ere erreparatu behar zaie, guztiz abangoardistak direnen aukera kolateralak ordezkatu dituztenei, lehendik asimilatu baziren ere XX. hasieran indarrean egon ziren eredu piktorikoak hautsi ez zituzten arte-formak irudikatzen

Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean

94,2 × 120 cm

N.º inv. Inb. zk. P00083







un planteamiento de carácter constructivo. Predomina la organización y simplificación de los volúmenes en planos geométricos de tonalidades contrastadas, que dotan de dinamismo a la composición. Se evidencia su maestría en el tratamiento cromático, del que se sirve para modelar las figuras y construir la escena, transformándolo en estructura para representar una realidad fragmentada y vibrante. Esto se manifiesta a su vez en el paisaje del fondo, ejecutado a base de superficies tonales independientes que encajan unas con otras, y en las que apreciamos de modo más rotundo el legado cezariano.

En *Soir de fête (Tarde de fiesta)* queda plasmada su personal percepción de la realidad. Siempre condicionado por los viajes que realizó a lo largo de su vida, que marcaron su estilo y su espíritu, transmite la fascinación que sintió hacia Andalucía, con una visión diferente a la de la iconografía castiza al uso. Alejado de los convencionalismos pictóricos, deja de lado lo pintoresco para centrarse en los valores plásticos. La armonía y el gran vitalismo que irradia la pieza reflejan a la perfección la alegría de vivir que el artista encontró en el sur del país. MSP

ikus daitekeena. Bolumenak antolatu eta sinplifikatzeko, tonalitate kontrastatuko plano geometrikoak erabili ditu, era horretan konposizioa dinamismoz jantziz. Argi geratzen da tratamendu kromatikoaren maisua dela, eta tratamendu hori baliatzen du, hain zuzen, irudiak moldekatu eta eszena eraikitzeko, errealitate zatikatu eta bizi baten irudikapena egitura bihurtuz. Hori, aldi berean, atzealdeko paisaian gertatzen da: elkarrekin ahokatzen diren tonu-gainazal independenteetan oinarrituz gauzatu da, eta ezin argiago ikus dezakegu hor Cézanneren marka.

*Soir de fête (Arratsalde-festa)* margolanean, errealitatearen bere ikuspegi pertsonala erakusten du. Bizitza osoan Iturrinok egin zituen bidaiek baldintzatu egin zuten beti; izan ere, aztarna utzi zioten hala estiloan nola espirituan, eta hemen Andaluziari buruz sentitu zuen lilura adierazi du, jatoriasunaren ohiko ikonografiaz bestelako ikuspegi batez. Konbentzionalismo piktorikoetatik urrun, pintoreskoa dena albo batera utzirik, balio plastikoei erreparatu die. Artelan honek adierazten duen harmoniak eta bizitasun handiak ezin hobe islatzen dute artistak herrialdearen hegoaldean aurkitu zuen bizipoza. MSP



## Francisco Iturrino González

Santander, 1864 – Cagnes-sur-Mer, Francia Frantzia, 1924

Francisco Iturrino es considerado uno de los pintores más importantes del arte finisecular español. Gracias a su estrecha relación con los protagonistas de la vanguardia internacional, se convirtió en uno de los principales introductores de la renovación plástica en España, jugando un papel primordial en la configuración de la modernidad en nuestro país.

Este lienzo es un claro ejemplo de sus habituales composiciones, formadas por figuras femeninas semidesnudas, temática muy recurrente a lo largo de su carrera. Representa a un grupo de mujeres, pintadas al aire libre, que se desnudan de manera lúdica y dinámica. El pintor capta el momento como si se tratase de una instantánea; una de las figuras mira directamente al espectador, en un gesto de suma modernidad que revela la influencia de la fotografía.

A través del estudio de la luz y la atmósfera que rodean a las figuras dota de movimiento y vibración a la escena, reflejando su interés por transmitir la importancia de la exaltación cromática y del cuerpo humano. Destaca el sentido constructivo de la pieza, con marcada influencia de Paul Cézanne (1839-1906), como podemos apreciar en los pliegues de la ropa y en el tratamiento del fondo del cuadro, realizados mediante planos sucesivos de color y pinceladas geométricas. La paleta colorista y vital denota a su vez el influjo de Henri Matisse (1869-1954), con quien le unió una fuerte amistad; no es casual que Iturrino sea el responsable de difundir los principios del fauvismo en España. MSP

Francisco Iturrino Espainiako artearen mende amaierako pintore garrantzitsuenetakotzat hartzen da. Nazioarteko abangoardiako protagonistekin izan zuen harreman estuari esker, nagusiki berak beste batzuekin sartu zuen berrikuntza plastikoa Espainian, eta rol nagusi bat jokatu zuen herrialdeko modernitatearen konfigurazioan.

Mihise hau, emakumezko irudi erdi-biluziz osatua, bere ibilbidean asko errepikatzen duen gaia da, eta haren ohiko konposizioen adibide argia da. Emakumetalde bat irudikatzen du, aire zabalean pintatua, eta emakumeak era ludikoan eta dinamikoan biluzten dira. Pintoreak argazki bat balitz bezala harrapatu du unea; giza irudi horietako bat ikusleari begira jartzen da, modernotasun handiko keinua, argazkilaritzaren eragina agerian uzten duena.

Irudiak inguratzen dituzten argia eta atmosfera estudiatuz, mugimendua eta dardara eman dizkio eszenari; hartara, gorespen kromatikoak eta giza gorputzak garrantzia dutela adierazi nahi izan du. Agerikoa da artelanaren zentzu konstruktiboa, Paul Cézanneren eragin nabarmenaz (1839-1906), arropako zimurretan eta koadroaren atzealdearen tratamenduan ikusten den bezala, kolore eta pintzelkada geometrikoen hurrenez hurreneko planoen bitartez. Paleta koloretsuak eta biziak, aldi berean, Henri Matisseren (1869-1954) eragina uzten du agerian; hain zuzen, oso adiskide izan zuen, eta ez da kasualitatea Iturrino izatea Espainian fauvismoaren printzipioak zabaldu zituena. MSP

cat. 9 **Mujeres en el río, h. 1915-1916**  
*Emakumeak ibaian, 1915-1916 inguru*

Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean  
157,5 × 198,5 cm  
N.º inv. Inb. zk. P00081









## Aurelio Arteta

Bilbao Bilbo, 1879 – Ciudad de México Mexiko Hiria, 1940

El proceso de modernización de la pintura vasca durante las primeras décadas del siglo XX supuso la asimilación de nuevos lenguajes en conexión con el ambiente europeo. En este contexto, la influencia de la estética simbolista jugó un importante papel, ofreciendo una vía plástica novedosa a los artistas que, como Aurelio Arteta, emprendieron la renovación del panorama artístico local.

Gracias a una pensión otorgada por la Diputación de Vizcaya, entre 1902 y 1906 Arteta pudo pasar temporadas en Francia, Bélgica e Italia; esas estancias le permitieron familiarizarse con el posimpresionismo y el divisionismo, cuyos ecos se advierten en este lienzo, realizado poco después. De pincelada muy suelta y colores saturados, muestra, a plena luz del sol, el contraste entre la actividad de la figura masculina —con el torso desnudo y cargando a la espalda una gran paca de heno— y la lasitud de la mujer, sentada plácidamente sobre la rama de un árbol.

La diferencia en el tratamiento de ambas figuras acentúa la oposición entre sus respectivas actitudes de dinamismo y languidez. En la ejecución, un modelado vigoroso en el caso del hombre hace patente su esfuerzo y energía, mientras que la configuración de carácter más sintético de la mujer enfatiza su estatismo y su naturaleza casi etérea. También el color, tonos cálidos él y fríos ella, resalta el contraste alegórico al que alude el título.

A través de esta antítesis, y muy en consonancia con la sensibilidad simbolista finisecular, Arteta pretende establecer una relación entre lo material y lo espiritual. El hombre queda despojado de toda psicología para personificar el trabajo físico y, en contraposición, la mujer transmite una sensación de evasión, encarnando lo subjetivo, como si quisiera reflejar el estado de su alma. MSP

XX. mendeko lehen hamarkadetan, euskal pinturaren modernizazio-prozesuan, lengoia berriak eskuratu ziren Europako giroarekin harremanean. Testuinguru horretan, sinbolismoaren eragin estetikoa garrantzitsua izan zen, bide plastiko berritzaile bat eskaini baitzuten tokiko panorama artistikoa berritzeari ekin zioten artistei, hala nola Aurelio Artetari.

Bizkaiko Foru Aldundiak esleitu zuen pentsio bati esker, 1902 eta 1906 artean Artetak denboraldiak eman ahal izan zituen Frantzia, Belgika eta Italia. Egonaldi horietan, postimpresionismoa eta dibisionismoa ezagutu ahal izan zituen, eta horien isuria, hain zuzen, apur bat geroago egindako mihise honetan antzeman daiteke. Pintzelkada oso solte eta kolore saturatuz, eguzki-galdatan, kontrastea erakusten du gizonezko giza irudiaren ekintzaren —soina biluzik eta bizkarrean lasto-fardel handi bat zamatuz— eta, arbolaren adarrean lasai-lasai eserita, emakumearen patxadaren artean.

Bi giza irudi horien tratamenduen arteko aldeak areagotu egiten du haien jarreraren artean dagoen oposizioa: dinamismoa eta gogogabezia. Gauzatzean, artistak bizkor moldekatu du gizona, eta agerian utzi du haren ahalegina eta kemena; kontrako aldean, emakumearen itxurapen sintetikoagoak estatikoa eta ia etereo dela nabarmentzen du. Koloreek ere —gizonak tonu beroak, eta emakumeak hotzak— izenburuak adierazten duen kontraste alegorikoa erakusten dute.

Antitesi horren bitartez eta mende amaierako sentsibilitate sinbolistarekin bat etorritik, Artetak harremanetan jarri nahi ditu materialtasuna eta espiritualtasuna. Gizonari psikologia oro kendu dio eta, trukean, lan fisiko gorpuztera pasa da; aldez, emakumeak iheskortasun-sentsazio bat ematen du, subjektibotasuna aditzera emanez, Artetaren arimaren egoera islatu nahiko balu bezala. MSP


cat. 10 *La Pereza y el Trabajo*, h. 1909-1910

*Nagia eta Lana*, 1909-1910 inguru

Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean

129 × 160,5 cm

N.º inv. Inb. zk. P00381





## Aurelio Arteta

Bilbao Bilbo, 1879 – Ciudad de México Mexiko Hiria, 1940

Aurelio Arteta es considerado uno de los principales protagonistas de la renovación pictórica vasca durante el primer tercio del siglo XX. Artista de sólida formación, y miembro fundador de la Asociación de Artistas Vascos, se consagró como pintor de tipos y costumbres populares a la cabeza del sentir expresivo del alma colectiva del pueblo vasco, temática a través de la cual creó un concepto estético muy personal, con el objetivo de realzar lo cotidiano en un proceso de depuración formal.

*Descargadoras de carbón en la ría* es un excelente ejemplo que nos muestra, de manera armónica, la simbiosis entre clasicismo y modernidad tan frecuente en su producción. Se aprecia la base del lenguaje clásico, que asimiló en su estancia en Italia, así como la lección aprendida del cubismo —principalmente de Daniel Vázquez Díaz (1882-1969)— en la simplificación estructural, el estudio detallado de las proporciones y la composición arquitectónica. A su vez, podemos destacar la influencia de Puvis de Chavannes (1824-1898), presente en el tono alegórico de la representación, que se aleja del dramatismo habitual para crear una obra de carácter armonioso y casi lírico.

En su conjunto, la escena supone un claro elogio hacia la laboriosidad femenina y la estimable tarea de estas mujeres que, con su esfuerzo y tenacidad, participan activamente en el desarrollo de la industria vasca. A nivel compositivo nos remite a *Paisaje urbano con figuras* (Museo de Bellas Artes de Bilbao), realizado en torno a 1920, fecha en la que comienza a elaborar sus bocetos para la serie de frescos que adornarán la rotunda del edificio que el Banco de Bilbao estaba construyendo en la madrileña calle de Alcalá. MSP

Aurelio Arteta XX. mende lehen hereneko euskal berrikuntza piktorikoko protagonista nagusietakotzat hartzen da. Heziketa sendoko artista zen, eta Euskal Artisten Elkartearen kide sortzaile bat. Herri-tipo eta -ohituren margolari gisa egin zen ezagun, eta euskal herri-arima kolektiboaren sentimendu-adierazpenaren buru jarri. Hain zuzen, gai horren bitartez, kontzeptu estetiko oso pertsonal bat sortu zuen, garbiketa formaleko prozesu batez egunerokotasuna nabarmentzeko helburuaz.

*Ikatz-zamaketariak itsasadarrean* klasizismoaren eta modernitatearen arteko sinbiosia —bere sorkuntzan hain ohikoa zuena— era harmoniatsuan erakustearen adibide bikaina da. Italian zela eskuratu zuen lengoia klasikoaren oinarria sumatu dezakegu, baita kubismotik ikasitako lezioa ere —batez ere Daniel Vázquez Díazengandik (1882-1969)— sinplifikazio estrukturalari, proportzioen estudio xeheari eta konposizio arkitektonikoari buruz. Aldi berean, Puvis de Chavannesen (1824 -1898) eragina nabarmendu dezakegu, irudikapenaren tonu alegorikoan adierazia, gai honen ohiko dramatismotik urrunduz; trukean, artelan harmoniatsu eta ia lirikoa sortu du.

Bere osoan, eszena honetan emakumeen saiamena eta emakume horien lan estimatua goستن da argi eta garbi, haien ahaleginaz eta pertseberantziaz aktiboki parte hartzen baitute euskal industriaren garapenean. Konposizioari erreparatuz gero, *Hiri paisaia irudiekin* ekartzen du gogora (Bilboko Arte Eder Museoa), 1920 aldera egin. Urte horretan, hain zuzen, bozetoak ontzen hasi zen fresko batzuetarako, eta fresko horiek Banco de Bilbao Madrilgo Alcalá kalean egiten ari zen eraikineko biribilgunea apainduko zuten gero. MSP

cat. 11 **Descargadoras de carbón en la ría, 1923**

*Ikatz-zamaketariak itsasadarrean*

Pastel y acuarela sobre papel  
Paper gaineko pastela eta akuarela  
62,3 × 48,2 cm  
N.º inv. Inb. zk. P00016



## Aurelio Arteta

Bilbao Bilbo, 1879 – Ciudad de México Mexiko Hiria, 1940

Reconocido por ser uno de los más destacados artistas que protagonizaron la renovación pictórica en el País Vasco de principios del siglo XX, Arteta ha pasado a ser considerado el pintor por excelencia de los tipos y costumbres populares del pueblo vasco. A través de esta temática, creó un concepto estético muy personal, en el que conviven clasicismo y modernidad, con el objetivo de realzar lo cotidiano en un proceso de depuración formal.

*Boceto para Pescadores de Bermeo* es el estudio para una de las obras cumbres de su etapa final en el exilio (1936-1940). Entre ambos existen variaciones cromáticas, y el lienzo contiene alguna escena que no aparece en este boceto, algo habitual en Arteta, a quien le gustaba realizar varios estudios sobre un tema y tomar multitud de apuntes desde distintos puntos de vista para encontrar las composiciones más satisfactorias.

Esta obra es claro testimonio del estilo de su etapa final. Podemos apreciar la base del lenguaje clásico, que asimiló durante su estancia en Italia, así como la lección aprendida del cubismo —principalmente de Daniel Vázquez Díaz (1882-1969)— en la depuración formal, el estudio detallado de las proporciones y la composición arquitectónica. Estas características no solo se aprecian en las figuras, sino en el paisaje de fondo, mero recurso compositivo para crear profundidad, configurado a través de manchas de color imprecisas y juego de volúmenes. A su vez podemos destacar la influencia de Puvis de Chavannes (1824-1898), presente en el tono alegórico de la representación, que se aleja del dramatismo habitual de esta temática para crear una obra de carácter armonioso y casi lírico.

Artetak aitortua du XX. mende hasieran Euskal Herriko berrikuntza piktorikoa aurrera eraman zuten artista nabarmenetako bat izatea; ondorioz, euskal herriaren herri-tipo eta -ohituren pintore nagusizat hartu da. Gai horren bitartez, kontzeptu estetiko oso pertsonala sortu zuen, eta horretan klasizismoa eta modernitatea ezkontzen dira, garbiketa formaleko prozesuan egunerokotasuna nabarmentzeko helburu batez.

*Bermeoko arrantzaleak bozetoa* bere azken erbeste-etapako (1936-1940) artelan gailenetako baterako estudioa da. Biek aldaera kromatikoak dituzte elkarren artean, eta mihiseak badu bozeto honetan agertzen ez den eszenaren bat, Artetarengan ohikoa dena; izan ere, gustuko zuen gai baten inguruko hainbat estudio egitea eta, ikuspegi askotan oinarrituz, ohar ugari hartzea, konposizio gogobetegarrienak aurkitu ahal izateko.

Artelan hau da bere azken etapako estiloaren testigantza peto-pettoa da. Italian zela eskuratu zuen lengoaia klasikoaren oinarria sumatu dezakegu, baita kubismotik ikasitako lezioa ere —batez ere Daniel Vázquez Díazengandik (1882-1969)— garbiketa formalari, proportzioen estudio xeheari eta konposizio arkitektonikoari buruz. Ezaugarri horiek ez dira irudietan bakarrik antzematen, baita atzealdeko paisaia ere; izan ere, paisaia konposizio-bitarteko bat besterik ez da sakonera sortzeko, kolore-orban zehaztugabeen eta bolumenen jokoaren bitartez. Aldi berean, Puvis de Chavannesen (1824-1898) eragina nabarmendu dezakegu, irudikapenaren tonu alegorikoaz adierazia, gai honen ohiko dramatismotik urrunduz; trukean, artelan harmoniatu eta ia lirikoa sortu du.

cat. 12 **Boceto para Pescadores de Bermeo, h. 1937-1940**  
*Bermeoko arrantzaleak bozetoa, 1937-1940 inguru*

Acuarela y lápiz sobre papel  
Aquarela eta arkatza paper gainean  
45 × 48 cm  
N.º inv. Inb. zk. P00015







La escena muestra a un conjunto de pescadores vascos, tema recurrente en su obra, pero en esta etapa se observa un importante cambio a nivel estético y morfológico. La antigua solidez y volumetría de las figuras se vuelve liviana, configurándose a base de planos simples. Las mujeres seductoras han pasado a ser estereotipadas aldeanas, cuya condición escultórica se presenta ahora de forma más sutil y estilizada. En contraposición, la figura masculina gira ligeramente su perfil, como en las representaciones egipcias, reforzando el carácter anguloso de los hombros para ganar anchura corporal.

A diferencia de su producción previa, no le interesa individualizar a los personajes —sus rostros carecen de entidad propia—, sino captar su atemporalidad. Arteta utiliza esta despersonalización durante su exilio como un símbolo utópico-romántico, de añoranza de su pueblo y de su vida anterior; un modo de plasmar el miedo a la pérdida de identidad que puede conllevar la guerra.

Aunque este boceto no aparece fechado, teniendo en cuenta que el lienzo para el que realiza el estudio data de 1940, se puede establecer como momento de ejecución el periodo comprendido entre 1937 y 1940. No solo porque el estilo corresponde a su etapa final, sino porque muchos de los estudios que elaboró para los lienzos de temática vasca que pintaría en México durante su exilio —es el caso de *Pescadores de Bermeo*— fueron concebidos en Biarritz, donde Arteta estuvo en 1937, durante la Guerra Civil. MSP

Eszenak euskal arrantzaleen talde bat erakusten du, bere obrako gai errepikakorra dena, baina etapa honetan ikus daiteke alde garrantzitsua dagoela hala estetikan nola morfologian. Irudien lehengo sendotasuna eta bolumetria arin bihurtu da orain, plano sinpleen bitartez eratua. Emakume xarmagarriak herritar estereotipatuak izatera pasa dira, eta haien nolakotasun eskultorikoa askoz arinagoa eta estilizatuagoa agertzen da orain. Kontrako aldean, gizonezkoen irudia itzuli egiten da apur bat, Egiptoko irudikapenetan bezala, gizonen sorbaldaren alde hezurtsua sendotuz gorputzaren zabalera irabazteko.

Aurreko bere sorkuntzan ez bezala, ez du pertsonaiak indibidualizatzeko interesik —haien aurpegiek ez dute izaera bakanik—; aldiz, haien denboraz gaineko izaera atzeman nahi du. Artetak sinbolo utopiko-erromantiko gisa baliatu zuen despersonalizazio hori, herriminez eta lehengo bizitzaren nostalgiaz; gerrak ekar dezakeen identitate-galeraren beldurra hezurramitzeko modua da.

Bozeto honetan datarik agertzen ez den arren, kontuan hartuz estudio honen xedeko mihiseak 1940ko data duela, 1937tik 1940 arteko aldirian gauzatu behar izan du. Estiloa bere azken etapakoa izateaz gain, Mexikon pintatu zituen euskal gaietako mihiseentzako estudio ugari —hala nola *Bermeoko arrantzaleak*— Biarritzen sortu zituen; hain zuzen, Arteta 1937an izan zen hor, Gerra Zibilaren aldirian. MSP



**Alberto Arrúe Valle**

Bilbao Bilbo, 1878 – 1944

Alberto Arrúe pertenece al grupo de pintores vascos que, durante finales del XIX y principios del XX, ejercieron un importante papel en la representación de las tradiciones locales. A lo largo de toda su trayectoria desarrolló una pintura muy comprometida con la modernidad, siendo uno de los más firmes y prestigiosos artistas de nuestro país. Caracterizado por una extraordinaria honradez, tanto a nivel artístico como personal, nunca mostró interés por formar parte del entramado en torno al mercado del arte, y esta es posiblemente la causa de que no haya pasado a la posteridad con la misma fama que otros creadores coetáneos, como Aurelio Arteta (1879-1940) o los hermanos Zubiaurre, Valentín (1879-1963) y Ramón (1882-1969). Prefirió padecer que sucumbir a los gustos del público o a los dictados de la crítica, hecho que merece ser considerado como un gran mérito.

Su producción es fiel reflejo de su personalidad, aunando pureza y equilibrio. Trabajaba en soledad, prefería pintar de memoria o partiendo de bocetos tomados rápidamente del natural. Probablemente su destacable humildad sea lo que le lleva a interesarse por los temas más cercanos al pueblo vasco, algo que ilustra bien esta obra. La escena muestra a un conjunto de pescadores vascos en el puerto de Bermeo; se puede apreciar que la mujer, situada a la izquierda de la

Alberto Arrúe euskal pintoreen talde batekoa da: XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran, talde horrek rol garrantzitsua izan zuen tokiko tradizioak irudikatzeko orduan. Bere ibilbide osoan, Arruek modernitateari oso atxikitako pintura landu zuen, eta gure herrialdeko artista irmo eta ospetsuenetako bat da. Paregabeko zintzotasuna zuen ezaugarri, hala artean nola pertsona gisa, eta inoiz ez zuen agertu arte-merkatuaren matazan parte hartzeko interesik, eta segur aski horregatik, hain zuzen, ez da aintza izatera heldu, bere garaikide izandako beste sortzaile batzuk ez bezala, hala nola Aurelio Arteta (1879-1940) edo Zubiaurre anaiak, Valentín (1879-1963) eta Ramón (1882-1969). Nahiago izan zuen ikusleen zaletasunak pairatu, haiei edo kritikaren esanei amore eman baino, eta hori ez da meritu makala.

Haren sorkuntza haren nortasunaren isla da: purutasuna eta oreka uztartzen ditu. Bakardadean lan egiten zuen, eta nahiago zuen buruz pintatu, edo laster batean zuzenean hartutako zirriborroetan oinarrituz. Segur aski hain umila izateak eraman zuen euskal herriaren hurbileko gaiekin interesatzera, eta artelan honek, hain zuzen, oso ondo erakusten du hori. Eszena honetan, Bermeoko portuko euskal arrantzaleen talde bat erakusten da; antzematen da irudiaren ezkerrean kokatutako emakumeak portuko langile itxura izan ordez,

cat. 13 **Pescadores en el puerto de Bermeo, s.f.**  
*Arrantzaleak Bermeoko portuan, d.g.*

Pastel sobre papel Pastela paper gainean  
38 × 58 cm  
N.º inv. Inb. zk. P00004







imagen, más que parecer una trabajadora portuaria tiene aspecto casi aristocrático. La representa con gran finura y elegancia, frente al modelado escultórico de las figuras masculinas, a las que concede una apariencia más rígida. Es frecuente en Arrúe recurrir a temáticas costumbristas, que dota de carga simbólica, con intención de realizar una crítica a la sociedad del momento.

Desde un punto de vista formal, muestra un dominio absoluto de la técnica del pastel como medio expresivo. Mediante el uso de colores puros consigue múltiples tonalidades y atractivos contrastes, que evidencian su contacto con la pintura parisina finisecular. A la vez, su sólida formación académica se hace patente en la estilización y en la importancia del dibujo y la composición, reforzada por un interesante estudio lumínico de suma modernidad, creando un conjunto muy armonioso.

Gracias a su exquisita formación y a sus estancias fuera del país, Arrúe logró aunar la tradición de los grandes maestros españoles y las innovaciones del arte moderno parisino. Todo ello le permitió crear sus propios medios de expresión de manera intuitiva y desarrollar una admirable capacidad creadora, siempre fiel a sus cánones estéticos basados en la sobriedad, la naturalidad y la elegancia. MSP

gehiago duela planta aristokratikoa. Aire hori fineziaz eta dotoreziaz eramaten du, irudi maskulinoek duten moldekatze eskultorikoan ez bezala; izan ere, horiei itxura zurrunagoa eman die. Sarritan, Arrúek gai kostunbristetara jo du, horiek karga sinbolikoz jantziz, uneko gizartearen kritika egiteko asmoz.

Ikuspegi formal batetik, erakusten du bikain moldatzen dela pastelaren teknikarekin adierazpenerako. Kolore puruen bitartez, askotariko tonalitateak eta kontraste erakargarriak lortzen ditu; erakusten dute harremana zuela Pariseko mende amaierako pinturarekin. Aldi berean, agerian geratzen da hezkuntza akademiko sendoa zuela, estilizazioan eta marrazkiaren zein konposizioaren garrantzian; horri gaineratu behar zaio berebiziko modernitateko argien estudio interesgarria egin zuela eta, hartara, osotasun oso harmoniatsua sortzen da.

Haren hezkuntza bikainari eta herrialdeaz kanpora egin zituen egonaldiak esker, Arrúek espainiar maisu handien tradizioa eta Pariseko arte modernoaren berrikuntzak bateratu zituen. Horrek guztiak balio izan zion bere senarekin bat etorri adierazpide bereziak sortzeko, zintzo betiere soiltasunean, naturaltasunean eta dotorezian oinarritutako kanon estetikoak. MSP



## Ignacio Zuloaga y Zabaleta

Éibar, Guipúzcoa Eibar, Gipuzkoa, 1870 – Madrid Madril, 1945

Dentro de la generación de artistas que definieron la modernización del arte español durante el cambio del siglo XIX al XX, Zuloaga jugó un papel decisivo gracias a su contacto con el panorama internacional. Más allá de ser reconocido por la creación de una iconografía nacional en el marco de la crisis del 98, y la exportación de un imaginario visual ligado a la España negra, el pintor participó activamente en la renovación plástica europea.

A lo largo de su carrera adquirió gran popularidad como retratista, hasta el punto de tener que rechazar encargos en alguna ocasión. De este modo, pudo seleccionar aquellos que realmente le interesaban y le permitían dejar de lado lo superfluo para indagar en lo psicológico del personaje, sintiendo predilección por los protagonistas de la vida moderna.

Tal es el caso de este lienzo, realizado en París, que representa al odontólogo norteamericano Mr. Halley-Schmidt en un campo de golf, deporte que había empezado a extenderse entre la burguesía adinerada, a la que Zuloaga estuvo vinculado prácticamente durante toda su trayectoria. En ese momento el artista gozaba de gran éxito entre la clientela estadounidense, factor decisivo para su exposición y viaje a Estados Unidos en 1925.

En esta obra se aprecia el esquema característico de Zuloaga a la hora de realizar retratos: divide la composición en planos, creando un escenario sobre

XIX. mendetik XX.era aldatzean espainiar artearen modernizazioa definitu zuten artista-belaunaldian, Zuloagak rol erabakigarria izan zuen, nazioarteko panoramarekin izan zuen harremanari esker. 98eko krisiaren testuinguruan ikonografia nazional bat sortzea eta Espainia beltzari lotutako ikusizko iruditeria bat esportatzea aitortu zaio, baina pintoreak aktiboki parte hartu zuen, gainera, Europako berrikuntza plastikoa.

Bere ibilbidean oso ezagun egin zen erretratugintzan, eta hainbeste, non noizbait uko ere egin baitzion mandatuak jasotzeari. Beraz, benetan intereseko zituen erretratuak aukeratu ahal izan zituen, eta baztertu ahal izan zuen pertsonaiaren axaleko alde, eta alde psikologia miatu. Bizitza modernoko protagonistei buruzko zaletasuna agertu zuen.

Haxe da, hain zuzen, mihise horietako bat, Parisen egina. Mr. Halley-Schmidt estatubatuar odontologoa erakusten du bertan, golf-zelaian dagoela, burgesia aberatsean hedatzen hasia zen kirolean. Zuloagak lotura estua izan zuen ia bere ibilbide osoan burgesia horrekin. Une honetan, artistak arrakasta handia zuen bezero estatubatuarren artean, eta hori faktore erabakigarria izan zen 1925ean Estatu Batuetara bidaiara egin eta han erakusketa egiteko.

Artelan honetan, erretratuak egiteko Zuloagak zuen ohiko eskema antzematen da: konposizioa

cat. 14 **Retrato de Mr. Halley-Schmidt, 1923**

*Mr. Halley-Schmidten erretratua*

Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean

206 × 152 cm

N.º inv. Inb. zk. P00180







el que ubica al protagonista, de pie, a un lado del cuadro, reforzando su carácter escenográfico, en una postura lateral muy típica del pintor; la elegancia del atuendo y la actitud de afectada naturalidad convierten al personaje en paradigma del *sportsman*, una tipología muy extendida en Europa a finales del siglo XIX, pero que cuenta con pocos ejemplos en el retrato español de la época. A su vez, en la ejecución y el planteamiento cromático del paisaje del fondo se advierte la influencia de los movimientos de vanguardia, principalmente de su amigo Émile Bernard (1868-1941).

Un cierto parecido del americano con don Juan de Borbón provocó una errónea identificación en algunas publicaciones, pero la identidad del retratado fue finalmente confirmada gracias al archivo familiar de Zumaya. El odontólogo debió de quedar muy satisfecho con la obra, pues años después, en 1932 en París, el artista retrataría también a Miss Halley-Schmidt. MSP

planotan bereizi du, protagonista –zutik– kokatzen den eszenategia sortuz koadroaren alde batera, hartara alde eszenografikoa sendotuz, pintoreak oso berea duen alboko jarrera batez. Janzkeraren dotoreziak eta naturaltasun behartuko jarrerak sports-man baten paradigma bihurtzen dute pertsonaia. Tipologia hori, hain zuzen, oso hedaturik zegoen Europan XIX. mende amaieran, baina ale gutxi ditugu garai hartako Espainiako erretratuetan. Aldi berean, atzealdeko paisaiaren exekuzioan eta planteamendu kromatikoa, abangoardiako mugimenduen eragina nabaritu daiteke, batez ere Émile Bernard haren lagunarena (1868-1941).

Estatubatuar honek badu antza don Joan Borboikoarekin eta, ondorioz, argitalpen batzuk erratu egin ziren identifikazioa egiteko orduan, baina Zumaiako familia-artxiboari esker, erretratatuaren identitatea egiaztatu ahal izan zen. Odontologoa oso pozik geratu bide zen margolanarekin; izan ere, urte batzuk. MSP





Daniel Vázquez Díaz / Gaspar Montes Iturrioz /  
Menchu Gal / José María Ucelay

ABANGOARDIEN  
HARRERA

LA RECEPCIÓN DE  
LAS VANGUARDIAS



## Daniel Vázquez Díaz

Nerva, Huelva, 1882 – Madrid Madrid, 1969

Vázquez Díaz fue una figura clave en la renovación pictórica vasca. Gracias a él, la mayoría de artistas locales configuraron un nuevo lenguaje basado en la interpretación personal del cubismo, como vemos en esta pieza, claro ejemplo de cómo el pintor consigue fusionar tradición y modernidad.

El conocimiento que el artista había adquirido de las vanguardias históricas durante su estancia en la capital francesa, y su contacto con el poscubismo a partir de 1918, tras su reinserción en el panorama de renovación cultural madrileña, hace que en sus obras de esta época se mantenga el cromatismo vanguardista y la superposición de formas; una «figuración geométrica-constructiva», como la han denominado algunos especialistas.

La llegada de Vázquez Díaz a Portugal en 1922 se convierte en uno de los acontecimientos más importantes de la temporada artística portuguesa, exponiendo en Lisboa, Oporto y Coimbra. Además de entrar en contacto con el grupo de futuristas del país, el artista descubre el color y la luz local, que reflejará en su producción. De su estancia surgieron las series *Ventanas de Portugal* y *Escenas de Portugal*, obras de carácter muy luminista.

Este lienzo pertenece a la primera de las series mencionadas, de las que existen varias versiones muy similares entre sí, en las que, con la pecera en primer término, se vislumbra desde una ventana un horizonte de arquitecturas desnudas dispuestas de manera escalonada, casi piramidal, donde solo mantiene las palmeras. Cabe destacar que la inclusión de la ventana es algo recurrente en la trayectoria de Vázquez Díaz, bien como punto desde el que se establece la composición o como fondo de la misma, para conseguir así profundidad y contraste lumínico.

Los perfiles arquitectónicos, reducidos a la bidimensionalidad y cuyos vanos incluso se han suprimido, se plasman directamente en el paisaje y también a través del cristal de la pecera, convertidos en planos de color sintéticos, planteamiento que denota el influjo del cubismo. Es una representación urbana, desértica y melancólica, sin figuras humanas, en la que la luz es la principal protagonista. Los finísimos tonos fríos de la paleta azulada, que ya venía utilizando en sus paisajes vascos, dotan a la composición de una delicadeza y sensibilidad casi aérea. MSP

Vázquez Díaz erabakigarria izan zen euskal berrikuntza piktorikorako. Hari esker, tokiko artista gehienek lengoia berri bat eratu zuten, kubismoaren interpretazio pertsonalean oinarritua, artelan honetan ikusten dugun bezala. Hauxe pintore batek tradizioa eta modernitatea bateratzearen adibide argia da.

Artistak abangoardia historikoak ezagutu zituen Frantziako hiriburuko egonaldian eta, Madrilgo kultura-berrikuntzaren panoraman berriz sartu ondoren, harremana izan zuen 1918z ondoko poskubismoarekin. Ondorioz, garai horretako haren artelanetan kromatismo abangoardista eta formen gainjartzea aurkitzen dira; «figurazio geometriko-konstruktiboa» da, espezialista batzuek deitu izan dioten bezala.


Vázquez Díaz 1922an heldu zen Portugalera, eta herrialde horretako denboraldi artistikoko gertakari garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. Bada, Lisboan, Oporton eta Coimbran egin zituen erakusketak. Herrialdeko futuristen taldearekin harremanetan jartzeaz gain, artistak tokiko kolorea eta argia deskubritu zituen, eta hori bere sorkuntzetan islatu zuen. Haren egonalditik, *Portugalgo leihoak* eta *Portugalgo eszenak* serieak sortu ziren, oso artelan luministak.

Mihise hau aipatutako lehendabiziko serietakoa da, eta elkarrekin oso antzekoak diren hainbat bertsio ditu. Horietan, arrainontzia dago lehen planoan eta, leiho batetik, mailakatuta antolatuta diren arkitektura biluzien ostertz bat begizatzen da, ia piramide bat osatuz; bakarrik palmerak utzi ditu. Nabarmendu behar da leihoa behin eta berriz agertzen dela Vázquez Díazen ibilbidean, dela konposizioa ezartzeko abiapuntu gisa, dela haren atzealde gisa, sakonera eta argi-contrastea lortzeko.

Arkitektura-profilak, bi dimentsiotara murriztuak eta baoak kenduta, zuzenean gorpuztu dira paisaian, baita arrainontziko kristalean zehar ere, kolore sintonikoen plano bihurtuak, kubismoaren eragina erakusten duen planteamenduz. Hiri-irudikapen bat da, desertiko eta malenkoniatsua, giza irudirik gabea, eta argia du protagonista nagusi. Paleta urdinxka bere euskal paisaietan erabili zuen aurretik, eta paleta horretako tonu hotz oso meheek finezia eta sentikortasun oso arinez jantzi dute konposizioa. MSP

cat. 15 ***Ventana sobre Portugal, h. 1922-1923***  
*Leiho Portugal gainean, 1922-1923* inguru

Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean  
73,2 × 56 cm  
N.º inv. Inb. zk. P00162





## Daniel Vázquez Díaz

Nerva, Huelva, 1882 – Madrid Madrid, 1969

Vázquez Díaz jugó un papel fundamental en la introducción de las vanguardias en el País Vasco. Durante la mayor parte de su trayectoria realizó numerosos paisajes vistos desde una ventana, temática muy frecuente en la pintura francesa moderna, que conocía bien tras su larga estancia en París. De hecho, ya había llevado a cabo algunas vistas desde su ventana sobre el Bidasoa (1918), o en su serie *Ventanas de Portugal* (1922-1923), pero también las había incluido, con sus correspondientes paisajes, como fondo de sus composiciones de interiores; tal es el caso de *La muerte del torero* (1912), *Rubén Darío vestido de monje* (1914) o *Maternidad del barreño* (1921), entre otras.

En 1929-1930 Vázquez Díaz pintó en el convento de Santa María de La Rábida los murales del *Poema del Descubrimiento*. En principio, el artista había pensado finalizar estos frescos para la Exposición Iberoamericana de Sevilla, pero el proyecto se aprobó a mediados de julio y hasta el 12 de octubre no se iniciaron los trabajos preparatorios para acondicionar los muros, por lo que el conjunto no se acabó hasta un año después. En abril de 1930 comenzó la primera de las escenas, *El pensamiento del navegante*, en el que se representa el mismo paisaje de fondo que en este lienzo de la Colección BBVA.

La presente obra es una de las numerosas vistas de la desembocadura de los ríos Domingo y Odiel, con Punta Umbría a lo lejos y la fábrica de conservas en el centro, que el artista realizó desde una ventana del Mirador de los Frailes del monasterio de La Rábida. El arcoacentúa el carácter arquitectónico de la composición, cuyos elementos se convierten en formas geométricas. Del lienzo se desprende una especial armonía entre la estructura y el color, con predominio de los tonos fríos tan del gusto del pintor. MSP

Vázquez Díazek garrantzi berezia izan zuen Euskal Herrian abangoardiak sartzeko orduan. Bere ibilbidearen zati gehienean, leiho batetik ikusitako paisaia ugari egin zituen, eta gai hori oso ohikoa zen, hain zuzen, Frantziako pintura modernoan, Parisen luzaro egon ondoren berak ondo ezagutzen zuena. Izan ere, bere leihotik Bidasoa gaineko ikuspegi batzuk eginak zituen jada (1918), baita haren *Portugalgo leihoak* seriean ere (1922-23), baina barrualdeetako konposizioen atzealde gisa ere sartu zituen, egoki zituzten paisaiekin, hala nola *La muerte del torero* (1912), *Rubén Darío vestido de monje* (1914) edo *Maternidad del barreño* (1921), besteak beste.

1929-30ean, Vázquez Díazek Santa María La Rábidako komentuan *Poema del Descubrimiento* pintatu zuen. Hasiera batean, artistak pentsatu zuen fresko horiek Sevillako Iberoamerikar Erakusketarako bukatzea, baina egitasmoa uztailaren erdialdean onartu zen, eta urriaren 12 arte ez ziren hasi hormak egokitzeko prestaketa-lanak. Ondorioz, multzoa urtebete geroago bukatu ahal izan zen. 1930eko apirilean, lehen eszenari ekin zioten: *El pensamiento del navegante*; bertan, BBVA Bildumako mihise honetako paisaia berdina irudikatzen da.

Artelan hau Domingo eta Odiel ibaien bokalearen ikuspegi ugarietako bat da, urrunean Punta Umbría eta erdian kontserba-fábrica dituela. Bada, artistak Mirador de los Frailesko leiho batetik egin zuen, Rábidako monasterioan. Arkuak areagotu egin du konposizioaren arkitektura-moldea; izan ere, haren elementuak forma geometriko bihurtu ditu. Mihiseari egituraren eta kolorearen arteko harmonia dario, eta tonu hotzak nagusitzen dira, pintoreak hain gogoko zituen gero. MSP

cat. 16 **Ventana de La Rábida, h. 1929**  
*La Rábidako leihoa, 1929* inguru

Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean  
68,8 × 59,8 cm  
N.º inv. Inb. zk. P01192





## Gaspar Montes Iturrioz

Irún Irun, 1901 – 1998

Montes Iturrioz es considerado uno de los más fieles seguidores de Daniel Vázquez Díaz (1882-1969), como podemos ver en la estética depurada y constructiva que caracteriza este lienzo. Aunque comenzó sus estudios en Irún junto al escultor Julio Echeandía (1872-1943), pronto se trasladó a Madrid, donde fue discípulo de José María López Mezquita (1883-1954) y Fernando Álvarez de Sotomayor (1875-1960). Tras su estancia en París, y breves viajes por Europa, se dedicó con intensidad a la enseñanza pictórica.

Sus obras nos muestran fundamentalmente vistas del estuario del Bidasoa y del valle de Baztán. Junto con Darío de Regoyos (1857-1913), Daniel Vázquez Díaz y José Salís Camino (1863-1927), formó parte de la Escuela del Bidasoa, grupo de artistas que, desde una postura liberal nacionalista, sienten la necesidad de dar a conocer los parajes vírgenes del País Vasco.

Este paisaje representa la bahía de Txingudi, formada por el río Bidasoa entre las localidades de Fuenterrabía, Irún y Hendaya. Se aprecia la influencia de Paul Cézanne (1839-1906) en su configuración formal, influjo que nace a raíz de su estancia en París en 1924. A su vez, su estilo se fundamenta en un fauvismo mesurado de aspecto naturalista, con un estudio cromático muy moderno a la vez que equilibrado, que transmite al espectador una sensación de serenidad y calma, e incluso de cierta melancolía. Iturrioz prefería salir a pintar al aire libre, y era cuidadoso a la hora de elegir el momento del día, eligiendo la suave y tamizada luz del amanecer o del atardecer para sus composiciones, afirmando que «el sol destruye muchas veces las cosas». MSP

Montes Iturrioz Daniel Vázquez Díazen jarraitzaile zintzoenetako bat da (1882-1969), mihise honek bereizgarri duen estetika depuratu eta konstruktiboan erakusten den bezala. Julio Echeandía eskultorearekin batera ikasketak Irunen hasi bazituen ere, luze gabe lekualdatu zen Madrilerara, eta han José María López Mezquitaren (1883-1954) eta Fernando Álvarez de Sotomayorren (1875-1960) dizipulua izan zen. Parisen egonaldia egin eta Europan barrena labur bidaiatu ondoren, tinko aritu zen irakaskuntza piktorikoan.

Haren artelanek Bidasoaren estuarioko eta Baztan haraneko ikuspegiak erakusten dituzte batez ere. Darío de Regoyos (1857-1913), Daniel Vázquez Díaz eta José Salís Caminorekin (1863-1927) batera, Bidasoko Eskolako partaide izan zen. Talde horretako artistek, jarrera liberal euskal nazionalista batetik, Euskal Herriko paraje garbien berri ezagutzera emateko premia sentitzen zuten.

Paisaia honetan, Txingudiko badia irudikatzen da, Hondarribi, Irun eta Hendaya herrien arteko Bidasoa ibaiak osatua. Argi ikusten da Paul Cézanneren (1839-1906) eragina konfigurazio formalean, eta influentzia hori Pariseko 1924ko egonaldian jaso zuen. Aldi berean, estiloz itxura naturalistako fauvismo neurritsuan oinarritzen da, estudio kromatiko oso moderno batez, baita orekatuaz ere; ikusleari sosegu- eta lasaitasun-sentsazio bat helarazten dio, eta are, nolabaiteko malenkonia ere. Iturriozek nahiago zuen aire zabalean pintatu, eta asko zaintzen zuen eguneko zein une aukeratu, goiznabarreko edo ilunabarreko argi suabe eta iragazia hautatuz bere konposizioetarako; izan ere, haren esanetan, «eguzkiak, askotan, gauzak suntsitzen ditu». MSP

cat. 17 Bahía de Txingudi, 1950

Txingudi badia

Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean

55 × 65 cm

N.º inv. Inb. zk. 1622





## Menchu Gal

Irún Irun, 1919 – San Sebastián Donostia, 2008

La pintura de paisaje es el principal género cultivado por Menchu Gal. Esta temática domina su extensa producción, que, para la fecha de ejecución de esta obra —inicios de los años setenta—, cuenta ya con un notable reconocimiento y un destacado éxito comercial, exponiendo con frecuencia en museos y galerías.

Junto a la representación de Castilla, y a pesar de haber fijado su residencia en Madrid en 1946, encontramos en su trabajo numerosos paisajes del norte, que recogen distintos escenarios con sus cambios de luz y de condiciones meteorológicas. Gal viaja asiduamente a su ciudad natal, manteniendo una vinculación con la Escuela del Bidasoa, aglutinada en torno a su primer maestro, Gaspar Montes Iturrioz (1901-1998). Este contacto favorecerá su acercamiento a Daniel Vázquez Díaz (1882-1969), que además había sido su profesor en la Academia de Bellas Artes de San Fernando, y con ello la transición hacia un estilo con mayor tendencia a la abstracción.

La imagen del puerto, tan recurrente en la pintura vasca, aparecerá reiteradamente en sus cuadros. En esta pieza contemplamos el de San Sebastián, en una representación que cuenta con la factura propia de una artista experimentada, que sintetiza y resuelve composiciones con gran agilidad y rapidez. Siempre que las dimensiones del cuadro lo permiten, Gal realiza sus paisajes *in situ*, finalizándolos posteriormente en el taller, donde lleva a cabo las modificaciones precisas. Habitualmente emplea un punto de vista frontal (por

Paisaia-pintura da Menchu Galek landutako genero nagusia. Gai honek menderatzen du bere sorkuntza-lan zabala, eta obra hau egin zuen datarako —1970eko hamarkadaren hasiera— ospe handia eta arrakasta komertzial nabarmena lortua zuen; izan ere, garai hartan erakusketa ugari izaten zituen museo eta galerietan.

Gaztelako irudiekin batera, 1946an Madrilén bizitzen jarri bazen ere, iparraldeko paisaia ugari aurkitzen ditugu bere lanean, agertoki desberdinak biltzen dituztenak berezkoak dituzten argi eta eguraldi aldaketekin. Gal sarritan joaten zen bere jaioterrira, eta mantendu egiten zuen bere lehenengo maisu Gaspar Montes Iturriozen (1901-1998) inguruan eratutako Bidasoako Eskolarekin zuen lotura. Hala, harreman horrek ahalbidetu zion Daniel Vázquez Díazengana (1882-1969) hurbiltzea —bere irakasle izandakoa Arte Ederren San Fernando Akademian— eta abstrakzioarako joera handiagoko estilo bat lantzeari ekitea.

Portuaren irudia, euskal pinturan hain ohikoa, behin eta berriz agertuko da bere koadroetan. Lan honetan Donostiakoa ikusten dugu, eta esperientzia handiko artista batek irudikatua dela antzeman daiteke, konposizioak bizitasun eta bizkortasun handiz sintetizatu eta ebatzen dakien batek, alegia. Koadroaren neurriek ahalbidetzen dioten guztietan, Galek *in situ* egiten ditu bere paisaiak eta ondoren tailerrean amaitzen ditu beharrezko aldaketak eginda. Normalean aurrez aurreko ikuspuntua erabiltzen du (nahiko goratua orokorrean) eta sakontasun-sentsazioa sortzea saihesten du. Horrela, oso multzo eskematikoa

cat. 18

## Puerto de San Sebastián, h. 1970

Donostiako portua, 1970 inguru

Óleo sobre tablex Olio-pintura taula gainean

50 × 65,5 cm

N.º inv. Inb. zk. P01569







lo general algo elevado), evitando crear sensación de profundidad y logrando un conjunto muy esquemático que se construye a través de la yuxtaposición de manchas de color.

Esta obra es un claro ejemplo del estilo correspondiente a ese momento, que abre una nueva etapa en la que su producción va desprendiéndose de la rigidez geométrica y la oscuridad anteriores, dando lugar a una práctica más vitalista y rica en texturas y matices. En ella combina zonas donde utiliza el óleo más diluido con otras más empastadas para los objetos a resaltar. Alterna dirección y longitud de la pincelada, reserva el uso de la geometría para los elementos arquitectónicos y selecciona tonalidades rojas, azules y verdes —por lo general predominantes y a menudo aplicadas sin mezcla—, otorgando a la escena una apariencia limpia, luminosa y brillante. A lo largo de esta década, la expresión del color irá cobrando un mayor protagonismo en sus creaciones y ya en los ochenta consolida la calificación de su lenguaje como «expresionismo fauvista». HRG

lortzen du, kolore-orbanak elkarren ondoan ezarriz eraikitzen dena.

Obra hau une hartako bere estiloaren adibide argi bat da; garai berri baten hasiera adierazten du, non bere ekoizpena aurreko zurruntasun geometrikotik eta iluntasunetik askatu, eta testuretan eta ñabarduretan joria den praktika biziago bati egiten dion bidea. Bertan, konbinatu egiten ditu olio diluituagoa erabiltzen duen eremuak eta empastatuagoak diren beste batzuk, objektuak nabarmentzeko helburuz. Pintzelkadaren norabidea eta luzera txandakatzen ditu, elementu arkitektonikoetarako soilik baliatzen da geometriaz, eta tonalitate gorriak, urdinak eta berdeak aukeratzen ditu —normalean nagusi direnak eta sarritan nahastu gabe aplikatuak— eszenari itxura aratza, argia eta distiratsua emanez. Hamarkada horretan zehar, kolorearen adierazkortasunak gero eta protagonismo handiagoa hartuko du bere sorkuntzalanetan eta, 1980ko hamarkadan sartuta, irmotu egiten da «expresionismo fauvista» kalifikazioa bere hizkuntza aipatzen denean. HRG



## José María Ucelay Uriarte

Bermeo, Vizcaya Bizkaia, 1903 – Bilbao Bilbo, 1979

José María Ucelay jugó un papel fundamental en el panorama artístico español del siglo XX, y principalmente en la pintura figurativa vasca. Conocedor de las corrientes renovadoras del arte internacional, su producción denota la influencia del realismo mágico y la pintura metafísica del periodo de entreguerras, para centrarse en la representación de paisajes y personajes del País Vasco.

Este lienzo, que el pintor presenta en la Bienal de Venecia de 1956, se considera una de las piezas más significativas de su trayectoria. En él podemos apreciar su estilo más representativo, caracterizado por un naturalismo intimista en el que destacan la minuciosidad técnica, que parece evocar la tipología arábica, y la importancia de la luz, que potencia la gama cromática.

La obra representa un paisaje típicamente vasco: al fondo las estribaciones de una montaña iluminadas con luz crepuscular; en escena, un numeroso grupo de *dantzariak* (bailarines) del Ballet Olaeta disfrutando de una animada tarde al aire libre bajo la atenta mirada de varios espectadores. En la lejanía, algunos de ellos bailan, con el *enseñaria* dirigiendo la danza. En primer plano, varios descansan sentados; entre ellos se distinguen, de izquierda a derecha: el *txerrero*, que contempla el desarrollo de la acción; el *gathusain*, que, sentado en un banco corrido, sujeta un instrumento de madera en forma de tijera; la *kantinierra*, recostada en el suelo y ataviada al estilo francés del siglo XIX;

José María Ucelayk funtsezko rola jokatu zuen Espainiako XX. mendeko panorama artistikoan, batez ere euskal pintura figuratiboan. Ezagutzen ditu nazioarteko artearen joera berritzaileak, eta haren sorkuntzak erakusten du gerra arteko aldiko errealismo magikoaren eta pintura metafisikoaren eragina duela, eta Euskal Herriko paisaiak eta pertsonaiak irudikatzen bildu zen.

Pintoreak mihise hau aurkeztu zuen 1956ko Veneziako Bienalean, eta haren ibilbideko artelan garrantzitsuenetakotzat jotzen da. Bertan, bere estilo adierazgarriena antzeman dezakegu, naturalismo intimista bat ezaugarri duena. Nabarmentzekoak dira zorroztasun teknikoa, tipologia arabiarra gogora ekartzen duena, eta argiaren garrantzia, gama kromatikoa sendotzen duena.

La viveza de su trabajo es consecuencia de su peculiar proceso creativo, a través del cual se va desvelando progresivamente el conjunto. Bonifacio no comenzaba a pintar sobre el lienzo en blanco: una vez preparado este en el estudio, el autor salpicaba y manchaba la tela con cualquier sustancia que encontrase a mano. Tras varios días de reposo lo recuperaba y copiaba sobre él, con carboncillo, algún dibujo realizado previamente. Sobre esta base aplicaba libremente el color en todas direcciones, resultando una composición de gran expresividad, como bien muestra *Triángulo azul*.

Esta pieza pertenece a la etapa de mayor éxito de su carrera, finales de los años setenta. La obra es un excelente ejemplo de su pintura activa, más aérea y luminosa, en la que todos los elementos —figuras, signos y triángulos— flotan libremente en un espacio abierto, dominado por los colores claros, transparentes, en los que resultan evidentes los ecos de la naturaleza. EYM

Haren lanaren bizitasuna sorkuntza-prozesu berezi baten ondorioa da, non osotasuna pixkanaka joaten baita argitzen. Bonifacio ez zen mihise zuri baten gainean pintatzen hasten: mihisea estudioan prestatutakoan, autoreak oihala ziprztintzen eta zikintzen zuen, eskueran zuen edozein substantziatz. Hainbat egun geldirik utzi ondoren, berriro heltzen zion lanari, eta haren gainean lehenago egindako marrazkiren bat kopiatzen zuen ikatz-ziriz. Oinarri horri kolorea askatasunez aplikatzen zion norabide guztietan eta, ondorioz, adierazkortasun handiko konposizioa sortzen zen, *Triangelu urdinak* ondo erakusten duen bezala.

Artelan hau egin zuen etapan lortu zuen Bonifaciok bere ibilbideko arrakasta handiena, hirurogeita hamarrekota urteen amaieran. Artelan hau haren pintura aktiboaren, airetsu eta argitsuagoaren eredu bikaina da: bertan, elementu guztiek —figurek, ikurrek eta triangeluek— aske flotatzen dute espazio irekian, eta kolore argiak, gardenak, nagusitzen dira; haietan, argi eta garbi bereizten dira naturaren oihartzunak. EYM



Ortiz de Elgea, reconocido artista del Movimiento de la Escuela Vasca, se caracteriza por la continua evolución y experimentación; su pintura, de raíces expresionistas, se balancea en el límite entre la abstracción y la figuración. Enraizada en el paisaje, su producción atraviesa diversas etapas, enriqueciéndose a lo largo del camino gracias a la influencia de las distintas tendencias de vanguardia que confluyen para formar un estilo plenamente personal e inconformista, en constante progreso y transformación.

Esta obra pone de manifiesto el giro que experimenta su creación a comienzos de los años setenta. La figura, eje de la etapa inmediatamente anterior, va desapareciendo y cede el protagonismo al propio lenguaje pictórico: la interacción de los colores, la ordenación de las formas y sus relaciones compositivas. Este cambio en su trayectoria recibe una buena acogida cuando presenta su segunda exposición en Madrid, en la Galería Kreisler Dos, en 1975.

Al mismo tiempo, en esta pieza podemos observar cómo el espacio se organiza en torno a dos grandes masas cromáticas horizontales: una de color tierra oscuro en la parte superior y otra ocre en la inferior; sobre ellas se imbrican otras áreas de tonalidades diferentes, dejando respirar ese fondo en algunas zonas. A la vez que mantiene ciertos toques de los colores vivos habituales en la época anterior, como los amarillos y azules, incluye tonos terrosos, grises y negros, colores «sordos, más metidos para dentro», que le permiten conectar con la tierra, con el paisaje, germen de su pintura: «siempre con la naturaleza enseñándome a pintar», según afirma el artista. EYM

Ortiz de Elgea Euskal Eskola Mugimenduko artista ezaguna da, eta etengabeko bilakaera eta esperimentazioa ditu ezaugarri; haren pinturak sustrai espresionistak ditu, eta abstrakzioaren eta figurazioaren arteko mugan kulunkatzen da. Paisaian sustraitua, haren sorkuntzak askotariko etapak zeharkatu ditu, eta aberasten joan da, bere bidean jaso duen askotariko abangoardien eraginari esker. Eragin horiek bateratzen joan dira estilo osoki pertsonal eta inkonformista eratu arte, etengabeko bilakaeran eta eraldaketan.

Artelan honek hirurogeita hamarreko urteen hasieran haren sorkuntzak izan zuen aldaketa handia erakusten du. Irudia zen horren justu aurreko etapako ardatza, baina hori desagertuz joan zen, eta hizkuntza piktorikoari hasi zitzaion bidea uzten: koloreen arteko interakzioa, formen antolamendua eta formek konposizioan elkarrekin dituzten erlazioak. Aldiz, bere ibilbidean harrera ona izan zuen Madrilén bigarren erakusketa aurkeztu zuenean, Kreisler Dos Galerian, 1975ean.

Aldi berean, artelan honetan ikus dezakegu espazioa bi masa kromatiko horizontal handiren inguruan antolatzen dela: bata lur ilun kolorekoa da goiko aldean, eta beste bat okrea behekoan; horien gainean, beste tonalitate desberdin batzuk teilakatzen dira, eta gune batzuetan hondo hari arnasa hartzen uzten dio. Ohiko kolore bizien zenbait ukitu uzten dituen bezala, hala nola horiak eta urdinak, baditu ere lur-antzeko tonuak, grisak eta beltzak, kolore «gorrak, barnealdera sartuagoak», eta lurrarekin, paisaiarekin konektatzeko modua ematen diote, hori baita haren pinturaren ernamuina: «beti natura dut aldean niri pintatzen irakasteko», artistak adierazi duen bezala. EYM





## José Luis Zumeta

Usúrbil, Guipúzcoa Usurbil, Gipuzkoa, 1939 – San Sebastián Donostia, 2020

José Luis Zumeta comienza a cultivar la abstracción en la década de los sesenta, tras un fértil viaje a París (1959) que le descubrirá, junto al trabajo de autores como Karel Appel (1921-2006), Willem de Kooning (1904-1997) o el Grupo CoBrA, las posibilidades expresivas del color: «Para mí el color es el pilar básico para continuar con una pintura. El color es emoción, y a través de las emociones se crea una energía que da sentido a todas las cosas. La forma se adquiere gracias a los colores». A su regreso a España un año más tarde, se integra en el grupo de artistas que estaban tratando de conectar el panorama español con las corrientes vanguardistas internacionales, y se convierte en vehículo de difusión del expresionismo abstracto en un contexto en el que la creación propia del País Vasco se había identificado con la sobriedad y la solemnidad. En este sentido se encuentra su participación en el Movimiento de la Escuela Vasca a través de su adhesión a la sección guipuzcoana, el Grupo Gaur.

En la extensa y ambigua producción de Zumeta encontramos una magistral combinación de naturaleza y geometría, que en este periodo de juventud se inclina más hacia la presencia de lo orgánico. Piezas como esta abren una nueva etapa en su trayectoria a principios de la década de los setenta, coincidiendo con un momento de mayor popularidad y valoración de la pintura abstracta en la escena nacional, lo que contribuye a hacer prosperar al artista.

José Luis Zumeta 1960ko hamarkadan hasi zen abstrakzioa lantzen, Parisera egindako bidaia emankor baten ondoren (1959). Bidaia horretan, Karel Appel (1921-2006), Willem De Kooning (1904-1997) eta CoBrA taldearen lanekin batera, kolorea adierazteko aukerak aurkitu zituen: «Niretzat kolorea da pintura batekin jarraitzeko oinarritzko zutabea. Kolorea emozioa da, eta emozioen bidez gauza guztiei zentzua ematen dien energia sortzen da. Forma koloreei esker hartzen da». Urtebete geroago Espainiara itzuli zenean, bertako panorama nazioarteko korrante abangoardistekin lotzen saiatzen ari ziren artisten taldean sartu zen, eta espresionismo abstraktua hedatzeko bitarteko bihurtu zen, Euskal Herriko sorkuntza propioa soiltasunarekin eta solemnitarekin identifikatuta zegoen testuinguru batean. Ildo horri jarraituta Euskal Eskolaren mugimenduan parte hartu zuen, Gaur Taldeko kide gisa Gipuzkoako atalean.

Zumetaren ekoizpen zabal eta anbiguoan naturaren eta geometriaren konbinazio magistral bat aurkitzen dugu, gaztaroko aldi hartan organikoaren presentziara gehiago jotzen zuena. Hau bezalako piezek aro berri bat ireki zuten bere ibilbidean 1970eko hamarkadaren hasieran, eszena nazionalean pintura abstraktuak ospe eta balioespen handiagoa lortu zuen aldi batekin bat eginez; izan ere, horrek lagundu zion artistari aurrera egiten.

Zurez planteatutako erliebe sail batek, zeinetan forma nahasiak eta tonalitate biziak agertzen diren,

cat. 31 *Sin título, h. 1970*

*Titulurik gabea, 1970 inguru*

Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean

100 × 81 cm

N.º inv. Inb. zk. P00906







Una serie de relieves planteados en madera, en los que ya aparecen las formas laberínticas y las tonalidades intensas, dará paso pronto a lienzos como el que aquí nos ocupa. Frente a la escultura, el traslado de sus composiciones a las dos dimensiones le permitirá una mayor libertad y flexibilidad para elaborar estas configuraciones enmarañadas y complejas que se entrelazan en un fondo verde.

Su obra se caracteriza por su naturalidad e inmediatez, una «pintura de acción» que realiza de manera directa y sin premeditación o artificio. Dispone sobre la superficie las manchas de óleo —durante estos años frecuentemente brillantes y saturadas— para posteriormente trazar con pincel una serie de líneas negras muy gestuales que delimitan un sinnúmero de inclasificables figuras imaginadas. Fiel defensor del expresionismo, desarrolla una actividad marcadamente visceral, guiada por la intuición y especialmente vinculada a sus estados de ánimo. HRG

laster emango die bidea hemen aztergai duguna bezalako mihiseei. Eskulturaren aurrean, konposizioak bi dimentsioetara eramateak askatasun eta moldakortasun handiagoa emango dio hondo berde batean elkartzen diren konfigurazio mardul eta konplexu hauek lantzeko.

Naturaltasuna eta berehalakotasuna dira bere obraren ezaugarri nagusia; «ekintza-pintura», zuzenean eta aurrez pentsatu gabe edo artifiziorik gabe egiten duena. Gainazalean olio-pintura orbanak prestatzen ditu —urte horietan distiratsuak eta saturatuak sarritan— eta ondoren oso gestualak diren lerro beltz batzuk marrazten ditu pintzelaz, imajinatutako irudi sailkaezin pilo bat zedarritzen dituztenak. Espresionismoaren defendatzaile leiala, Zumetak garatutako jarduera erraietakoa da nabarmenki, intuizioak gidatua eta bere gogo-aldarteei bereziki lotua. HRG



Inicialmente influenciado por la figuración derivada del *Pop Art* y por el trabajo de artistas contemporáneos como Luis Gordillo (1934), Daniel Tamayo ha desarrollado a lo largo de su carrera un lenguaje absolutamente personal e inimitable, a través del que propone la construcción de una nueva identidad del paisaje vasco posindustrial.

Su trabajo se alimenta de fuentes visuales muy dispares, que van desde recuerdos de su infancia (payasos, dibujos animados y cómics) hasta imágenes tomadas de la vida cotidiana. La combinación de todas estas referencias, que integran su imaginario personal, tiene como resultado un conjunto de obras de gran energía compositiva y cromática, en las que los múltiples elementos dialogan entre sí en un contexto surrealista y fantástico.

En el proceso creativo y de construcción de cada una de las piezas, es fundamental el dibujo como origen de la representación. Tamayo compone cada una de sus obras partiendo de una selección previa de iconografía procedente de diversas fuentes (fotografías, reproducciones digitales, juguetes, escenas de cómics, etc.). Estas imágenes, cuidadosamente ensambladas, son perfiladas a lápiz, configurando el boceto que será posteriormente trasladado a la base del lienzo. Tras esta meticulosa fase, el artista se dispone a aplicar el color: un color vibrante, puro y enérgico, que baña por completo la superficie pictórica.

A partir de los años ochenta, su producción muestra un especial interés por los aspectos tridimensionales y volumétricos de la pintura. Es algo que se pone de manifiesto en esta pieza de la Colección BBVA, en la que, en un escenario rebosante de una naturaleza

Hasiera batean, Daniel Tamayo *Pop Art*etik eratorritako figurazioaren eta artista garaikideen eraginpean izan zen, adibidez, Luis Gordilloren (1934) eraginpean, eta bere ibilbide osoan lengoia oso pertsonala eta imitaezina garatu du; haren bidez, proposatzen du euskal paisaia postindustrialaren identitate berri bat eraikitzea.

Haren lanak oso askotariko ikusizko iturrietatik edaten du, hasi bere haurtzaroko oroitzapenetatik (pailazoak, marrazki bizidunak eta komikiak) eta eguneroko bizitzatik hartutako irudietaraino. Bere iruditeria pertsonala osatzen duten erreferentzia horien guztien konbinazioaren emaitza artelanen multzo bat da, konposizioz eta kromatikoki energia handikoa. Bertan, askotariko elementuak dialogoan dira elkarrekin, testuinguru surrealista eta fantastikoa.

Artelan bakoitzaren sorkuntza- eta eraikuntza-prozesuan, marrazkia funtsezkoa da irudikapenerako sorburu gisa. Tamayok askotariko iturrietatik datorren ikonografia batetik alde aurretik aukeratuz osatzen du bere artelan bakoitza (argazkiak, erreproduzio digitalak, jostailuak, komiki-eszenak, etab.). Irudi horiek, arreta handiz mihizatuak, arkatzez nabarmentzen dira eta, hartara, gero mihisearen oinarria eramango den bozetoa diseinatzen da. Fase arretatsu horren ostean, artistak kolorea aplikatzen du: kolore bizi, garbi eta kementsua, eta gainazal piktorikoa osoki igurzten du harekin.

Laurogeiko urteetatik aurrera, haren sorkuntzak erakusten duenez, interes berezia du pinturaren hiru dimentsioko eta bolumetriako alderdiekin. Hori agerian geratzen da BBVA Bildumako artelan honetan. Bertan,







que asume formas geométricas, el pintor recrea el santuario de San Miguel de Aralar (Navarra). Y lo hace de un modo muy particular: el conjunto arquitectónico se ha reducido a volúmenes, generando un interesante efecto de tridimensionalidad y una sensación de espacialidad que acerca la obra al espectador. Alrededor del templo, coronado por una cruz que revela el carácter sacro de la construcción, y en un ambiente abigarrado, se distinguen algunos personajes, como la figura de Eva cogiendo la manzana, en la parte inferior central. Además, incluye elementos procedentes del mundo de la imaginación, creando un universo fantástico, que parece estar en constante movimiento. La composición recuerda, por sus colores puros y por el aparente desorden, al *Jardín de las delicias* del Bosco (h. 1450-1516), cuadro que había causado una gran impresión en su visita al Museo del Prado en 1966.

*Aralar* es un interesante ejemplo del particular lenguaje plástico de Daniel Tamayo, el cual, a través de una iconografía onírica basada en la acumulación y combinación de componentes de la naturaleza junto a otros nacidos de su imaginación, propone una nueva lectura de la sociedad contemporánea y del paisaje vasco posindustrial. EYM

forma geométrikozen gauzatu duen naturaren erdiko eszenategi batean, pintoreak Done Mikel Aralarkoa santutegia (Nafarroa) birsortu du. Eta modu oso berezian egin du: arkitektura-multzoa bolumenetara murriztu du. Hartara, hiru dimentsioko efektu interesgarri bat sortu du, eta artelana ikusleari hurbiltzen dion espezialtasun-sentsazio bat. Eliza gurutze batek koroatzen du, eraikina sakratua dela erakutsiz; eraikinaren inguruan, berriz, giro nabar batez, pertsonaia batzuk bereizten dira, hala nola sagarra hartzen duen Evaren giza irudia, erdialdeko beheko aldean. Gainera, irudimenaren mundutik datozen elementuak sartu ditu, unibertso fantastiko bat sortuz, etengabe mugitzen dela irudiena. Konposizioak, kolore garbiak eta itxurazko anabasa direla tarteko, *Gozamenen Lorategia* ekartzen du gogora, Jeronimo Boschena (1450 inguru-1516); izan ere, koadro horrek txunditurik utzi zuen Tamayo, 1966an Prado Museora egin zuen bisitan.

*Aralar* Daniel Tamayoren lengoia plastiko bereziaren adibide interesgarria da. Bada, Tamayok, naturako eta bere irudimenenean sortutako osagaien metaketan eta konbinazioan oinarritutako ikonografiaren bitartez, egungo gizartearen eta euskal paisaia postindustrialaren irakurketa berri bat proposatzen du. EYM



Darío Villalba es considerado un auténtico pionero en el campo de la fotografía y del arte del siglo XX. Su figura es difícil de encajar en un único movimiento artístico, ya que, a lo largo de su trayectoria, tantea diversas corrientes, no terminando de adscribirse a ninguna de ellas. Heredero del informalismo español, el *Pop Art* y el arte conceptual, en los inicios de su carrera su trabajo explora los principios del expresionismo, que conoce en su periodo como estudiante en la Universidad de Harvard. Durante su estancia en Estados Unidos se acerca al *Pop Art*, al utilizar la fotografía como principal medio de expresión. Sin embargo, pronto se desvincula de este movimiento, dando a esta práctica una nueva dimensión. Lejos de poner el centro de atención en el objeto de consumo, tan característico del *Pop Art*, se aproxima al ser humano con la intención de profundizar y leer el alma de los individuos, preocupándose muy especialmente por aquellos personajes aislados, olvidados y, de algún modo, expulsados de la sociedad. A través de su producción, les da voz y protagonismo, haciéndonos reflexionar sobre la vida, la enfermedad, la soledad y la muerte de una manera absolutamente poética e inspiradora.

La fotografía de Villalba habla de pintura; pintura que, a la vez, es fotografía. Desde que en los años setenta empezara a explorar los límites comunicativos de esta práctica, el artista no recurre a la instantánea con un objetivo documental, sino como medio expresivo para contar una historia y revelar un mensaje. A través de la alteración con óleo, lápiz y barniz, sus fotografías adquieren un nuevo significado, que va más allá de la representación, obteniendo un acentuado sentido pictórico. A pesar de que los temas que aborda son

Darío Villalba benetako aitzindaria da argazkilaritzaren arloan eta XX. mendeko artean. Zaila da bera arte-mugimendu jakin batean sailkatzea; izan ere, haren ibilbidean, askotariko joeretan sartu du muturra, eta ez da heldu bakar batean egotera ere. Espainiar informalismoa, *Pop Arta* eta arte kontzeptuala izan ditu iturri nagusi. Bere ibilbidearen hastapenetan, espresionismoaren printzipioetan miatu zuen, espresionismoa Harvardeko Unibertsitatean ikasle zebilela ezagutu baitzuen. Estatu Batuetako bere egonaldian *Pop Artera* hurbildu zen, argazkilaritzaz baliatzean adierazpide nagusi gisa. Hala ere, mugimendu horretatik laster aldendu eta dimentsio berri bat eman zion praktika horri. Arreta kontsumo-gaian jarri ordez, *Pop Artak* hain berezko zuen bezala, gizakira hurbildu zen, gizabanakoen ariman sakondu eta hura irakurtzeko asmoz, oso bereziki kezkatuz galdurik, ahazturik eta, nolabait ere, gizartetik kanporatuak izan diren pertsonaiekin. Haren sorkuntzaren bitartez, ahotsa eta protagonismoa ematen die, eta bizitzari, gaitzari, bakardadeari eta heriotzari buruzko gogoetara eramaten gaitu, modu guztiz poetiko eta inspiratzailean.

Villalbare argazkilaritzak pinturaz hitz egiten digu; eta pintura, aldi berean, argazkilaritza da. Hirurogeita hamarreko urteetan praktika honen komunikazio-mugak esploratzen hasi zenetik, artistak ez zituen argazkiak ateratzen helburu dokumental batez; aldiz, bitarteko adierazkor bat dira istorio bat kontatzeko eta mezu bat helarazteko. Olioaren, arkatzaren eta bernizaren bitartez aldatetako eginez, haren argazkiek beste esanahi bat hartzen dute, irudikapena gaindituz eta zentzu piktoriko areagotu bat lortuz. Lantzen dituen





profundamente dolorosos, el tratamiento que hace de las imágenes genera un conjunto de obras de una impecable belleza, armonía y pureza.

Esta original pieza de la Colección BBVA sintetiza las investigaciones plásticas que han obsesionado a Villalba a lo largo de su trayectoria. Lejos de seguir un camino puramente cronológico y progresivo, su trabajo regresa constantemente a técnicas y a procedimientos anteriores, así como a imágenes ya utilizadas, con las que logra un resultado absolutamente innovador.

Se trata de un encargo del Banco Exterior de España para la muestra *Otros Abanicos*, que se celebró en 1985 en la sede madrileña del banco. La exposición era una reflexión en torno a este objeto de larga tradición en la artesanía española. Para ello, se encargó a un grupo de artistas realizar una obra cuyo soporte fuese este histórico elemento, bien siguiendo la forma del abanico tradicional español, bien la del paipái japonés. Entre los artistas que participaron en el proyecto destacan José Manuel Broto (1949), Carmen Calvo (1950), Luis Gordillo (1934), Eva Lootz (1940) y Soledad Sevilla (1944). Además, los objetos fueron acompañados por textos de escritores como Camilo José Cela, Antonio Gala y Ángel González, entre otros.

La propuesta de Darío Villalba parte de una práctica que comienza a explorar a partir de 1982: el *collage*. Esta técnica será fundamental en su producción, pues su creación conlleva, por primera vez, la aparición de una forma de trabajar puramente automática, en la que predomina la acción totalmente libre de la mano frente a la deliberada reflexión de la mente. En sus *collages*, recoge todo tipo de materiales, que funde de manera automática sobre el soporte. *Paipái de abrigos y perros* es un magnífico ejemplo de esta investigación. Realizada en 1985, emplea

gaiak biziki mingarriak diren arren, irudiekin egiten duen tratamenduari esker, edertasun, harmonia eta purutasun bikaineko artelanen sorta bat sortzen du.

BBVA Bildumako jatorrizko artelan honek ondo laburbiltzen ditu Villalbak bere ibilbidean obsesio izan dituen ikerketa plastikoak. Bide huts-hutsean kronologikotik eta mailakatutik jarraitu ordez, haren lana etengabe itzultzen da aurreko tekniketara eta prozeduretara, baita jada erabilitako irudietara ere, eta era horretan emaitza guztiz berritzailea lortzen du.

Spainiako Banco Exteriorren mandatuz egin zen *Otros Abanicos* erakusketarako, 1985ean Bankuaren Madrilgo egoitzan egin zena. Erakusketa haizetakoaren inguruko gogoeta izan zen, espainiar artisautzan tradizio luzeko gauzakia. Horretarako, artista talde bati mandatua eman zitzaion artelan bat egiteko, baina haren euskarria elementu historiko hau izango zen, hala haizetako tradizional espainiar horren nola paipai japoniarraren formari lotuz. Proiektuan parte hartu zuten artisten artean, José Manuel Broto (1949), Carmen Calvo (1950), Luis Gordillo (1934), Eva Lootz (1940) eta Soledad Sevilla (1944) nabarmentzen dira. Gainera, objektuek idazleen testuak zituzten aldamenean, hauexenak, hain zuzen: Camilo José Cela, Antonio Gala eta Ángel González, besteak beste.

Darío Villalbaren proposamenaren abiapuntua 1982tik aurrera esploratzen hasi zen praktika bat da: collagea. Teknika hori funtsezkoa izan da haren sorkuntzan; izan ere, haren sorkuntzan, lehen aldiz, lan egiteko modu huts-hutsean automata agertuko da. Bertan, eskuaren ekinga askea gailentzen da guztiz, eta ez adimenaren berariazko gogoeta. Haren collageetan, era guztietako materialak biltzen ditu, eta era automatikoan bateratzen ditu euskarriaren gainean. *Berokien eta txakurren paipaia* ikerketa horren adibide bikaina da. 1985ean egina,

como soporte un paipái de grandes dimensiones, sobre el cual pega papeles pintados, telas y fotografías procedentes de su archivo visual —y ya utilizadas en obras anteriores: la instantánea del perro se distingue también en unos *Encapsulados* de su primera etapa titulados *Perros* (1974), en *Perro doble* (1979) y en el *collage Perro andaluz malva* de 1984, entre otras—. Lo mismo sucede con las imágenes de los abrigos, que aportan un interesante efecto de tridimensionalidad a la composición. Estas tienen su origen en una fotografía que el artista lleva a cabo en 1964 en Hyde Park (Londres) a una mujer tomando el sol cubierta por su abrigo. Al igual que ocurría con las figuras de los perros, la del abrigo formará parte de varios *collages* de 1984, como *Dos abrigos*, *Síntesis* y *Melo*. Esta interesante técnica muestra cómo el artista recurre reiteradamente a las mismas fuentes, que descontextualiza por completo en cada caso, dotándolas de un nuevo significado y convirtiéndolas en iconos plenamente autónomos. De este modo, su trabajo deviene un continuo transformar y manipular, un constante viaje al pasado y una incursión en el futuro en busca de nuevas referencias e inspiraciones.

*Paipái de abrigos y perros* es una pintura realizada sin pintar, que evidencia la fascinación de Villalba por la potencia visual de las imágenes y su poder para generar fuertes tensiones en el espectador. A pesar del aparente desorden de los elementos, el resultado —y este es un rasgo que caracteriza la mayor parte de su trabajo— es una pieza de gran fuerza, rotundidad y equilibrio, en la que cada componente cumple su función plástica. En ella, el artista engloba sus investigaciones en torno al *collage* y al uso, recuperación y manipulación de las instantáneas, creando una obra de arte total que explora los límites de la escultura, la pintura y la fotografía. EYM

tamaina handiko paipaia darabil euskarritzat, eta haren gainean paper pintatuak, oihalak eta haren ikusizko artxibotik ateratako argazkiak itsasten ditu. Argazki batzuk lehenagoko beste artelan batzuetan erabiliak dira; txakurraren argazkia bere lehen etapako *Kapsulatu* batzuetan ezagutu daiteke, izenburu hauexetan: *Txakurrak* (1974), *Txakur bikoitza* (1979) eta 1984ko *Txakur andaluziar malba*, besteak beste. Berdin gertatzen da berokien irudiekin; izan ere, konposizioari hiru dimentsioko efektu interesgarria ematen diote. Irudi horien jatorria artistak Hyde Parken (Londresen) 1964an atera zuen argazki batean dago; bertan, berokiaz estalita eguzkia hartzen zuen emakume bat erakusten du. Txakurren irudiekin gertatzen zen bezala, berokiarena 1984ko hainbat collageetan agertzen da, hala nola *Bi beroki*, *Síntesis eta Melo*. Teknika interesgarri horrek erakusten du artistak behin eta berriz jotzen duela iturri berdinetara, eta kasu bakoitzean testuinguruz erabat kanpo jartzen ditu, esanahi berriak emanez eta haiek ikono erabat autonomo bihurtuz. Era horretan, haren lana etengabeko eraldaketa eta manipulazio bihurtzen da, iraganerako bidaia etengabe bat, eta etorkizunera jauzi bat, erreferentzia eta inspirazio berrien bila.

*Berokien eta txakurren paipaia* pintatu gabeko pintura da, eta agerian uzten du Villalba liluratu egiten dela irudien ikusizko ahalmenarekin eta ikuslean tentsio biziak sortzeko duen gaitasunarekin. Itxuraz elementuak desordenan badaude ere, emaitza indar, irmotasun eta oreka handiko artelana da —hain zuzen, haren obrak duen ezaugarri nagusietako bat—, eta bertan osagai bakoitzak eginkizun plastiko bat betetzen du. Artistak collagearen inguruko eta argazkien erabilera, berreskurapen eta manipulazioaren inguruko ikerketak bildu ditu bertan, artelan biribila sortuz, eskultura, pintura eta argazkilaritzaren mugak esploratzen dituena. EYM



A pesar de contar con un merecido reconocimiento, en su desempeño como artista, Juan José Aquerreta huye del ruido y de las etiquetas. Calificado de creador solitario e independiente, cultiva una obra marcada por el silencio y la atemporalidad, que busca la veracidad del motivo representado. Su madre, escultora, le inculcó desde niño el amor por el trabajo en las tres dimensiones, si bien se sirve habitualmente de la pintura y el dibujo. El empleo ocasional de esa disciplina le permite materializar los volúmenes sólidos y rotundos que realiza en papel, obteniendo resultados muy notorios.

El retrato es el género artístico por excelencia en su obra. Lo practica como medio de autoconocimiento, de dignificación y reivindicación de la singularidad de cada ser humano, que proclama elevando a la persona a la categoría de monumento. De manera recurrente aparece una única figura aislada, resaltando también la otra cara de esa condición singular: la soledad.

En la trayectoria de Aquerreta es frecuente el trabajo en series, que le permite depurar la plasmación de un tema y ahondar en su esencia. Uno de los motivos a los que se dedicará a inicios de los noventa es el del atleta, que identifica con la figura mítica de Apolo y que manifiesta el interés del artista por la representación del ser humano. Aborda su elaboración mediante distintas técnicas, en unas ocasiones de cuerpo entero, en otras centrándose en su rostro.

Tal es el caso de *Cabeza de atleta*, pieza resuelta con una estructura muy clásica, en la que prescinde de los detalles para dar mayor protagonismo a las formas. A través de la realización de esta extensa serie sintetiza los rasgos fisionómicos, como si en su ejecución se produjera la búsqueda de una imagen arquetípica o de un canon subyacente. El resultado final es un busto hierático e inexpressivo y de apariencia colosal.

La pureza de sus líneas remite a la escultura griega arcaica, evidente en la simplicidad formal y en el acabado del yeso mediante una pátina que intenta imitar la suavidad del mármol. El primitivismo, la rotundidad de su geometría, el volumen y la solidez de la cabeza son características que se relacionan con la influencia que sobre él ejercen artistas como Piero della Francesca (h. 1415-1492) o Pablo Picasso (1881-1973). HRG

Merezitako aitortpena jaso badu ere, Juan José Aquerretak, artista jardunean, zaratatik eta etiketatik ihes egiten du. Sortzaile bakartia eta independentea da, eta isiltasunak eta atemporalitateak markatutako obra lantzen du, irudikatutako motiboaren egiazkotasuna bilatzen diharduena. Bere amak, eskultoreak, txikitatik sustatu zuen berarengan hiru dimentsioko lanarekiko maitasuna, nahiz eta pinturaz eta marrazkiaz baliatu ohi den. Diziplina hori noizbehinka erabiltzeak aukera ematen dio paperean egiten dituen bolumen sendo eta biribilak gauzatzeko, eta emaitza oso nabariak lortzen ditu.

Erretratua da bere obraren genero artistiko nagusia. Norbere burua ezagutzeko, duintzeko eta gizaki bakoitzaren berezitasuna aldarrikatze bitarteko gisa lantzen du erretratua, pertsona monumentu kategoriara goratuta. Behin eta berriro, irudi bat soilik agertzen da isolatua, eta egoera berezi horren beste alde ere nabarmentzen da: bakardadea.

Bere ibilbidean zehar Aquerretak sarritan lan egiten du sailetan, gai baten irudia araztea eta bere esentzian sakontzea ahalbidetzen diolako. 1990eko hamarkadaren hasieran erabilitako motiboetako bat atletarena da; Apoloren figura mitikoarekin identifikatzen du, eta gizakiaren irudikapenarekiko artistak duen interesa adierazten du. Teknika desberdinen bidez lantzen du, batzuetan gorputz osoa hartuta, beste batzuetan aurpegian oinarrituta.

Hori da *Atleta-buruaren* kasua, egitura oso klasikoa duen pieza, formei protagonismo handiagoa emateko xehetasunak alde batera uzten dituena. Serie zabal hau lantzean ezaugarri fisionomikoak sintetizatzen ditu, egikaritzean irudi arketipiko baten edo azpian datzan kanon baten bilaketa bat sortuko balitz bezala. Azken emaitza busto hieratikoko bat da, espresiorik gabea, eta itxura kolosalekoa.

Bere lerroen araztasunak eskultura greko arkaikoa gogorarazten digu; hori nabaria da sinpletasun formalean eta igeltsuaren akaberan, marmolaren leuntasuna imitatu nahi duen patina baten bidez. Buruaren primitibismoa, geometriaren irmotasuna, bere bolumena eta sendotasuna, zenbait artistek –Piero della Francescak (1415-1492 inguru) edo Pablo Picassok (1881-1973) besteak beste– berarengan duten eraginarekin lotzen dira. HRG







Gonzalo Chillida / Ignacio García Ergüin /  
Marta Cárdenas / Mari Puri Herrero / Darío Urzay

PAISAIAREN  
IKUSPEGI LIRIKOA

LA VISIÓN LÍRICA  
DEL PAISAJE



## Gonzalo Chillida Juantegui

San Sebastián Donostia, 1926 – 2008

Gonzalo Chillida es considerado uno de los renovadores del paisaje vasco y una de las principales figuras de la abstracción lírica en España. Su pasión por la pintura surge a edad temprana y en 1947 ingresa en la Academia de Bellas Artes de San Fernando, formación que complementará en el Colegio de España en París. Profundamente atraído por la naturaleza y por el paisaje, convertirá estos temas en los protagonistas de sus composiciones.

Durante los años cincuenta sus primeros trabajos —bodegones, vistas de ciudades y paisajes— se mueven dentro del naturalismo, aunque paulatinamente van evolucionando hacia la abstracción. En un inicio, el autor experimentará con la abstracción geométrica con obras de estética poscubista en las que el color se va suavizando y matizando y en las que las huellas del ser humano comienzan a desaparecer. Son imágenes silenciosas, con un lenguaje cercano al de los artistas de la Escuela de Madrid, pero con tintes metafísicos que recuerdan la obra de Giorgio Morandi (1890-1964) y las misteriosas escenas de Giorgio de Chirico (1888-1978).

Con el paso del tiempo su paleta se neutraliza por completo y las formas de sus primeras composiciones se diluyen. A su vuelta a San Sebastián, el redescubrimiento de los paisajes del Cantábrico le revelará un sinfín de nuevas posibilidades, que le llevarán a desarrollar un lenguaje absolutamente íntimo y personal. Desde este momento su mirada queda cautivada por las vistas de su ciudad natal, que representará reiteradamente en clave abstracta. De entre todos los elementos que componen este paisaje, Chillida se va a detener especialmente en cinco componentes esenciales: el mar, el cielo, el agua, la arena y el horizonte, que observaba desde el gran mirador de su vivienda, ubicada cerca de la bahía de la playa de la Concha. Tras una meditada contemplación de este escenario, fusiona y simplifica los elementos mencionados,

Gonzalo Chillida euskal paisaiaren berritzaileetako bat da, eta abstrakzio lirikoaren irudi nagusietako bat Espainian. Pinturarako grina gazte-gaztetan sortu zitzaion. Hala, 1947an Arte Ederren San Fernando Akademian sartu zen, eta Parisen osatu zuen prestakuntza, bertako Espainiako Ikastetxean. Naturak eta paisaiak biziki erakarrita, gai horiek bere konposizioetako protagonista bihurtuko ditu.

1950eko hamarkadako bere lehenengo lanak —natura hilak, hirien eta paisaien ikuspegiak— naturalismoaren barruan mugitzen dira, baina abstrakziorantz eboluzionatzen doaz. Hasiera batean, Chillidak abstrakzio geometrikoarekin esperimintatu zuen, estetika postkubista duten obrekin, non kolorea leuntzen eta ñabartzen joango den eta gizakiaren arrastoak desagertzen hasten diren. Irudi isilak dira, Madrilgo Eskolako artisten hizkuntzatik hurbil daudenak, baina Giorgio Morandiren (1890-1964) obra eta Giorgio de Chiricoren (1888-1978) eszena misterioitsuak gogorarazten dituzten halako kutsu metafisiko bat darie.

Denborak aurrera egin ahala, Chillidaren paleta erabat neutralizatu zen, eta bere lehenengo konposizioen formak desagertu egin ziren. Donostiara itzultzean, Kantauriko paisaiekin berriro topo egiteak aukera berri ugari utzi zizkion agerian, hizkuntza erabat intimo eta pertsonala garatzera eraman zutenak. Une hartatik aurrera bere begiak liluratuta utzi zituzten bere jaioterriaren ikuspegiak, eta behin eta berriz irudikatu zituen abstrakzioaren bidetik. Paisaia hau osatzen duten elementu guztien artean, Chillidak funtsezko bost osagaitan bereziki jarriko du arreta: itsasoa, zerua, ura, harea eta zerumuga, Kontxa hondartzako badiatik gertu, bere etxeo begiratoki handitik behatzen jarduten zuena. Eszenario hori sakonetik hausnartu ondoren, Gonzalo Chillidak aipatutako elementuak fusionatu eta sinplifikatu egin zituen, eta pintura-multzo bat sortu zuen; horren emaitza

cat. 35 **Arenas/Sands, 1978**

*Hareak/Sands*


Óleo sobre lienzo Olio-pintura mihise gainean

113,7 × 145,8 cm

N.º inv. Inb. zk. P02163







creando un conjunto de pinturas cuyo resultado es un auténtico poema visual que traspasa las fronteras de lo puramente físico.

Esta obra de la Colección BBVA, interesante ejemplo de su lenguaje plástico, pertenece a la serie *Arenas*, que constituirá su tema más distintivo y personal. Comienza a trabajar en esta serie en los años sesenta, motivado por su fascinación por los efectos de la luz sobre los delicados afluentes que la bajamar deja sobre la arena. El pintor empieza a explorar plásticamente este fenómeno ya a finales de los años cincuenta, aunque todavía aparece representado desde una estética realista. Será en los siguientes años cuando dé el salto a la abstracción y estas escenas empiecen a despojarse de esa referencia naturalista.

A finales de los años setenta y principios de los ochenta, sus *Arenas* evolucionan hacia un paisaje más geométrico y ligeramente más compacto, en el que la arena adquiere un carácter tectónico. Una transformación que se hace evidente en esta obra de la Colección, en la que la arena va adquiriendo una nueva fisonomía. A pesar de ello, la obra sigue mostrando el ambiente de ensoñación característico de su obra: ese lugar-no lugar en el que el horizonte se desdibuja ante el encuentro entre el mar y el cielo; ese paisaje deshabitado, cuyos límites se extienden mucho más allá de lo puramente visible y cuyas sugerentes y sosegadas formas inducen a la introspección y a la reflexión.

Frente a las visiones más agresivas del paisaje vasco ofrecidas por otros artistas, Gonzalo Chillida propone una perspectiva absolutamente poética y reflexiva, en cuyas formas se evidencia la admiración por la filosofía oriental. En sus obras todos los elementos fluyen en armonía, materializándose en unos paisajes abstractos que trascienden los límites de lo real para adentrarse en el mundo de las ideas metafísicas. EYM

benetako poema bisual bat da, fisikoa soilik denaren mugak gainditzen dituena.

BBVA Bildumako lan hau, Chillidaren hizkuntza plastikoaren adibide interesgarria, *Hareak* sailekoa da, bere gairik bereizgarri eta pertsonalena. Chillida 1960ko hamarkadan hasi zen sail honetan lanean, eta artista liluratzen zuen gertaera honetan du sorburua: itsasbeherak hondarraren gainean uzten dituen ur-arrasto finen gainean argiak dituen efektuak. 1950eko hamarkadaren amaieran Gonzalo Chillida hasia zen fenomeno hori plastikaren arloan aztertzen, baina estetika errealista batetik irudikatuta agertzen zen oraindik. Hurrengo urteetan abstrakzioarako jauzia egin zuen Chillidak, eta harrezkero hasi ziren eszena hauek erreferentzia naturalista horretaz erantzten.

1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980koaren hasieran, bere *Hareak-ek* paisaia geometrikoago eta apur bat trinkoago baterantz eboluzionatu zuten, eta izaera tektoniko bat hartu zuen elementu honek. Eraldaketa hori nabaria da Bildumako obra honetan, non fisonomia berri bat hartzen duen hareak. Hala eta guztiz ere, lan honek Chillidaren obraren amets giro bereizgarri hori erakusten jarraitzen du: zeruaren eta itsasoaren arteko elkartzearen aurrean zerumuga lausotzen den leku/ez leku hori; jenderik gabeko paisaia hori, zeinaren mugak ikusgarria soilik den horretatik harantz hedatzen diren, eta zeinaren forma iradokitzaile eta bareek introspekziara eta hausnarketara bultzatzen gaituzten.

Beste artista batzuek eskainitako euskal paisaiaren ikuspegi oldarkorrenen aurrean, Gonzalo Chillidak ikuspegi erabat poetikoa eta gogoetatsua proposatzen du, eta bere formetan agerian geratzen da ekialdeko filosofiarekiko miresmena. Bere obretan harmonian jariatzen dira elementu guztiak, eta ideia metafisikoen munduan murgiltzeko errealtatearen mugak gainditzen dituzten paisaia abstraktu batzuetan gauzatzen dira. EYM



## Ignacio García Ergüin

Bilbao Bilbo, 1934

Pintor, cartelista y escenógrafo, García Ergüin es un artista inclasificable, muy arraigado en Bilbao, su ciudad natal. A lo largo de su trayectoria, e influida por las corrientes internacionales, su producción evoluciona desde la figuración expresionista hasta una progresiva abstracción esencialmente lírica. Esta transición surge de manera natural al centrarse en la expresividad de la mancha y el color, una herencia de la tradición pictórica española, a la que se añade la aportación de recursos plásticos propios de gran calidad técnica.

Aunque abordó diversas temáticas, el paisaje es considerado el protagonista absoluto de su obra. Es el caso de este lienzo, claro ejemplo también de su evolución estilística. Pertenece al inicio de la década de los noventa, que abre una etapa de fecundo trabajo y fortuna crítica, en la que el autor lleva a cabo una serie de piezas basadas en los cielos de Lanzarote. Es importante destacar la profunda relación que, desde su primera estancia, en los años setenta, mantiene con la isla, cuyo entorno tendrá un especial poder evocador que nunca le abandonará y que plasmará en una parte fundamental de su producción.

En *Luz amarilla verde* podemos observar cómo, a partir del cielo cargado de calima tan propio de esas tierras isleñas, configura una obra de gran impacto visual y de suma elegancia pictórica. En su ejecución, el artista se deja llevar por la pintura: la referencia desaparece, y convierte el celaje en una composición abstracta de connotaciones claramente poéticas, incluso de acentuado lirismo. La pincelada suelta y enérgica hace patente su maestría técnica a la vez que su extraordinaria sensibilidad, creando un paisaje de carácter sublime, en el que la representación de un fenómeno lumínico sirve para evidenciar un trasfondo espiritual. HRG

Margolari, kartelgile eta eszenografoa, García Ergüin artista sailkaezina da, oso errotua Bilbon, bere jaioterrian. Bere ibilbidean zehar, eta nazioarteko korronteek eraginda, bere produkzioak eboluzionatu egiten du figurazio espresionistatik hasi eta abstrakzio progresibo liriko bateraino. Trantsizio hori modu naturalean sortzen da, orbanaren eta kolorearen adierazkortasunean zentratzen delako, hau da, Espainiako pintura-tradizioaren herentzian, eta horri kalitate tekniko handiko baliabide plastikoak gehitzen zaizkio.

Hainbat gai landu zituen arren, paisaia da bere obraren protagonista nagusia. Horixe da mihise honen kasua, haren bilakaera estilistikoaren adibide argia. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasierakoa da, lan emankorreko eta kritika bikaineko etapa bati bide emango diona, egileak Lanzaroteko zeruetan oinarritutako hainbat pieza egin zituenean. Garrantzitsua da nabarmentzea lehen egonalditik, hirurogeita hamarreko hamarkadatik, uhartearekin izan duen harreman sakona. Uhartearen inguruneak ahalmen iradokitzaile berezia izango du, inoiz utziko ez duena eta bere produkzioan neurri handi batean islatuko duena.

*Argi hori berdean* ikusiko dugunez, uharteetako lur horietan hain berezkoa den lanbroaz estalitako zerutik abiatuta, eragin bisual eta dotoretasun piktoriko handiko obra bat osatzen du. Obraren exekuzioan, artistak pinturari uzten dio bidea egiten: erreferentzia desagertu egiten da, eta konposizio abstraktu bihurtzen du lainoa, ageriko konnotazio poetikoekin, baita lirismo nabarmenarekin ere. Pintzelkada solteak eta kementsuak agerian uzten du bere maisutasun tekniko eta, aldi berean, bere sentsibiltate berezia, izaera sublimeko paisaia bat sortzeko, non argi-fenomeno baten irudikapenak atzealde espirituala nabarmentzeko balio duen. HRG

cat. 36 *Luz amarilla verde, 1990*

*Argi hori berdea*

Óleo sobre tabla Olio-pintura taula gainean

100 × 120 cm

N.º inv. Inb. zk. P03586





## Marta Cárdenas

San Sebastián Donostia, 1944

Autora de inconfundibles paisajes poéticos de gran lirismo e intimismo, Marta Cárdenas es una de las principales protagonistas de la abstracción vasca contemporánea. Una temprana vocación artística propicia su decisión de dedicarse al mundo de la creación plástica, actividad que compagina con su interés por la escritura. Su pasión por ambas disciplinas se evidencia en los más de trescientos cuadernos de apuntes que ha ido completando durante toda su trayectoria.

A lo largo de su carrera, la pintura de Cárdenas muestra una interesante evolución, fruto de sus experiencias personales. Tras una primera etapa en la que elabora un conjunto de telas orientadas hacia una cierta figuración naturalista y melancólica, en 1979, un encuentro fortuito con la naturaleza le lleva a tomar el camino de la abstracción. Desde este momento, produce una serie de obras de gran libertad y expresividad, configuradas mediante la pincelada y el color. En estas piezas, realizadas directamente del natural, se percibe la influencia de las *Ninfeas* de Monet (1840-1926) y de la gestualidad de Helen Frankenthaler (1928-2011). Para su ejecución es fundamental un recurso utilizado con frecuencia en la historia del arte: la toma de apuntes sin despegar la mirada del modelo. Este procedimiento le permite extraer los elementos principales del paisaje con rapidez y representar en clave abstracta los cambios lumínicos, la transformación de la naturaleza y el comportamiento de los animales en el entorno.

*Río (invierno)* es un excelente ejemplo del resultado de esa relación directa con la naturaleza. En él, son evidentes las reminiscencias de la pintura y el misticismo orientales, gracias al gesto caligráfico del pincel. La obra presenta un carácter simplificado, esencia del paisaje que está contemplando. Los sencillos trazos son consecuencia de la reinterpretación del entorno que observa, del que suprime todo elemento superfluo, haciendo perceptible lo imperceptible gracias a la proyección de los colores y la luz. EYM

Lirismo eta intimismo handiko paisaia poetiko oso berezien egilea da Marta Cárdenas, eta euskal abstrakzio garaikidearen protagonista nagusietako bat. Bokazio artistiko goiztiar batek bultzatuta, sorkuntza plastikoaren munduan aritzeko erabakia hartzen du, eta jarduera hori idazketarako interesarekin uztartzen du. Bi diziplinekiko duen grina agerian geratzen da bere ibilbide osoan zehar osatu dituen apunteen hirurehun koaderno baino gehiagotan.

Bere ibilbidean zehar, Cárdenasen pinturak bilakaera interesgarria erakusten du, bere esperientzia pertsonalen emaitza. Lehenengo etapan nolabaiteko figurazio naturalista eta malenkoniatsu batera bideratutako mihise multzo bat egin ondoren, 1979an naturarekiko ustekabeko elkarraldi batek abstrakzioaren bidea hartzera eramán zuen. Harrezkero, askatasun eta adierazkortasun handiko hainbat lan sortu ditu, pintzelkadaren eta kolorearen bidez taxutuak. Zuzenean naturaletik egindako lan horietan, Monet *Igebelarrak* (1840-1926) eta Helen Frankenthalerren (1928-2011) gestualitatearen eragina antzematen da. Lan horiek egikaritzeko funtsezkoa da artearen historian maiz erabiltzen den baliabide bat: modeloarengandik begirada aldendu gabe apunteak hartzea. Prozedura horri esker, paisaiaren elementu nagusiak azkar erauz ditzake, eta klabe abstraktuan adierazi argiaren aldaketak, naturaren eraldaketa eta animalien portaera ingurunean.

*Ibaia (negua)* naturarekiko harreman zuzen horren emaitzaren adibide bikaina da. Bertan, nabaria da ekialdeko pinturaren eta mistizismoaren eragina, pintzelaren keinu kaligrafikoari esker. Obra sinplifikatua da hau, behatzen ari den paisaiaren funtsa jasotzen duena. Trazu sinpleak begiratzen diharduen ingurunearen berrinterpretazioaren ondorio dira, zeinetik alferrikako elementu oro ezabatzen duen, eta koloreen eta argiaren proiektioari esker bihurtzen du ikusezina ikusgai. EYM

cat. 37 *Río (invierno), 1987*

*Ibaia (negua)*

Acrílico sobre cartón

Akrilikoa kartoi gainean

76 × 100 cm

N.º inv. Inb. zk. 7164





## Gonzalo Chillida Juantegui

San Sebastián Donostia, 1926 – 2008

Gonzalo Chillida es reconocido como uno de los principales paisajistas de la segunda mitad del siglo XX en España. Su delicada manera de abordar la pintura y su personal visión de la naturaleza vasca han jugado un papel fundamental en la renovación plástica de nuestro país.

Sus inicios artísticos —vinculados a su etapa de formación en Madrid y a su estancia en París— están marcados por la geometrización de los elementos, tal como evidencian las obras realizadas en los años cincuenta. En ellas se advierte una tendencia a la reducción de las formas, deudora del quehacer de importantes creadores del momento como Daniel Vázquez Díaz (1882-1969) o Pablo Palazuelo (1915-2007), cuya impronta es reconocible en estas primeras composiciones. Sin embargo, su regreso a San Sebastián y el redescubrimiento del húmedo entorno del mar Cantábrico favorece que sus escenas se vayan suavizando. Así, a partir de los años sesenta centra su atención en la poética del mar y el cielo, buscando permanentemente el lugar en el que ambos se encuentran y se fusionan, borrando los límites entre lo terrenal y lo intangible. De este modo, su pintura se va desligando de referencias naturalistas para, mediante la aplicación de delicadas veladuras, adentrarse en una abstracción lírica de inspiración romántica que se acerca a los horizontes densos y nebulosos de Caspar David Friedrich (1774-1840).

Esta *Marina*, ejecutada en 1991, es un claro ejemplo de la delicadeza que alcanza su trabajo hacia la década de los noventa; su estilo pictórico, ya totalmente definido, se caracteriza por una acentuada sutileza cromática, con predominio de tonalidades ocreas, azuladas y plateadas que aplica con sublime pulcritud. El autor extrae la esencia del paisaje que se extiende ante sus ojos, recurriendo a la superposición de capas de óleo muy diluidas para reflejar la variación lumínica que se produce en la superficie del agua. En esta obra, mar, arena y bruma se mezclan en una abstracción pura y reflexiva, que aspira a dibujar un espacio metafísico que invite a la introspección. EYM

